




Neurriak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana implementatze aldera hartu direnak



2023ko martxoa



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



Informe de Fiscalización sobre las medidas adoptadas en la Administración de la Comunidad Foral para la implementación del Plan de Recuperación, transformación y resiliencia (PRTR)

PRTR

- 4 ejes transversales:
 - Transición ecológica
 - Transformación digital
 - Cohesión territorial y social
 - Igualdad de género
- 212 medidas (reformas e inversiones)
- Ejecución 2020-2026
- 70.000 millones para España por transferencias no reembolsables de fondos MRR






Objetivos

- ¿El sistema de gobernanza es adecuado para la gestión del PRTR?
- ¿Se han adoptado las medidas precisas para que la gestión de recursos humanos se ajuste a las necesidades derivadas del PRTR?
- ¿Se han adoptado los sistemas de gestión y control y sistemas de información a los requerimientos del PRTR?

A 31 de diciembre de 2022, periodo 2020-2026:

- 497,21 millones fondos MRR asignados a la Comunidad Foral
 - 364,39 millones concedidos
 - 57,25 millones gastados
- 118 subproyectos
- 11 departamentos (entidades ejecutoras)




	Conclusiones	Recomendaciones
 Marco de gobernanza	<ol style="list-style-type: none"> 1) Modelo de gobernanza que ha permitido una simplificación de los procedimientos y una coordinación de las actuaciones 2) Transparencia: se ha publicado información sobre los fondos del PRTR en el Portal de Transparencia y Gobierno Abierto y en la página web 	<ol style="list-style-type: none"> 1) Asignar la coordinación de las actuaciones del PRTR a una unidad independiente de la Dirección General de Intervención 2) Analizar la conveniencia de crear unidades con funciones de planificación y dirección de los fondos del PRTR 3) Realizar una planificación estratégica para las inversiones del PRTR 4) Completar la información publicada en el Portal de Transparencia y Gobierno Abierto 5) Adoptar medidas para facilitar el conocimiento y el acceso a los fondos y fórmulas para asesorar sobre los subproyectos del PRTR a los potenciales beneficiarios
Gestión de Recursos Humanos 	Plan de gestión de cada subproyecto recoge las necesidades de RRHH	Realizar actuaciones para la cobertura y formación de los RRHH necesarios para la ejecución de los fondos del PRTR
Sistemas de gestión, control y sistemas de información 	<ol style="list-style-type: none"> 1) Aprobación de Planes de Medidas Antifraude 2) Marco de gestión y control presupuestario permite el seguimiento de los fondos asociados al PRTR 3) Desarrollo de un sistema de información para recoger los hitos y objetivos, condicionado a la estructura del sistema CoFFEE-MRR 	<ol style="list-style-type: none"> 1) Realizar la autoevaluación de los principios de gestión en todos los departamentos 2) Informar sobre los perceptores finales de fondos del PRTR, identificando a los contratistas y subcontratistas de cada subproyecto 3) Agilizar la ejecución de los subproyectos del PRTR asignados a los departamentos



AURKIBIDEA

GLOSARIO DE TÉRMINOS.....	3
ÍNDICE DE ABREVIATURAS	5
I. INTRODUCCIÓN.....	6
II. PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA.....	7
II.1 Next Generation EU	7
II.2 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.....	7
II.3 Asignación de fondos a las Comunidades Autónomas	9
III. OBJETIVOS, ALCANCE Y LIMITACIONES	12
IV. CONCLUSIONES Y RECOMENDACIONES.....	16
IV.1 Marco de gobernanza	16
IV.2 Cobertura de necesidades de recursos humanos	21
IV.3 Modelo de gestión	21
IV.4 Recomendaciones	28
V. RESPONSABILIDAD	30
APÉNDICE 1: MARCO NORMATIVO.....	31
APÉNDICE 2. RESULTADOS DE LA FISCALIZACIÓN	33
2.1 Marco de gobernanza	33
2.2 Cobertura de necesidades de recursos humanos.....	47
2.3 Modelos de gestión	48
2.4 Subproyectos de la muestra.....	63
APÉNDICE 3. EJECUCIÓN A 31 DE DICIEMBRE DE 2022 POR DEPARTAMENTOS.....	68
ALEGACIONES FORMULADAS AL INFORME PROVISIONAL	
CONTESTACIÓN DE LA CÁMARA DE COMPTOS A LAS ALEGACIONES PRESENTADAS AL INFORME PROVISIONAL	





FISKALIZAZIO TXOSTENA, NFKAN SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANA INPLEMENTATZE ALDERA
HARTU DIREN NEURRIEI BURUZKOA





Termino-glosategia¹

- Osagaia: SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egituratzen duten hogeita hamar ataletako bakoitza, ekonomiaren alor bati eskainia.
- Neurriak: osagai batean sartuta dauden erreforma eta inbertsio elkarlotuen multzoa.
- Proiektua: arduradun bakarraren (exekutatzeko-entitate) zuzendaritzapean dauden ekintzen, baliabideen eta bitartekoen multzoa, zeina eratua izan baita denbora-epe jakin batean erdieste aldera halako helburu edo emaitzak zeinetarako zehaztu baitira SEEPeko neurriak.
- Azpiproiektua: proiektu baten zati baten deskonposaketa, uztartuta daramana baliabide ekonomikoaren transferentzia eta azpiproiektuaren arduradun den exekutatzeko-entitateak mugari nahiz helburuak betetzeko konpromisoa hartzea.
- Jarduketa: proiektu edo azpiproiektu baten lehen deskonposaketa-maila, proiektu horren kudeaketa eta segimendurakoa.
- Jarduera: proiektu edo azpiproiektu baten bigarren deskonposaketa-maila, proiektu horren kudeaketa eta segimendurakoa.
- Eginkizuna: proiektu edo azpiproiektu baten hirugarren deskonposaketa-maila, proiektu horren kudeaketa eta segimendurakoa.
- Ekintza-ildoak: proiektu baten plangintza, kudeaketa eta segimendurako hiru deskonposaketa-maileri deitua (jarduketak, jarduerak eta eginkizunak).
- Programa: beren kudeaketa eta segimendua erraztearren talde berean biltzen diren proiektuen multzoa.
- Jarduketa-alorra: proiektu edo azpiproiektu berean sartutako azpiproiektuen multzoa. Talde berean biltzen dira haien kudeaketa eta segimendua errazteko.
- Fasea: proiektu edo azpiproiektu bereko jarduketa-multzoa.
- Mugariak eta Helburuak (MH): une jakinetan iritsi beharrekoak diren jomugak. Ahalbidetzen dute neurriek, proiektuek, azpiproiektuek edo ekintza-ildoek helburua edo emaitzak lortzen ote dituzten egiaztatzea.
- Adierazleak: MHetan lorturiko betetze-mailak neurtzen dituzte.

¹ Iturria: I. eranskina, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua-rena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duenarena.





- **Erabaki-entitatea:** SEEPean aurrekontu-zuzkidura duen entitatea, erreformen eta inbertsioen plangintza eta segimendua egiteaz eta horien mugarriak eta helburuak betetzeaz erantzukizuna duena. Erabaki-entitateak dira osagaien ardura duten ministerio-departamentuak.
- **Exekutatzeko-entitatea:** honi dagokio kasuko erreforma eta inbertsioetako proiektu edo azpiproiektuak bere eskumenen esparruan eta erabaki-entitatearen irizpide eta gidalerroei jarraikiz exekutatzea. Proiektuen exekutatzeko-entitate dira ministerioetako departamentuak eta Estatuko Administrazio Orokorreko entitateak; eta, azpiproiektuen kasuan, horiek dira ministerioetako departamentuak, Estatuko Administrazio Orokorreko nahiz autonomi eta toki administrazioetako entitateak, eta sektore publikoko beste parte-hartzaile batzuk.
- **Organo erantzulea:** erabaki-entitatearen esparruan neurriaren kudeaketari buruzko txostena edo osagaiaren kudeaketari buruzko txostena egin, sinatu eta izapidetzearen erantzukizuna daukan organoa.
- **Kudeatze-organoa:** exekutatzeko-entitatearen esparruan proiektu edo azpiproiektuaren kudeaketari buruzko txostena egin, sinatu eta izapidetzearen erantzukizuna daukan organoa. Kudeatze-organoak halaber sinatuko ditu proiektu edo azpiproiektuko mugarri eta helburuen lorpenari buruzko ziurtagiriak eta aurreikuspen-txostenak. Administrazio autonomikoaren esparruan, kudeatze-organo izanen da kasuko kontseilaritzan edo baliokidean idazkariorde-eginkizunen kidekoak betetzen dituen organoaren titularra.
- **Kudeaketa-txostena:** Frogagiri bat da, mugarrien, helburuen eta Suspertze eta Erresilientzia Erregelamenduko gainerako betekizunen egoera, esparru bakoitze-koa (osagaia, neurria, proiektua edo azpiproiektua), bai eta gastuari buruzko kontabilitate-informazioa, ezagutarazten duena. Frogagiri horren egile eta sinatzaile da exekutatzeko-entitate baten kudeatze-organoa, edo neurriaren organo erantzulea, edo erabaki-entitate bateko osagaiaren organo erantzulea.





Laburdura-aurkibidea

- **NFKA:** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa
- **EAO:** Estatuko Administrazio Orokorra
- **DDBN:** Dirulaguntzen Datu Base Nazionala
- **AAEE:** Autonomia erkidegoak
- **NFK:** Nafarroako Foru Komunitatea
- **SEM:** Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa
- **NGEB:** Next Generation Europar Batasuna
- **KKO:** Kanpo Kontroleko Organoak
- **ESEPE:** Ekonomia Susperu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak
- **DPE:** Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- **IANP:** Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana
- **SEEP:** Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana
- **EFIN:** Europako Funtsen Idazkaritza Nagusia



I. Sarrera

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz, erakunde honek 2022rako bere fiskalizazio-programan jaso zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean, NFKA) Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) inplementatzeko harturiko neurriei buruzko txosten bat egitea.

Lan hori Kontuen Auzitegiarekin eta KKO-Kanpo Kontroleko Organoekin koordinatuta eta horiekiko elkarlanean egin zen, Kontuen Auzitegia eta KKOak autonomia-erkidegoen esparruan koordinatzeko batzordeak 2022ko otsailaren 11n hartutako erabakiaren bidez, zeinaren bitartez fiskalizatzen baitziren SEEPa inplementatze aldera autonomia-erkidegoetan eta -hirietan ezarritako neurriak.

Kontuen Ganberak Kontuen Auzitegiarekin lankidetzan aritzea eta kasuko fiskalizazio-txostena egitea erabaki zuen. Lan honen emaitzak eta gainerako KKOen nahiz auzitegiaren beraren fiskalizazioetatik lortutakoak jaso egingen dira autonomia-erkidego guztiei buruz Kontuen auzitegiak prestatuko duen txosten globalean.

Landa-lana 2022ko maiatza eta azaroa bitartean egin du auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituena alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu dituzte Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak eta NAPIko zuzendari kudeatzaileak, eta horiek txosten honetan jaso dira, Ganberak horiei emandako erantzunarekin batera.

Eskerrak ematen dizkiegu Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusikoa den SEEP eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuko langileei eta NFKAko departamentuei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.





II. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana

II.1 Next Generation EU

Covid-19ak izandako inpaktu ekonomiko eta soziala samurtu eta Europar Batasun osoan ekonomiaren suspertzeari bultzada ematearren Europar Batasunak hartutako neurriak ardaztuta daude 2021-2027rako Hainbat Urtetarako Esparru Finantzarioan, zeinak 1,07 bilioiko zuzkidura baitauka, eta estatu kideen multzo osorako 750.000 milioiko balioa duen "Next Generation EU" (NGEU) Europako Suspertze Tresnan.

NGEUren muina SEM-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa dugu, 672.500 milioiz hornitua (baliabide guztien ehuneko 90). Diru horretatik, 360.000 milioi euro maileguetara bideratuko dira, eta 312.500, transferentzia ez-itzulgarrietara.

SEMek lau helburu nagusi ditu: sustatzea EBk kohesioa erdietsi dezan ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen alorretan, estatu kideen erresilientzia eta doitze-ahalmena indartzea, Covid-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak samurtzea eta trantsizio ekologikoa eta digitala aldezte.

Estatu bakoitzak Suspertze eta Erresilientzia Plan Nazional bat taxutu behar du, halakoa non bertan jasoko baitira helburu horiek erdiesteko beharrezkoak diren erreformak eta inbertsio-proiektuak.

II.2 Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana

Espainiako SEEPa 2021eko apirilaren 27an onetsi zuen Ministro Kontseiluak. Bruselara 2021eko apirilaren 30ean igorri zen, eta Kontseilu Europarrak 2021eko uztailaren 13an onetsi zuen, Batzordeak hala proposatuta.

Planak honako lau ardatz transbertsal hauek ditu oinarrian:

- Trantsizio ekologikoa
- Eraldaketa digitala
- Lurralde- eta gizarte-kohesioa
- Genero-berdintasuna

Planak ehuneko 39 bideratzen du inbertsio berdera, eta ehuneko 29, eraldaketa digitalera. Portzentaje horiek altuagoak dira SEMaren Erregelamenduak inbertsio horietarako ezartzen dituen gutxienekoak (ehuneko 37 eta 20koak, hurrenez hurren) baino.

Planaren lau ardatzak honako hamar akuilu-politikan antolatzen dira:

I. Hiri- eta landa-agenda, despopulaketaren aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena





II. Erresilientziarako azpiegiturak eta ekosistemak

III. Trantsizio ekologiko justu eta inklusiboa

IV. XXI. menderako administrazio bat

V. Industria-ehundura eta ETE-enpresa txiki eta ertainak modernizatu eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainiari nazio ekintzailea izateko bultzada ematea

VI. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea

VII. Hezkuntza eta jakintza, etengabeko prestakuntza eta gaitasun-garapena

VIII. Zainketa-lanen ekonomia berria eta enplegu-politikak

IX. Kulturaren eta kirolaren industriari bultzada ematea

X. Sistema fiskala modernizatzea, hazkundera inklusibo eta jasangarria izan dadin

Hamar akuiluen barnean 30 osagai ezartzen dira, bai araugintzakoak bai inbertsiokoak, eta horiek guztiak 212 neurritan egituratzen dira (102 erreforma eta 110 inbertsio), zeinetarako konpromisoa hartzen baitu Espainiak, 220 mugarri eta 196 helburu betetzeko.

SEEP (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana) da SEM-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko europar funtsak eskuratzeko bidea paratzen eta prestatzen duen tresna.

Espainiak 2021-2026 epean 140.000 milioiraino jaso ahalko du. Diru horretatik, 69.528 dira transferentzia ez-itzulgarriak, parterik handienez 2021-2023 epean exekutatu direnak. Gainerako, 2023ko abuztuaren 31 baino lehenago eskatu beharko diren maileguak.

Emaitzetan oinarrituriko tresna dugu SEM, eta, bai transferentzien kasuan bai maileguenez, funtsak zatika helarazten dira, SEEPa osatzen duten erreforma eta inbertsioetarako ezarritako mugarri eta helburuak betetzen joan ahala.

Espainiak Europako Batzordearengandik 31.036 milioi jaso ditu, SEMeko transferentzienak, behin irizpen positiboa egin denean. Horiek honela xehakatzzen dira:

Urtea	Jasotako zenbatekoa (milioitan)		Betetako mugarri eta helburuak		
			Kopurua		Aldia
2021	9.036	Aurrefinantzaketa	52	2020ko otsaila-2021eko ekaina	
	10.000	1. helarazpena			
2022ko uztai-laren 29a	12.000	2. helarazpena	40	2021eko 2. seihilekoa	
31.036					

2023ko otsailean, Europako Batzordeak irizpen positiboa eman zuen 2022ko lehen seihilekoko 29 mugarri eta helbururen betetzeaz. Horiek Suspertze Planeko





hirugarren ordainketarekin lotura dute, zeina Espainiako Gobernuak 2022ko azaroaren 11n eskatu baitzuen eta 6.000 milioikoa baita.

CoFFEE-MRR informazio-sistema

CoFFEE-SEM da HFP/1031/2021 Aginduan ezartzen den tresna bat, kudeatze- eta segimendu-lana egiteko neurri eta proiektuei, mugarri eta helburuei eta proiektuekin lotura duten gastuen kontabilitate- eta aurrekontu-exekuzioari dagokienez.

2022ko azaroaren 30ean, CoFFEE-MRR ez zegoen oraindik erabat operatibo autonomia-erkidegoentzat. Tresna hori funtsezkoa da SEEPeko azpiproiektuen kudeaketarako eta, batez ere, mugarri eta helburuen betetzearen segimendu-lana egiteko, betetze hori funtsak helarazteko baldintza nahitaezkoa izaki.

II.3 Autonomia-erkidegoei funtsak esleitzea

Autonomia-erkidegoetan, SEEPeko inbertsioak honako bide hauetatik egin daitezke²:

- Estatutik autonomia-erkidegoei funts-transferentziak egitea, haiek beren eskumen-esparruan proiektuak kudeatzeko.
- Ekonomia Suspertu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak (ESEPE). ESEPEak lankidetzaren publiko-pribatuko mekanismo berri bat dira.
- Estatuak zuzenean kudeatutako programak.

Funts-transferentziei dagokienez, Estatuak autonomia-erkidegoei SEEPeko baliabideak esleitzen dizkie ministerio eskudunek eta autonomia-erkidego guztiek parte hartzen duten konferentzia sektorialetan. Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-Dekretuak, zeinaren bidez neurri urgenteak onetsi baitziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta SEEPa exekutatzeko, SEEPeko Konferentzia Sektoriala eratu zen, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaren organo bezala, xede duena autonomia-erkidegoek planeko proiektuetan duten partaidetza bideratzea eta horren inplementaziorako lankidetzaren eta koordinazio-mekanismo eta bideak ezartzea.

Salbuespen modura, zilegi da funtsak zuzeneko ematearen, norgehiagokaren edo hitzarmenen bitartez ere esleitzea.

Azpiproiektu bat autonomia-erkidego bati esleitzeak berarekin loturik dakar diru-baliabideak transferitzea eta exekutatzeko-entitateak konpromisoa hartzea mugarri eta helburuak betetzeko.

² B.2 alegazioaren bitartez aldaturiko paragrafoa





Nafarroako Foru Administrazioari esleituriko SEEPeako azpiproiektuak

2022ko abenduaren 31rako, NFKAk 118 azpiproiektu zeuzkan esleituta. Horiek 2022ko abenduaren 31rako departamentuka izan duten aurrekontu-exekuzioa honakoa izan da:

Diru-sarrerak

Exekutaze-entitatea: departamentua	Azpiproiektu-kopurua	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	Diru-sarrerak 2020-2022	Betetakoa (%) Diru-sarrerak
Lehendakaritza, Berd., Funtzio Publ. eta Barnea	1	1.306.712	1.306.712	100
Lurralde Kohesioa	5	20.644.705	20.644.705	100
Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	8	93.124.400	62.788.800	67
Hezkuntza	16	67.167.507	61.019.115	91
Osasuna	6	20.885.214	17.521.900	84
Landa Garapena eta Ingurumena	11	39.474.760	28.930.260	73
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	15	120.592.828	95.831.449	79
Eskubide Sozialak	24	63.656.088	32.258.231	51
Kultura eta Kirola	12	9.092.862	4.251.430	47
Migrazio Politikak eta Justizia	9	8.275.229	7.689.566	93
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	11	34.985.906	32.145.085	92
Guztira	118	479.206.211	364.387.253	76

Gastuak

Exekutaze-entitatea departamentua	Behin betiko aurrekontua 2020-2026	Gastuak. Baimenduak, 2022-2026	Gastu konprometitua 2022-2026	2020-2022 urteetako gastuak	Konp.-ren %, behin betiko aurrek. ganean	Gastuen %, behin betiko aurrek. ganean
Lehendakaritza, Berd., Funtzio Publ. eta Barnea	2.547.470	1.693.392	57.101	7.891	2	0
Lurralde Kohesioa	12.678.688	5.683.185	5.683.185	2.530.030	45	20
Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	99.204.912	68.277.208	26.227.027	2.595.855	26	3
Hezkuntza	42.867.871	15.393.462	9.189.643	4.211.564	21	10
Osasuna	27.012.519	20.864.024	20.823.990	9.608.815	77	36
Landa Garapena eta Ingurumena	28.060.436	18.164.884	7.500.910	284.263	27	1
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	88.560.819	56.325.825	35.444.354	16.391.968	40	19
Eskubide Sozialak	74.713.714	47.069.697	33.927.327	14.738.673	45	20
Kultura eta Kirola	4.355.937	3.172.192	2.007.327	548.701	46	13
Migrazio Politikak eta Justizia	5.958.878	2.661.068	494.340	461.534	8	8
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	35.017.657	28.665.823	28.530.555	5.865.956	81	17
Guztira	420.978.901	267.970.760	169.885.759	57.245.250	40	14





SEEPeko 2020-2026 aldirako funts-finantzaketa aurreikusia 479,21 milioikoa da, eta osoki egotzita dago 2020-2023 aldira.

Diru-sarrera aurreikusien ehuneko 25 Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren 15 azpiproiekturi dagokio, eta ehuneko 19, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren zortzi azpiproiekturi.

2022ko abenduaren 31n, NFKAri esleituta zeuden funtsek 364,39 milioi egiten zuten; hots, aurreikusitako finantzaketa osoaren ehuneko 76. 354,31 milioi kobratu dira. Zenbateko horrek diru-sarrera esleituen ehuneko 97 egiten du.

2020-2026 aldirako aurreikusita egonik SEEPeko funtsekin finantzaturikoak diren azpiproiektuen gastuek 420,98 milioi egiten dute. 2020-2023 aldirako daude aurreikusita horien ehuneko 72.

Aurreikusitako guztizko gastuaren ehuneko 24 Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari dagokio; eta ehuneko 21, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari.

2022ko abenduaren 31rako, konprometituta zegoen 2020-2026 aldirako aurreikusitako gastuen ehuneko 40.

Aitorturiko betebeharrak 57,25 milioi egiten dute, behin betiko aurrekontuaren ehuneko 14.

Nabarmena da exekuzioa baxua izan dela, ehuneko bost baino gutxiagokoa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuan. Hain zuzen, departamentu horiei finantzaketa aurrekusiaren ehuneko 100, 73 eta 67 esleitu zaie, hurrenez hurren.

Hirugarren gehigarrian erakusten da 2022ko abenduaren 31rako egina zegoen aurrekontu-exekuzioa, departamentuka, 118 azpiproiektuei buruz.



III. Helburuak, norainokoa eta mugak

Sistemen eta prozeduren fiskalizazio operatibo bat egin da, ebaluatze aldera ea NFKAk beharrezko neurriak hartu dituen SEEPa inplementatzeko. Fiskalizazio horren helburuak honako hiru galderetan zehazten dira:

1. helburua: SEEParen esparruan ezarri al da kudeaketarako gobernantza-sistema egokirik?
2. helburua: Ezarri al da beharrezko neurririk, giza baliabideen kudeaketa SEEPetik eratorritako premiei lot dakien?
3. helburua: prozedurak, kudeatze- eta kontrol-sistemak eta informazio-sistemak egokitu egin al dira SEEPeke baldintzetara?

Helburu bakoitzerako, honako azpigelburu eta irizpide hauek zehaztu dira:

1. helburua. Ezarri al da gobernantza-sistema egokirik?

Azpigelburuak	Irizpideak
1.1 NFKAk egin al du araugintzazko garapen berekirik SEEPeke funtsen kudeaketarako?	NFKAk onetsitako araudia Araugintza-prozesua
1.2 Ba al da antolaketa-egiturarik, SEEParen esparruan NFKAk eginiko urratsen zuzendaritza, koordinazio eta segimenduaren ardura duenik?	Gobernantza-egiturak Betetako funtzioak
1.3 Inplementatu al da SEEPeke azpiproiektuen kudeaketarako plangintza-tresnarik, modua ematen duenik mugari eta helburuak lortu, arriskuak kudeatu eta erabakiak hartzeko?	Arau-aurreikuspenak Plangintza estrategikoa Kudeaketa-tresnen plangintza estrategikoa SEEPeke kudeaketa-premiak direla-eta ezarritako soluzioak
1.4 Maiztasun jakineko informaziorik ematen al da NFKAk SEEP exekutatzeari buruz?	https://planderecuperacion.gob.es/ webgunean argitaratutako informazioa Informazioa helarazteko gidalerroak jasotzen dituzten araudi, erabaki, jarraibide edo gidak NFKAren webguneetan argitaratutako informazioa https://nextgeneration.navarra.es/es/ https://gobiernoabierto.navarra.es/es/transparencia/economica/fondos-europeos-recuperacion Parlamentuarentzako informazioa
1.5 Abian jarri al da interesdunek funtsen berri izateko eta horiek eskuratu ahal izateko sustatze- eta errazte-ekimenik?	Araudia, erabakiak, jarraibideak, planak edo gidak Sostengu- eta aholku-neurriak Berriemate-neurriak





2. helburua. Ezarri al du NFKAk beharrezko neurririk, giza baliabideen kudeaketa SEEPetik eratorritako premiei lot dakien?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.1. Giza baliabideen plangintzaren eta kudeaketaren alorrean ba al du NFKAk araugintzazko garapen berariazko-rik, SEEParekin lotura duten funtsen exekuziotik eratorritako premiei erantzuten dienik?	Berezitasunak, araudian aurreikusitako plangintza eta kudeaketaren alorrekoak Jarraibideak, orientabideak, gidak edo bestelako dokumentuak, SEEParekin lotura duten giza baliabideen plangintza, kudeaketa eta prestakuntzarakoak
2.2. Egin al du NFKAk plangintza estrategikorik, SEEPari eskainitako giza baliabideen kudeaketari begira?	Plangintza estrategikoko tresnak
2.3. Ezarri al da langileria-kudeaketako neurririk, SEEParen inplementazioaren ondoriozko giza baliabide premiei erantzutekorik?	Langileria-premiei erantzuteko neurriak Langileentzako pizgarri bereziak
2.4. Sumatu al da prestakuntza-premiarik SEEPeko funtsak exekutatu ahal izateko, eta egin al da prestatze-jarduerarik?	Egindako prestakuntza-ekintzak Emandako ikastaroen balorazioa

3. helburua. Prozedurak, kudeatze- eta kontrol-sistemak eta informazio-sistemak egokitu egin al dira SEEPeko baldintzetara?

Azpihelburuak	Irizpideak
3.1. Kudeatze-sistema egokitu egin al da SEEPeko kudeatze-printzipioetara?	Autoebaluazio-testa Mugarri eta helburuak NFKAaren dirulaguntza-araudia SEEPak finantzaturiko dirulaguntzak izapidetze aldera NFKAaren dirulaguntza-araudian txertatu diren berezitasunak
3.2. Hartu al da araugintza-neurririk dirulaguntzen, kontratuen eta beste kudeaketa-tresna batzuen izapidetzea azkartu eta sinpletzeko?	NFKAaren kontratazio-araudia SEEPak finantzaturiko kontratu eta hitzarmenak izapidetze aldera NFKAaren dirulaguntza-araudian ezarri diren berezitasunak
3.3. Indartu al dira iruzurraren prebentziorako, detekziorako eta deuseztapenerako mekanismoak, horretarako onetsiz, besteak beste, iruzurraren aurkako neurrien planak?	Iruzurraren aurkako neurrien plan onetsiak Autoebaluazioa. HFP 1030/2021 Aginduko II.B.5 eranskina Arduradun gorenaren konpromiso-adierazpena Etika- eta/edo jokabide-kodea SEEParekin lotura duten dirusarreraren eta gastuen identifikazio eta segimendurako neurriak
3.4. Ezarritako aurrekontu-kudeaketa eta -kontrolako esparruak modurik ematen al du SEEParekin lotura duten funtsen segimendu egokirik eta aurrekontu-kudeaketa arin eta malgurik egiteko?	Urraketa-kasuan funtsak itzultzeko neurriak Aurrekontu-aurreikuspeneko txostena Funtsen aurrekontu-kudeaketa arinduko duten araugintzazko neurriak Kontrola arinduko duten aurrekontu-kontrolako araugintzazko neurriak
3.5. Informazio-sistemak egokitu egin al dira SEEPeko kudeatze-premietara?	Azpiproiektuen segimendua egiteko sistema Kontabilitate- eta aurrekontu-informazioko sistema Kontratu eta dirulaguntzak identifikatzeko mekanismoa





Norainokoa

Fiskalizazioaren mugarte subjektiboa NFKA da.

Mugarte objektiboa osatzen dute araugintzaren, gobernantzaren, plangintzaren eta antolaketaren alorretako neurriek, barne harturik NFKAn SEEPa inplementatzeko prestatuturiko kudeatze-sistemen, prozeduren eta informazio-sistemen egokitzapena.

Fiskalizazioaren denbora-mugartea 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko maiatzaren 31ra bitartekoa da. Dena den, hasierako epe hori luzatu egin da, jarraian zehazten diren egunetara arte, gero batean eginiko urratsak barne hartzeko:

- 2022ko azaroaren 30, barne hartzearen Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratutako informazioa.
- 2022ko abenduaren 31, azpiproiektuen aurrekontu-exekuziorako, zeinak barne hartzen baitu 2020-2022 epea.³

Fiskalizazioaren azpigelburuei erantzuteko datuak gehienbat galdetegietatik lortu ditugu, Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiari –horren esanetara dago SEEParen Koordinazio Zerbitzua– eta Kontabilitate Nazionalari bidaliak (azken hori solaskide jardun da departamentuen eta Ganbera honen artean, informazio-eskarak eta erantzunak zentralizatzearen).

Mugak

Gure lanaren norainokoari muga gertatu zaio erantzunik eza, bai eta bidali ditugun galdetegietako galderei emandako erantzun batzuen inkoherentzia ere. Muga horiek samurtu eta informazioa lortzearen, probak egin ditugu, hiru azpiproiektuko lagin batean, honako zertzelada hauei buruz: plangintza-tresnak, dirulaguntzak eta kontratuak. Honako hauek dira lagineko azpiproiektuak:

³ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduak (EB), 2021eko otsailaren 12koak, zeinaren bidez SEM ezartzen baita, adierazten du 2020ko otsailaren 1etik aurrera hasitako neurrietarako finantzaketa eskatu ahalko dela.





Azpiroiectua	Exekutaze-entitatea: departamentua	Esleituriko funtsak	DRN, 2022/12/31 arte	ORN, 2022/12/31 arte
Isurketa gutxiko eremuak eta hiri-eta metropoli-garraioaren eraldaketa	Lurralde Kohesioa	12.540.934	12.540.934	2.530.030
Moves III Plana	Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	23.413.749	23.413.749	2.580.858
Bizitegi-inguruneen suspertze ekonomiko eta sozialerako etxebizitza-zaharberritze programa	Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	60.996.000	32.367.900	1.126.256

Hala ere, ezin izan dugu behar bezalako eta adinako ebidentziarik lortu SEE-Parekin lotura duten giza baliabideen kudeaketari dagozkion fiskalizazio-azpihelburuei buruzko konklusiorik lortzeko.



IV. Konklusioak eta gomendioak

IV.1 Gobernantza-mugartea

1. helburua. Ezarri al da gobernantza-sistema egokirik?

36/2020 Errege Lege-dekretuak –abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko– agintzen du gobernantza-eredu bat ezartzea SEEPeko azpiproiektuen segimendu, ebaluazio, koordinazio eta kontrolerako.

IV.1.1 Araugintzazko garapena

Inbertsioen tamaina mardulak eta inbertsio horiek exekutatze epe laburrak beharrezko egiten dute administrazio autonomikoei neurriak har ditzaten proiektuen abiarazpen azkarra eta prozeduren sinpletzea bermatzeko, beharrezkoak diren berme eta kontrolak eta gastu publikoaren efizientzia handiagoa mantenduz.

NFKAk arauak onetsi zituen SEEPeko funtsen kudeaketa azkartu, malgutu eta sinpletzeko.

Horretarako, aparteko eta presazko premiaz, apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretua onetsi zen, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Europako suspertze-tresnatik heldutako europar funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta exekutatze. Foru Lege-dekretu horretan berezitasunak ezartzen dira prozedura-izapidetzerako, aurrekontu-kudeaketa eta -kontrolerako, dirulaguntzak emateko eta kontratazio-arlorako.

Europako funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketei buruzko 4/2021 Foru Lege-dekretuak egiten duen arauketaren osagarri, lege-mailako beste arau batzuk egin dira, besteak beste Europako funtsen gardentasun eta kontu-emateari eta aurrekontu-kudeatze eta -kontrolari buruzkoak.

Halaber, gobernu-erabakien bidez arauak onetsi dira SEMek finantzatutako proiektuen kudeaketa eta segimendua egiteari buruz, Nafarroako Gobernuak ki-deen gobernu onaren kodea ezarri da eta IANP-Iruzurraren Aurkako Neurrien Planerako eredu onetsi da SEEPeko proiektuen kudeaketaren mugartean.

Martxoaren 23ko 23/2022 Foru Dekretuaren bidez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa aldatu eta unitate organikoak eratu ziren, Foru Komunitatearen Administrazio organoen edo haien menpeko entitateen ardurakoak diren SEEPeko jarduketak koordinatzeko.





IV.1.2 Gobernantza-egiturak

SEEPa eraginkorki exekutatzeko, beharrezkoa da halako gobernantza-eredu bat ezartzea zeinak bermatuko baitu behar bezalako plangintza, koordinazioa, segimendua eta ebaluazioa, jarduketan koherentzia eta soluzio amankomunak erabakitzea.

NFKAk unitate bereziak sortu ditu, SEEPeko jarduketak koordinatzeko eginkizunak dituztenak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusiari atxikiak.

Ildo horretan, 2022ko martxoan departamentu horren egitura organikoa aldatu zen, SEEP eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzua eta SEEPeko Koordinazio Atala eratzeko.

Desegin egin zen SEEPa kudeatze aldera 2021eko otsailean eraturiko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Next Generation Bulegoaren Zuzendaritza Nagusia, hain zuzen Kontu-hartzaitzerekiko menpekotasunik gabeko zuzendaritza nagusi gisa eratu.

SEEParen Koordinaziorako Zerbitzuak eta Atalak, Kontu-hartzaitza Nagusiko Zuzendaritzapean, betetzen dituzte departamentuek exekutatuak diren SEEPeko jarduketak koordinatzeko eginkizunak.

Gure ustez, egitura organiko hori ez da kontrol- eta kudeaketa-funtzioen be-reizketa egoki bati dagokiona, ezen Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusia, zeina foru-sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren kontrolaren arduradun baita, halaber delako arduradun SEEParen kudeaketarekin zerikusia duten jarduketak koordinatzen dituzten unitate organikoena.

SEEPean ezarritako kontrol-araubidea hiru mailatan oinarritzen da: 1. mailako kontrola kudeatze-organoei dagokie; 2. mailakoa, administrazio autonomikoaren barne-kontrolako organoei; eta 3. mailako kontrola Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiari esleitzen zaio, SEMeko kontrol-agintaritza den aldetik, eta autonomia-erkidegoetako kontu-hartzaitza nagusiekin lankidetzan.

Departamentuekiko koordinazioa erraztearren, Foru Komunitateko Administrazioan barne informazio-puntu bat sortu da, non zentralizatzen baita SEEParen kudeaketarekin zerikusia duen informazioa.

Alabaina, departamentuek beraiei esleitu zaizkien azpiproiektuei buruz garaiz eta forman ez komunikatzeak SEEParen koordinazio-unitateei eragotzi egiten die planeko jarduketei buruzko ezagutza homogeen, eguneratu eta osoa edukitzea.

Ez da sortu SEEPeko jarduketan zuzendaritza- eta plangintza-funtziorik duen gobernantza-organorik.





Ez da agertzen lantaldeak eratu izana, koordinatzekoak SEEParen kudeaketa-aferra transbertsalak, hala nola kontratazioa, dirulaguntza-deialdien prozesuak eta SEEPa inplementatzeko behar diren langileen kudeaketa, besteak beste.

IV.1.3 Plangintza estrategikoa

36/2020 Errege Lege-dekretuak plangintza estrategikoa eta helburukako kudeaketa ezartzen du kudeaketa oneko printzipioetako bat bezala, hain zuzen SEEParen esparruan esleituriko proiektuei loturiko helburuak eraginkorki inplementatu eta lortzekoa.

SEEPari loturiko proiektuak eraginkorki kudeatzeko, kasuko organo ardura-dunek, zeinek bere eskumenen esparruan, dagozkien kudeaketa-helburuak eta horiek betetzeko baliabide eskuragarriak aztertuko dituzte.

Ez da aurkitu SEEParen kudeaketa globalerako plangintza estrategikorik, mugari eta helburuak eraginkorki betetzeko baliabide eskuragarriak, premiak eta jarduketak aztertuz eginikorik.

Nafarroako Gobernuak, 2020ko abuztuaren 1ean, 2020-2023 Nafarroa Suspertu Plana onetsi zuen, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiari erantzuteko. Helburu hartu zuen digitalizazio justu baterantz ekonomia eraldatzea, trantsizio ekologikoa azkartzea, lurraldea egituratzea eta bizikidetzaren sakontzea. Lehentasunezko 46 jarduketa jasotzen ditu. Nafarroa Suspertu Planeko jarduketak finantzatzeko tresnetako bat SEM-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa dugu.

Nafarroa Suspertu Plana SEEParen ardatzekin lerrokatuta dago, baina ez dago zuzeneko bat-etortze edo loturarik bertan jasotako jarduketan eta SEEPeko azpiproiektuen artean.

Departamentuek SEEPeko azpiproiektu bakoitzaren kudeaketarako plangintza-tresna berariazkoak onetsi dituzte. Horrela, kudeaketa-planak egin dituzte, non jasotzen baitira azpiproiektuaren mugari eta helburuak, adierazleak eta beharrezko langileria, besteak beste.

2022ko abenduaren 31n, 118 azpiproiektuetako 91rako kudeaketa-planak ageri dira.

SEEPeko kudeaketa-tresnen plangintza estrategikoari dagokionez, honakoa nabarmentzen dugu:

- SEEPeko funtsekin finantzaturik 2022an exekutatzeko asmoa zegoen dirulaguntzak DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude⁴.

⁴ B.20 alegazioaren bitartez aldatutako paragrafoa





- SEEPen kudeaketarako 2021 eta 2022ko ekitaldietan lizitatzekoak diren kontratuak ez daude sartuta 2021 eta 2022ko Nafarroako aurrekontu orokorren oroitidazkiko kontratu-plangintzako dokumentuan.

Ez digute informaziorik eman SEEPeko funtsen kudeaketaren ondoriozko premiei erantzutearren egin diren kontratu eta hitzarmenei buruz.

IV.1.4 Gardentasuna eta kontu-ematea

Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzen dira departamentuek onetsitako IANPak (Iruzzurraren Aurkako Neurrien Plana); eta, 2022ko azaroaz geroztik, SEEPari buruzko hileroko txosten bat argitaratzen da, non honako informazio hau jasotzen baita departamentu bakoitzerako:

- SEEPeko jarduketak.
- Finantzaketa aurreikusia, jaso eta kontabilizatua.
- 2022tik 2026ra bitarteko eperako baimendutako gastuak eta betebeharrak aitortuak.
- Kasuko kudeaketa-planari buruzko erreferentzia.
- Betebeharrak aitortuenerako muga-eguna, kudeaketa-planaren arabera.
- Laguntzak tarteko direla exekutaturiko jarduketa bakoitzerako DDBN-Dirulaguntzen Datu Base Nazionaleko kodea eta DDBNren deialdirako esteka. Horietakoren batean dirulaguntzen onuradunak kontsulta daitezke.

Ez dira argitaratu mugarri eta helburuak, ez eta SEEPeko jarduketak exekutatzeko aldera formalizaturiko kontratuak ere.

Argitaraturiko informazioak multzo-ikuspegi xehakaturia, baina osatugabea, eskaintzen du SEEPeko funts esleituen eta jarduketa exekutatuaren gainean, departamentu guztietarako.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren kabineteak kudeatzen duen nextgeneration.navarra.es web orrian informazio orokorra jasotzen da NFKAren azpiproiektuei buruz, dibulgaziozko informazioa, eta ministerioaren web orri zentrallean SEEPari buruz eskuragarri dauden informazio-iturrietarako estekak. Egitura honi jarraitzen zaio:

- NFKAren azpiproiektuak SEEPeko hamar palanketako bakoitzerako, exekuzio-departamentua, aurreikusitako finantzaketa osoa, helburuak, egin beharreko ekintzak, exekuzio-epealdia eta espero diren emaitzak.
- Funtsak eskuratzeko deialdiak eta bideak. Esteka bat gehitzen da Espainiako Gobernuak SEEPi buruz duen web orrian sartzeko.
- Nafarroako Gobernuaren prentsa-oharrak, funtsei buruzkoak.
- Next Generation Navarra berripapera.





- Nafarroa Suspertu Planerako esteka.

Esteka bat jasotzen da, halaber, Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atariko europar suspertze-funtsen orrira.

2022an, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak hiru agerraldi egin zituen Parlamentuan, eta azalpenak eman zituen NGEU programako europar funtsen exekuzio-egoeraz, abian jarritako proiektuen kopuruaz, jasotako funtsez, Nafarroak parte hartzen duen ESEPE-Ekonomia Suspertu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoez, proiektu pilotuez eta funtsei buruzko web orriaz.

IV.1.5 Lehia sustatze aldera harturiko neurriak

NFKaren SEEPeko funtsak exekutatzeke dirulaguntzen eta kontratu-lizitazioen deialdiei buruzko web orriko informazioa eskaintzen da Estatuak autonomia-erki-dego guztientzat argitaraturiko deialdietarako esteka baten bitartez. Orri horretan ez da informazio oso eta zehatzik argitaratzen SEEPeko funtsekin finantzaturiko laguntza-deialdi eta kontratu-lizitazio guztiei buruz.

Oro har, dirulaguntza-deialdiak eta kontratu-lizitazioak NAOan argitaratzen dira, bai eta dauden plataformetan; hots, DDBN-Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta kontratazio-atarian, hurrenez hurren.

SEEPeko funtsekin finantzaturiko kontratuei dagokienez, kontratazio-atarian ez da jaso horien lizitazioak berariaz kontsultatzea errazten duen iragazkirik.

Web orriak ez du web-formulariorik jasotzen, funtsen balizko hartzaileen –besteak beste, toki entitateak eta ETE-enpresa txiki eta ertainak– azpiproiektu-proposamenik egitekorik. Halaber, ez da agertzen horiei zuzenduriko berariazko neurririk, haiei aholkularitza eta laguntza teknikoa eman eta SEEP funtsak eskuratzeko bidea eskaintzekorik, ekintza zehatz batzuk izan ezik.

Alde horretatik, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak lankidetzeta-protokolo bat sinatu zuten 2021eko maiatzean, Europar Batasunaren politikak eta dirulaguntzak Nafarroako Foru Komunitateko toki-entitateei hurbiltzekoa.

SEEPeko proiektuak exekutatu dituzten departamentu batzuek informazio-bilerak eta jardunaldiak egin izan dituzte toki-entitate, enpresa, autonomo, lanbide-elkargo eta beste entitate batzuekin, SEEPeko jarduketa zehatz batzuk jorrazteko, NFKaren web orrian jasotzen den informazioaren arabera.

SEEPi buruzko kontsultei erantzute aldera paratutako bideak dira nextgeneration.navarra.es web orrian adierazitako posta elektronikoa eta Estatuako Administrazio Orokorraren 060 telefonozko arreta-kanala.





IV.2 Giza baliabideen alorreko premiak asetzea

2. helburua. Ezarri al du NFKAk beharrezko neurriak, giza baliabideen kudeaketa SEEPetik eratorritako premiei lot dakien?

Helburu horri begira, berrikusi egin dira SEEPa kudeatzeko giza baliabideetarako eta bitarteko-premiak asetzeko araugintzazko garapena, plangintza, kudeaketa eta prestakuntza.

- Alderdi horiei dagokienez, gure aburua da NFKAk ez dituela hartu beharrezkoak diren neurri guztiak SEEPerako premien araberakoa izan dadin giza baliabideen kudeaketa.
- Ez da arau, eskuliburu, gida edo beste ezein prozeduraren bitartez eraendu SEEParen kudeaketarekin zerikusia duten eginkizunak betetzen dituen langileriari dagokion plangintza, kudeaketa eta prestakuntzaren alorra.
- Ez da agertzen plangintza estrategiko inolakorik egin denik SEEPera bideraturiko giza baliabideen kudeaketari begira, salbu eta azpiproiektu bakoitzaren kudeaketa-planetan ezarritako langile-aurreikuspenei dagokienez, ezen plan horietan jaso beharrezkoak diren langile-esleipen gehigarrien aurrekontu-eragina, baliabide-gehikuntza justifikatzen duen lan-zamaren zenbatespena, bete beharreko lanpostuen ezaugarriak eta zein epetarako behar diren.
- Ez da ageri langileria-kudeaketako neurriak hartu izanik, SEEParen exekuzioaren ondoriozko giza baliabide premiei erantzutekorik.
- Ez da ageri SEEPeko funtsen kudeaketari buruzko prestakuntza-ekintzarik irakatsi denik.

IV.3 Kudeaketa-eredua

3. helburua. Prozedurak, kudeatze- eta kontrol-sistemak eta informazio-sistemak egokitu egin al dira SEEPeko baldintzetara?

IV.3.1 Kudeaketa-sistemak

HFP 1030/2021 Aginduak ezartzen du kudeatze-organo arduradunek autoebaluaratu eginen dutela SEEPa exekutatzen duten organoek aplikaturiko prozedura, honako printzipio hauen betetze egokiari dagokionez: mugarri eta helburuen segimendua, etiketatze berdea eta etiketatze digitala, ingurumeneko arriskuak, iruzurraren prebentzio, detekzio eta zuzenketa, ustelkeria eta interes-gatazkak, estatut-laguntzen bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa, amai-erako funts-hartzailearen identifikazioa eta komunikazioa.

Horri buruz, agindu horrek zertzelada kritikoak test baten bitartez autoebaluaratzeke eredu bat jasotzen du. Baldin autoebaluarazioaren emaitza altua edo ertaina bada, maila baxura jaisteko behar diren neurriak hartu behar ditu entitateak.





Kudeatze-organo arduradunek autoebaluatedu eginen dituzte 2021eko urriaren lehen dauzkaten prozedurak, data hori baita aipatu HFP 1030/2021 Aginduen indar-hartzearena. Autoebaluazioak eginen dira planaren indarraldi-urte bakoitzean behin, gutxienez ere.

Ez da ageri hiru departamentuk, Hezkuntzakoak, Osasunekoak eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalekoak, aipatu aginduan ezarritako autoebaluazio-testak prestatu izana. Gainerako zortzi departamentuek fiskalizazio honetarako informazio-eskaerarengatik egin zituzten testak, 2022ko apiriletik aurrera.

Nahiz eta horiek egiteari begira zenbait orientabide jaso zituzten SEEP eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko NFKAren Zerbitzuarengandik, departamentuek elkarrekiko loturarik gabe egin zuten autoebaluazioa, eta testak egiteko irizpide amankomun eta koordinaturik ez zen ezarri.

Gure iritziz, autoebaluazioak ez dio erantzuten SEEPa kudeatzeko egitura organikoaren eta prozeduren zertzelada funtsezkoen eta kritikoen analisi bati.

Beraz, ezin da bermatu ebaluazioaren emaitzak homogeneousak, departamentuen artean konparagarriak eta interpretagarri eta fidagarriak izanen direnik.

Ondorioz, galdetegi horiek oinarri hartuz ezinezkoa zaigu ondoriorik ateratzea exekutatzeko-entitateen kudeaketa-sistema SEEParen baldintzen arabera izateari buruz.

Mugarri eta helburuak

Mugarri eta helburuen segimendua da SEEPeko kudeaketa-printzipiorik behinenetakoa. Horiek ez lortzeak finantzaketarik ez jasotzea dakar.

SEEPak 212 neurri jasotzen ditu, eta horietarako beharrezkoa da 220 mugari eta 196 helburu betetzea. Betetze horretarako, funtsezkoa da emaitzetara bideraturiko kudeaketa-eredu bat edukitzea, mugari eta helburuak egokiro zehaztea eta haien segimendua eta kontrola egitea, bai eta desbideraketak edo ez-betetze arriskuak prebenitzeko kudeatze-lan bat egitea ere.

Mugarri eta helburuak betetze aldera kudeaketa-sistema doitzea da HFP 1030/2021 Aginduan ezarritako autoebaluazioko printzipiorik baloratuena, arrisku osoaren ehuneko 34 esleitzen baitaio. Balorazioan aintzat hartzen dira helburukako kudeaketako esperientzia, mugari eta helburuak kudeatzeko prozedurak, kudeaketa horretarako jasotako prestakuntza, eta Kudeaketa eta Segimendurako Informazio Sistemak mugari eta helburuei buruzko informazioa elikatze berariazko giza baliabideak.

HFP 1030/2021 Agindua ez du arriskua baloratzeko azalpen edo irizpiderik eskaintzen esperientziari, prestakuntzari eta giza baliabideei dagokienez. Ez da





ageri departamentuetan koordinaziorik eta irizpide amankomunik izan denik balorazio horretarako; beraz, ez dago emaitzak konparatu eta interpretatzeko modurik.

IV.3.2 Kudeaketa-tresnak: araugintzazko neurriak eta SEEPeko eskakizunetarako egokitzapena

Autonomia-erkidegoei esleituriko SEEPeko funtsak dirulaguntzen, kontratuen eta hitzarmenen bitartez exekutatzen dira.

Araugintzazko neurriak

Funts-kudeaketarako prozeduren eta tresnen izapidetzea (dirulaguntzak, kontratuak eta hitzarmenak) arindu eta sinpletzearen NFKAn onetsitako araugintzazko neurriak honako hauek izan dira:

- 4/2021 Foru Lege-dekretuak ezartzen du urgentziaz izapidetu eta lehentasunez ebatziko direla Europako Suspertze Tresnako europar funtsen kargurakoak diren gastuen exekuziorako administrazio-prozedurak.

- Dirulaguntzen izapidetzeari dagokionez, ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuak baimenik ematea oinarri arautzaileen izapidetzean milioi bat baino zenbateko handiagoko dirulaguntzak emateko. Deialdian txosten juridikoa baino ez da eskatuko. Fiskalizazio-epea hamar egun naturalekoa izanen da, eta zilegi izanen da onuradun bakoitzeko 100.000 euro baino gutxiagoko dirulaguntzak justifikazioko kontu sinpletu bat aurkeztuz justifikatzea.

- Kontratu-izapidetzean, honakoa ezarri zen: kontratu-exekuzioari behin etetepea muga-eguneratuta eta formalizazioaren aurretik ekin ahal izatea, baldin espediente urdutea urgente gisa kalifikatzen bada; horren izapidetzearen lehentasuna; eta kasuko txostenak jaulkitzeko epeak bost egun naturalera murriztea. Energia-hornidurarako eta -zerbitzuetarako kontratuen indarraldia hamar urteko gehieneko epera luzatu zen. SEEPari loturiko funtsekin finantzaturiko informatika- eta teknologia-enkarguen exekuzioa sozietate publiko instrumentalek hirugarrenekin kontratatu ahal izateko ehuneko 50en muga bertan behera utzi zen.

- Hitzarmenei dagokienez, ezartzen da zilegi dela zioei, arlo ekonomikoari eta araugintzari buruzko oroitidazkia noiz eta hitzarmenaren onespeneren ondoren presatzea.

Kudeaketa-printzipioetara egokitzea

NFKAk egin du dirulaguntza- eta kontratu-prozedurak SEEPeko kudeaketa-printzipio berezietara egokitzeko lana. Printzipio horiek 1030/2021 HFP Agin-





duaren 2. artikuluan jasota daude, eta hori egin da SEMek finantzaturiko proiektuen kudeaketa eta segimendua egiteko arauen bitartez, zeinak Nafarroako Gobernuaren 2022ko otsailaren 16ko erabakiz onetsi baitziren.

Arau horietan ezartzen da kudeaketa finantzario oneko printzipioak barne hartzea, 1030/2021 Aginduan ezarritakoen ildotik, dirulaguntza- eta kontratu-prozeduretan. Halaber, printzipio horiek fiskalizazioan egiaztatu beharreko funtsezko baldintza gisa ezartzen dira.

SEEPeko funtsekin finantzaturiko hitzarmenei dagokienez, ez da ageri koordinazio- edo arautze-lanik egin denik, horien izapidetzea 1030/2021 HFP Aginduko kudeaketa-printzipioetara egokitzeorik.

IV.3.3 Iruzurraren prebentziorako, detekziorako eta deuseztapenerako mekanismoak

HFP 1030/2021 Aginduan xedatuaren indarrez, SEEParen exekututze-entitateek IANP-Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan bat eduki behar dute, modua emanen diena bermatzeko eta baieztatzeke ezen, zein bere ekintza-esparruan, funtsak erabili direla aplikatzekoak diren araei jarraikiz; batez ere, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta deuseztatzeari dagokienez.

Zuzentasun-gaietan sentsibilizazio, jakinarazpen eta prestakuntza lana egitea funtsezkoa da jokabide potentzialki iruzurtiez etsiarazten duen kultura bat eraikitzeko, bai eta IANPen aplikazioan eraginkortasun handiagoa lortzeko ere.

SEEPeko azpiproiektuak exekutatu dituzten 11 departamentuek prestatu dute Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko erabakiaren bidez onetsitako planaren eremuan ezarritako egitura eta edukia dituen IANP bat.

11 departamentuetako IANPak prestatu dira oinarritzat harturik SEEPeko funtsen kudeaketatik eratorritako arriskuen aurretiazko ebaluazio bat.

IANPak Nafarroako Gobernuaren gardentasun eta gobernu irekiko web orrian argitaratu dira.

11 departamentuek egin dute interes-gatazkari eta iruzur nahiz ustelkeriaren prebentzioari buruzko autoebaluaziorako testa.

Sentsibilizazio- eta jakinarazpen-jardueren artean, aipatu beharrekoa da Nafarroako Gobernuak adierazpen instituzional bat onetsi duela, zeinaren bidez iruzurraren aurkako borrokarako konpromisoa hartzen baitu.

Gobernuak, 2022ko martxoaren 2an, erabaki zuen Nafarroako Gobernuko ki-deen eta NFKAko goi-kargudunen gobernu onaren kodea bereganatzea, bai eta NFKAko enplegatu publikoen jokabide eta printzipio etikoena ere.

Ez da ageri Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestakuntza-saiorik antolatu izana etika publikoari eta iruzurraren aurkako lanabesei buruz, Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko erabakian kontrakoa agintzen bada ere, ez





eta horiei buruz edo iruzurraren aurkako neurriei buruz IANPeK aipatzen duten prestakuntza eman izana ere.

IV.3.4 Aurrekontu-kudeaketa eta -kontrola

Oro har, aurrekontu-kudeaketako eta -kontrolako esparruak erantzuten die SE-EPeko funtsen kudeaketaren ondoriozko premiei. Alabaina, ez da ageri SEEPeko mugari eta helburuen arabeko baliabide-programaziorik.

Aurrekontu-informazioko sistemak ahalbidetzen du SEEPari loturiko dirusarrerak eta gastuak baimentze-fasetik identifikatzea; horrenbestez, funtsen segimendua egin daiteke.

Araugintzazko neurriak onetsi dira, horrela arintzearen kreditu-txertaketen aurrekontu-kudeaketa, partiden arteko funts-mugimenduak eta urte-multzo baterako gastu-konpromisoak⁵.

Kontrola arintzeko neurri hauek onetsi dira: NGEU proiektuetako funtsen kudeaketa-esparruan izapideturiko espedienteen aurretiazko kontrolean lehentasuna ematea, halako moldez non kontrol-organoak bere jarrera bost eguneko gehieneko epean azaldu beharko baitu, eta Next Generation funtsekin zerikusia duten dirulaguntzen eta kontratazio-espedienteen aurretiazko fiskalizazio mugatua egitea.

IV.3.5 Informazio-sistemak

NFKAk hainbat arau onetsi ditu, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzaturiko proiektuen kudeaketa eta segimendua egiteko. Arau horietan, besteak beste, honako jarduketa hauek aurreikusten dira informazio-sistemak SEEParen kudeaketa-beharretara egokitzeko.

- Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko proiektuen exekuzioaren aurrekontu-kontabilitatea egokitzea SEEPa kudeatzeko araudiko informazio-baldintzetara.
- Informazio-sistema bat eratzea, halakoa non jasoko baitira proiektu bakoitzarekin lotura duten mugari eta helburuak eta zerikusia duten adierazleak, bai eta dirulaguntzen eta kontratuen onuradunak ere, besteak beste.

Jomuga horiek iristeko, zenbait departamenturen eta enpresa pribatu baten artean garatze-bidean dago aplikazio informatiko bat, zeina Dirulaguntzen Datu Base Nazionalarekin eta kontratazio-atariarekin konektatuko baita, eta jasoko ditu azpiproiektuetako mugari nahiz helburuak, eta HFP 1031/2021 Aginduaren arabera, CoFFEE-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko informazio-sistemari eman behar zaizkion informazio-baldintzak.

⁵ B.24 alegazioaren bitartez aldaturiko paragrafoa





Aplikazio informatiko horren egitura eta edukia CoFFEE-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismora egokituko da. Informazio-sistema hori autonomia-erki-degoentzat guztiz operatibo ez egoteak baldintzatu egiten du NFKAren lanabes informatikoaren burutzea eta funtzionamenduan jartzea.

CoFFEE-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa zeharo operatibo egon bitartean, azpiproiektuen segimendua Excel kalkulu-orrien bidez egiten da, eta horietan jasotzen dira, azpiproiektu bakoitzerako, HFP 1031/2021 Aginduan ezarritzen diren elementuak.

Gaur egun, NFKAren informazio-sistemak ez du modurik ematen SEEPari loturiko funtsekin finantzaturiko kontratuen esleipen-hartzaileak identifikatzeko.

Kontabilitatean, dirulaguntza-deialdiak gastu-baimentze fasean identifikatzen dira. Kontratuei dagokienez, gastu-konpromisoko fasean ez da jasotzen kontratu-erregistroko kodea.

SEEPa inplementatze aldera NFKAk hartutako neurriei buruzko amaierako konklusioa

2022ko abenduaren 31n, NFKAk SEEPari lotuta zeuden 118 azpiproiektu zeuzkan esleituta, finantzaketa aurreikusia 479,21 milioikoa izanda 2020-2023 epean.

Data horretara bitartean, 364,39 milioi eman zaizkio, aurreikusitako funtsen ehuneko 76, eta 57,25 milioiko gastuak exekutatu dira, 2020-2026 epean exekutatutako izatekoak diren SEEPeko 118 azpiproiektuetako behin betiko kredituen ehuneko 14.

Foru Komunitateari esleiturikoak diren SEEPeko funtsen exekuzioak eta kontrolak plangintza estrategikoa eta emaitzetara bideraturiko kudeaketa eskatzen dute, eta horrek berarekin dakar helburu-ebaluazio eta -segimendua, bai eta kudeaketa-printzipioak betetzea ere, hala nola interes-gatazken, iruzurraren eta irregulartasunen prebentzio eraginkorra, besteak beste.

SEEPeko funtsen exekuzioak ahalegin eta lan-zama nabarmena dakartza, NFKAren gobernantza, prozedurak eta jardute-printzipioak egokitze aldera SEEPeko gidalerroei eta eskakizunei eta mugarri nahiz helburuen betetzeari.

Gobernantza-sistema

SEEPeko funtsen exekuzioari begira NFKAk ezarri duen gobernantza-ereduak modua eman du, gehienbat, prozedurak sinpletzeko, zenbait arau onetsiz eta jarduketak koordinatuz.





Gardentasunari dagokionez, esleitu zaizkion SEEPeko funtsei buruzko informazioa argitaratu du NFKAk, propio horretarako sorturiko webgune baten bidez eta Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atariaren bidez.

Gobernantza-sistemaren ahuleziarik nagusienez denaz bezainbatean, nabarmendu behar dugu ez dela eginkizun-banantze egoki bat egiteko modua SEEParen exekututze-entitateen (departamentuen) jarduketak koordinatzeko unitateak Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari esleitzea, zeina baita kontrolaren gaineko ardura duen unitatea.

Gure ustez, interesdunek funtsak ezagutu eta lortzea sustatu eta errazteko neurri eta ekimenak ez dira behar adinakoak.

Ez da ageri SEEPeko inbertsioetatik Foru Komunitateari esleiturikoen plangintza estrategiko globalik, mugarri eta helburuak eraginkorki betetzeko baliabide eskuragarriak, premiak eta jarduketak aztertuz eginikorik.

Giza baliabideen kudeaketa

Ez dira hartu beharrezkoak diren neurri guztiak, giza baliabideen kudeaketak SEEParen premiei erantzutekoak.

Kudeaketa-eredua

Kudeaketa-sistema ez zaie SEEParen printzipioei irizpide homogeneousen arabera egokitu, eta ez da eratortzen SEEParen eskakizunei heltzeko funtsezkoak diren zertzelada kritiko eta erabakitzaileei buruzko analisi batetik.

Indartu egin dira iruzurraren prebentziorako, detekziorako eta deuseztatpenarako mekanismoak, horretarako onetsiz, besteak beste, Iruzuraren Aurkako Neurrien Planak.

Aurrekontu-kudeaketa eta -kontrolako esparruak oro har modua ematen du SEEParekin zerikusia duten funtsen segimendu egokia egiteko.

Mugarriak eta helburuak jasotzeko informazio-sistema bat garapen-bidean dago, baina horren burutzea baldintzatuta dago CoFFEE-SEM sistema zeharo operatibo egoteari.

Informazio-sistemak ez du modurik ematen SEEPari loturiko funtsekin finantzaturiko kontratuen esleipen-hartzaileak identifikatzeko.



IV.4. Gomendioak

Gobernantza-sistema

- *Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiari esleituta dauden SEEPa koordinatzeko eginkizunak banantzea unitate horrek betetzen dituen kontrol-eginkizunetatik, eta SEEParen koordinazioa esleitzea Kontu-hartzaitzarendik beregain den unitate bati.*
- *Aztertzea zer den komenigarriago: SEEPeko funtsen gaineko plangintza- eta zuzendaritza-zereginak dituzten unitateak eratzea ala eginkizun horiek SEEPeko koordinazio-unitateei esleitzea.*
- *Informazio-fluxuak hobetzea SEEParen exekutatzeko-unitateen (departamentuen) eta koordinazio-unitateen artean, zertarako eta azpiproiektuei buruzko informazio guztiaren osotasuna eta zentralizazioa bermatzeko.*
- *SEEPeko inbertsioetarako plangintza estrategiko bat egitea, mugarri eta helburuak eraginkorki betetzeko baliabide eskuragarriak, premiak eta jarduketak aztertuz.*
- *Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzea Gardentasunari buruzko Foru Legean adierazitako informazio guztia: mugarri eta helburuak eta SEEPeko funtsak exekutatzeko aldera izapideturiko kontratuak.*
- *Next Generation funtsen webgunean zentralizatzea SEEPeko funtsetako dirulaguntzen eta lizitazioen deialdiei buruzko informazioa, eta hurrengo deialdi aurrekisiak argitaratzea, informazio homogenea eskaintzearen finantzaketa eskuragarriari buruz eta interesdunei baliabide horietarako eskurabidea erraztearen, ezertan galarazi gabe departamentuek informazio hori osa dezatela esleituta dauzkaten SEEPeko azpiproiektuei buruzko informazio zehatzarekin.*
- *Neurriak hartzea, interesdunek funtsak ezagutzea eta lortzea errazteko, bai eta formulak ezartzea ere, SEEPeko azpiproiektuei buruzko aholkularitza ematekoak baliatzea onuradunei (enpresa txiki eta ertainak, autonomoak eta toki entitateak, besteak beste).*

Giza baliabideen kudeaketa

- *Urrats koordinatuak egitea SEEPeko funtsak kudeatzen dituzten departamentuen, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren artean, funts horiek kudeatzeko behar diren giza baliabideak hornitu eta prestatzea xede.*





Kudeaketa-sistemak, kontrola eta informazio-sistemak

- *Irailaren 29ko OHP 1030/2021 aginduko 2. artikuluan ezarritako kudeaketa-printzipioen autoebaluazioa egitea departamentu guztietan, batez ere mugarri eta helburuen segimendua, irizpide koordinatu eta homogeenok erabiliz eta SEEPeko eskakizunei heltzeko zertzelada kritiko eta funtsezkoak aztertuz.*
- *Autoebaluazio-testaren emaitzak arrisku ertain edo altua erakutsiz gero, arriskua maila baxura beheratzeko neurriak hartzea.*
- *Baliabideak SEEPeko mugarri eta helburuen banaketaren arabera programatzea.*
- *Kontratu formalizatuetatik eratorritako gastu-konpromisoetan kontratu-erregistroko identifikazio-kodea jasotzea.*
- *Informazioa ematea SEEPeko funtsen azken hartzaile direnei buruz, azpiproiektu bakoitzeko kontratistak eta azpikontratistak identifikatuta.*
- *Departamentuei esleituta dauden SEEPeko azpiproiektuen exekuzioa arintzea.*



V. Erantzukizuna

Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna

Exekutatzeko-entitateek (departamentuak) erantzukizuna dute SEEPeko erreforma eta inbertsioetatik dagozkien azpi proiektuen exekuzioaz, eta bermatu behar dute eginiko kudeatze-jarduera eta -eragiketarako araudiaren arabera direla, eta behar diren bideak ezarri behar dituzte proposaturiko helburuen lorpenean eraginkortasuna iristeko, bai eta helburu horien lorpenerako baliabide publikoen erabilera efizientzia eta ekonomia erdiesteko. Jomuga horretarako beharrezkoak jotzen dituzten barne-kontrolko sistemak ezarri beharko dituzte.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusia da SEEPean jasota egonda haien gaineko erantzukizuna NFKAren organoena edo menpeko entitateena den jarduketak koordinatzearen arduraduna.

Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizunaren nondik norakoa da konklusio batzuk adieraztea, SEEParen ezarpenerako beharrezkoak diren neurrien abiarazpenari buruzko gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontrolko Erakunde Publikoek erabakitako fiskalizazio-printzipio orokorren arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operatiboari buruzko ISSAI-ES 300 delakoa aplikatu dugu, bai eta ISSAI-ES 3000n eta 3100ean jasotako jarraibideak ere. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.


Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria biltzen du ateratako konklusioei funtsa emateko, salbu eta norainokoaren mugei buruz III. epigrafean, helburu, norainoko eta mugei buruzkoan, adierazitakoari dagokionez.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, jaulkitzen da lan honen arduradun izandako Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua)





1. gehigarria: arau-mugartea

SEEPeko funtsen kudeaketarako oinarrizko araudia honako xedapen hauek osatzen dute:

- 2020/2093 Erregelamendua (EB, EURATOM), Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 17koa, zeinaren bidez ezartzen baita 2021-2027 epealdirako Hainbat Urtetarako Esparru Finantzarioa.

- 2020/2094 Erregelamendua (EB), Kontseiluarena, 2020ko abenduaren 4koa, zeinaren bidez ezartzen baita Europar Batasuna Suspertzeko tresna bat, COVID-19aren krisiaren ondorengo suspertzeari bultzada emateko.

- 2021/241 Erregelamendua (EB), Parlamentuarena eta Kontseiluarena, otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzkoa.

- 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.

- 6/2022 Errege Lege-dekretua, martxoaren 29koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan laguntza urgentek hartzekoa.

- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duena.

- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baita informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, segimendua egiteko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarri eta helburuen betetze-mailaz eta plan horren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaz.

NFKAren esparruan, honako araudi hau onetsi da:

- 4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Europako Suspertze Tresnatik datozen europar funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta exekutatzeko.

- 14/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

- 18/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, maiatzaren 12ko 14/2022 Foru Legearen bitartez aldatua.

- 1/2022 Foru Lege-dekretua, apirilaren 13koa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko.





- 23/2022 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baitira 88/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 14koa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren oinarrizko egitura organikoa ezartzen duena, eta 264/2019 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.



2. gehigarria. Fiskalizazioaren emaitzak

Gehigarri honetan jaso dugu fiskalizazioaren azpigelburu bakoitzean iritsitako konklusioen garapen bat.

2.1 Gobernantza-mugartea

Aztertu da ea NFKAk SEEPeko funtsen kudeaketarako gobernantza-sistema egokirik ezarri ote duen.

Hori horrela, berrikusi dira NFKAko araugintzazko garapena, gobernantza-egitura, plangintza estrategikoa, gardentasuna eta kontu-ematea, eta lehiaren sustapenerako harturiko neurriak.

Lorturiko emaitzak hauexek dira:

2.1.1 NFKAko araugintzazko garapena

Onetsitako araudia

36/2020 Errege Lege-dekretuak, abenduaren 30ekoak, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta SEEPa exekutzeko neurri urgenteei buruzkoak, besteak beste arautzen ditu kudeaketa-printzipio eta -gidalerroak, gobernantza, kudeaketari eta aurrekontu-kontrolari dagozkien berezitasunak, kontratazioa, dirulaguntzak eta lankidetzak publiko-pribaturako tresnak.

Arau horren ildotik, Nafarroako Gobernuak 4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, onetsi zuen, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Europako Suspertze Tresnatik datozen europar funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta exekutzeko. Horren helburua da europar funts horiekin finantzatzen ahal diren jarduketan programazioa, aurrekonturatzeko, kudeaketa eta exekuzioa erraztea.

Foru Lege-dekretu hori SEEPeko funtsen kudeaketari buruzko alderdi zehatz batzuetan garatua izan da. Horri buruz, Nafarroako Gobernuak honako erabaki hauek onetsi ditu:

- 2022ko otsailaren 16ko Erabakia, zeinaren bidez arauak onesten baitira, SEM-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen dituen proiektuen kudeaketa eta segimenduari buruzkoak.

- 2022ko martxoaren 2ko Erabakia, zeinaren bidez bereganatzen baita Nafarroako Gobernuaren kideen eta NFKAko goi-kargudunen gobernu onaren kodea, bai eta NFKAko enplegatuen publikoen jokabide eta printzipio etikoena ere, eta onesten baita Iruzuraren Aurkako Neurrien Planaren eredia, SEEParen exekuzioa dela-eta SEMaren kargura finantzaturiko proiektuen kudeaketari dagokionez.





Berariazko araubide horrez gain, 2021an eta 2022an onetsiriko lege-mailako arau hauetan zenbait xedapen txertatu dira, SEEParekin zerikusia duten funtsen kudeaketari buruzkoak:

- 14/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, Europako funtsen kudeaketaren gardentasunari eta gai horretan kontuak emateari dagokionez.

- 1/2022 Foru Lege-dekretua, apirilaren 13koa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Arintze-neurriak onesten ditu Europako Suspertze Tresnatik datozen europar funtsekin finantzatu ahal diren jardueren, dirulaguntzen eta kontratuen kudeaketa eta exekuziorako.

Azkenik, arauak onetsi ziren, SEEParen kudeaketarako egitura organikoa ezartzeko, eta hura Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari esleitzeko. Ildo horretatik, departamentu horren egitura aldatu zen, martxoaren 23ko 23/2022 Foru Dekretuaren bitartez.

4/2021 Foru Lege-dekretuaren prestaketa

4/2021 Foru Lege-dekretuaren zioen azalpenean, justifikatu egiten da Lege-dekretu gisa tramitatua izatea, oinarri harturik salbuespentasuna, larritasuna eta garrantzia, zeinek behartzen baitute araugintza-jarduna berehalakoa izatera, lege baten parlamentu-izapidetzerako aurreikusitakoa baino laburragoa izanen den epe batean. Halaber adierazten da arau hori onesteak erantzuten diola NGEU funtsak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzen direla bermatzeko neurri zehatzak hartu beharri.

Txosten juridiko bat ageri da, non arauaren onespeneren premia aparteko eta presazkoa adierazten baita.

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko apirilaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Foru Lege-dekretu hori baliozkotu zuen.

Bai Foru Lege-dekretua bai horren baliozkotzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Espedientean ageri dira ukituriko departamentuen txostenak, bai eta oroitidazki bat ere, zeinak justifikatzen baitu 4/2021 Foru Lege-dekretua onestearen beharra eta aztertzen baititu horren edukia, horretan jasotako neurriek antolaketan duten eragina eta daukaten kostu ekonomikoa, genero-inpaktua eta irisgarritasun- nahiz desgaitasun-alorretako inpaktua.

Foru Lege-dekretua onestea presazko eginkizuna izaki, ez zen sustatu herritarrek prestaketa-prozesuan parte hartzea.






Gardentasun-printzipioari dagokionez, prestaketa-prozesuaren dokumentuak Gobernu Irekiaren Atarian ageri dira.

Genero-inpaktuari dagokionez, honakoa esaten da: "Foru Lege-dekretuaren proiektuan jasotako neurriak uniformeki aplikatzen zaizkie NFKAko eta horren erakunde autonomoetako langile guztiei, eta testua modu neutroan dago idatzita, hizkuntzaren erabilera sexistarik sumatzen ez dela".

2.1.2 Gobernantza-egitura

SEEPek ezartzen duen gobernantza-eredua honako hau da:



Egitura hori koordinazio-lana egiten duten eta soluzio amankomunak proposatzeko eginkizuna betetzen duten lantaldeen edo administrazio-unitateen bitartez lagundu daiteke.

Autonomia-erkidegoek konferentzia sektorialen bitartez parte hartzen dute SEEParen gobernantzan.

NFKAn, departamentuak dira SEEPa exekutatzen duten entitateak, eta, halakotzat, haiei dagokie beren eskumeneko erreforma-azpiproiektuak eta inbertsioak exekutatzea eta horiei loturiko mugarri eta helburuak kudeatzea, erabakitze-entitateen –hots, SEEParen osagaien erantzukizuna duten ministerioen– irizpide eta gidalerroei jarraikiz.

NFKAn, Next Generation Bulegoa eratu zen SEEParen kudeaketarako eta kontabilitaterako, otsailaren 3ko 6/2021 Foru Dekretuaren bitartez. Bulego hori Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxiki zitzaion, zuzendaritza nagusi baten mailarekin.

Geroago, martxoaren 23ko 23/2022 Foru Dekretuaren bitartez, departamentu horren egitura aldatu zen, eta Kontu-hartzaitza Zuzendaritza Nagusiak eskuratu zituen Next Generation Bulegoaren Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunak.

Kontu-hartzaile nagusiaren txostenean azaltzen denez, birmoldaketa horrek erantzuten die erdietsi beharrekoak diren erronkei, hala nola: departamentuei laguntza eta sostengua ematea, ministerioari SEM-funtsen eta mugarri nahiz helburuak betetzearen gaineko informazioa bidaltzeko; azpiproiektuetan emandako





aurrerapausoak argitaratzeko; barne-kontrolaren taxuera aldatzea, SEM-funtsak jasotzeaz ezarritako baldintzen ondorioz.

Gure ustez, erronka horietaz arduratzeak behartzen du SEEParen eskakizunei erantzuten dien gobernantza-egitura bat tankeratzera, bereizita egonen dena Foru Komunitateko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusitik, zeina baita planeko funtsen gaineko bigarren kontrol-mailaren arduraduna.


Ekonomia eta Ogasun Departamentuan honako aldaketa hauek egin ziren, martxoaren 23ko 23/2022 Foru Dekretuaren bitartez onetsiak:

- Next Generation Bulegoaren Zuzendaritza Nagusia bertan behera utzi zen.
- Kontu-hartzailatza Zuzendaritza Nagusian bi zerbitzu berri eratu ziren:

a) Kontabilitate Orokorraren eta Aurrekontu-arlokoaren Zerbitzua. Horri esleitu zaizkio Kontabilitate Orokorraren Atala eta Kontabilitate Prozesu Berezien Atal berria. Bertan behera utzi da Kontabilitate Prozedura Berezien Bulegoa.

b) SEEP eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuari esleitzen zaizkio Kontabilitate Nazionalaren Atala eta SEEPa Koordinatzeko Atal berri bat.

Aldaketa horien ondoren, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartzailatza Zuzendaritza Nagusiaren egitura organikoa honako hau da:



Eginkizunak

SEEPari dagokionez, Kontu-hartzailatza Zuzendaritza Nagusiak honako funtzio hauek ditu:

- SEEPean jasotako jarduketetatik erantzukizuna NFKAko organoen edo menpeko entitateena den horiek koordinatzea.

- Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioarekiko solaskidetasuna, SEEPa kudeatzeko eraturiko estatu-organotan.





SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuak honako funtzio hauek beteko ditu plan horri dagokionez:

- Foru Komunitateko Administrazioaren organoen ardurapean uzten diren jarduketak koordinatzea, jarduketa horiek SEM proiektuen segimendua egiteko sistemaren eskakizunetara egokitzeko.

- SEEParen exekuzioari uztarturiko informazio-sistema zehaztea.

SEEParen Koordinaziorako Atalak, zeina SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuaren ardurapean baitago, honako eginkizun hauek ditu:

a) Informazioaren kudeaketa zentralizatua egitea eta erantzukizuna NFKAko organoena den SEEPeko proiektuen multzoaren azterketa globala egitea.

b) SEM eta SEEPari buruzko araei, metodologiari eta orientazioei buruz ezaugarazpen-lana egitea eta SEEPeko proiektuak exekutatzen dituzten entitateei aholku ematea.

c) SEEPeko proiektuak exekutatzen dituzten entitateei aholku ematea horien plangintza egiteko eta horiek jarduketatan edo beste proiektu habiaratu batzuetan deskonposatzeko.

d) Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioarekin koordinatzea SEEPeko proiektu eta jarduketei buruzko informazioaren hornidurarako.

e) Informazio-sistemen funtzionamendu egokia monitorizatzea.

f) SEEPeko proiektuak exekutatzen dituzten entitateei aholkularitza eta laguntza ematea kudeaketa-datuak erregistratzeko eta informazio-sistematan segimendua egiteko.

g) SEEPean sarturiko proiektuen exekuzioari buruzko informazioa prestatzea.

Unitate organiko horien koordinazioa bideratuta dago "SEEP nazionalak berriazko dituen zertzelada batzuei buruzko soluzio amankomunak proposatzera, kudeaketa- eta kontrol-sistemari dagokionez (oso lerratua mugarri eta helburuak betetzera eta informazio-emate betebeharrak betetzera), eta ekonomia-kudeaketako lanabes korporatiboak erabili ahal izan ditzaten xede harturik egokitzapen-bideak ezartzera".

Departamentuekiko koordinaziorako intranet bat (sharepoint) prestatu da, non planaren exekuziorako dokumentazioa biltzen baita (indarreko araudia, orientazioak, eredu eta eskuliburuak, besteak beste). Koordinaziorako eta Kontabilitate Nazionalerako Zerbitzutik ere bideratu egin dira SEEParen inplementazioari buruzko zalantzak, kontsultak eginez Europar Funtsen Idazkaritza Nagusi Teknikoari eta beste ministerio-organo batzuei.





Orobat, SEEPeko azpiproiektuen kudeaketarako lanabes informatiko bat garatzen ari dira, zeina burutuko baita CoFFEE-SEM informazio-sistema osoki operatibo dagoenean.

SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuak zentralizatzen du departamentuek exekutatzeko dituzten azpiproiektuei buruzko informazioa. Zerbitzu horren eta exekutatzeko-entitate gisa diharduten departamentuen arteko informazio-fluxua ez da homoginoa, eta halaber ez da kasu guztietan erabatekoa izan. Horrek oztopatu egin du kudeaketa zentralizatua, analisi globala eta SEEPeko azpiproiektuetatik NFKAri esleiturikoen exekuzioari buruzko informazioaren segimendua eta prestaketa.

2.1.3 Plangintza estrategikoa

36/2020 Errege Lege-dekretuaren 3. artikulua plangintza estrategikoa eta helburukako kudeaketa ezartzen du kudeaketa oneko printzipio bezala, hain zuzen SEEParen esparruan esleituriko proiektuei uztarturiko helburuak eraginkortasunez inplementatu eta lortzeko.

Plangintza estrategikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, 2020ko abuztuaren 1ean, 2020-2023 Nafarroa Suspertu Plana onetsi zuen, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiari erantzutearren, ildo estrategikotzat honako lau hauek hartuta: ekonomia eraldatzea digitalizazio justu baterantz, trantsizio ekologikoa azkartzea, lurraldea egituratzea eta bizikidetzaren eremuan sakontzea.

Planak lehentasunezko 46 jarduketa jasotzen zituen, koronabirusaren krisiari erantzuteko eta NFKarentzat eredu ekonomiko eta sozial berri bat abiarazteko.

Nafarroa Suspertu Planean adierazten da bere jarduketak lerrokatuta daudela Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendarekin, Europako Itun Berdearekin (EB Itun Berdea), NGEU-Europarentzako Suspertze Planarekin eta ekonomiaren SEEParekin, eta NGEU funtsak izanen dituela, beste finantza-baliabideak beste.

Nafarroa Suspertu Planeko jarduketak eta NFKAri esleituak diren SEEPeko azpiproiektuen artean ez dago ahokatzeko ez zuzeneko loturarik. Besterik gabe, SEEPeko hamar palanketako bakoitzean adierazten da horiek ekarpen lagungarria egiten diotela Nafarroa Suspertu Planeko berrikuntza digitalaren, Navarra Green, gizarte- eta lurralde-koehesioaren eta berdintasunaren helburuen lorpenari.

Azpiproiektu-mailan eginiko plangintza bat ageri da. Izan ere, aginduzkoa da Kudeaketa Plan bat egitea, non zehaztuko baita zein kudeatze-mugartetan burutuko diren azpiproiektuaren helburuak lortzeko jarduketak, eta plan horretan ere honako informazio hauek jasoko dira, besteak beste: azpiproiektuaren mugarrak eta helburuak, horren exekuziorako tresnak, ingurumen-arriskuaren analisia, beharrezkoa den langileria-esleipenaren aurrekontu-eragina, baliabide- eta lanpostu-gehikuntza justifikatzen duen lan-zamaren zenbatespena, zein epetarako behar den gehikuntza hori, eta plan ekonomiko eta aurrekontu-arloko bat.





2022ko abenduaren 31n, departamentuei esleituriko 118 azpiproiektuetatik 91k zeukaten kudeaketa-plana.

SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuak kudeaketa-planen prestaketarako plantillak eta gidak atondu eta departamentuen eskueran ipini ditu.

Lagineko azpiproiektuen kudeaketa-planak

- "Isurketa gutxiko eremuak eta hiri- eta metropoli-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria" neurriaren exekuzioari begira Lurralde Kohesiorako Departamentuak prestatu eta onetsi zuen kudeaketa-planak honako dokumentu hauek jasotzen ditu: mugarri eta helburuak, lehen mailako kontrolak, plan ekonomiko eta aurrekontuena, Aurrekontuen eta Programazio Ekonomikoaren Zerbitzuaren txostena, zeinean irizpen positiboa adierazten baitu aurreikusitako finantzaketa-iturriez, eta ingurumen-arriskuaren analisisia.

- "Pizgarri-plana, kargapuntu publiko eta pribatuak instalatzekoa, ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladunak erostekoa eta elektromugikortasunaren, kargaren eta hidrogeno berdearen alorreko proiektu bereziei eta berrikuntzakoei bul-tzada emateko lerroei buruzkoa (MOVES III PLANA)" deritzonaren kudeaketa-planean jasotzen dira bete beharreko mugarri eta helburuak, plan ekonomiko eta aurrekontuena eta langileria-beharrizanak.

Halaber jasotzen da Moves III Planaren exekuziorako emandako dirulagun-tzen eta sinaturiko kontratuen lehen mailako kontrolen zerrenda. Kontratu hori-etarako, ezartzen da zer dokumentu behar diren lizitazio, esleipen eta ordainke-taren faseetan mugarriak eta helburuak betetzen direla egiaztatzeko.

- "Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta sozialerako errehabilita-zio-programak" exekutatzeari begira Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak onetsitako kudeaketa-planak jasotzen ditu programa horretako mugarri, helburu eta adierazleak, lehen mailako kontrolak eta aurrekontu-programazioa.





Kudeaketa-tresnen plangintza estrategikoa

Dirulaguntzak

2022-2024 epealdiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotako dirulaguntza aurreikusiak, SEEPeko funtsekin finantzatuak, 99,25 milioikoak dira, urte eta departamentuka honela xehakatuta⁶:

Departamentua	2022	2023	2024
Lurralde Kohesioa	945.947	945.946	630.631
Kultura eta Kirola	1.435.751	1.544.492	0
Eskubide Sozialak	19.067.446	11.571.107	0
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	12.541.240	1.483.873	1.033.873
Landa Garapena eta Ingurumena	1.611.895	1.883.756	3.793.076
Hezkuntza	280.000	800.000	1.000.000
Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoak	9.972.800	4.482.475	21.700.000
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	2.085.787	441.224	0
Guztira	47.940.866	23.152.873	28.157.580

SEEPeko funtsen bitartez 2022-2024 epealdian zehar finantzaturiko dirulaguntzen onuradun nagusi familiak eta partikularrak dira, guztizkoaren ehuneko 40 egiten dutela; toki-entitateak, ehuneko 19arekin; irabazi-asmorik gabeko erakundeak, ehuneko 16rekin; eta enpresa komertzial eta industrialak, guztizkoaren ehuneko 12rekin.

SEEPeko funtsekin finantzatuta egonik Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dauden 2022ko dirulaguntzei dagokienez, aurreikuspena da ehuneko 70 banakako ebaluazioaren prozeduraren bitartez emanak izatea; ehuneko 12, norgehiagoka bitartez; eta gainerako ehuneko 18, zuzenean.

Ezin dugu egiaztatu Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota ote dauden SE-EPa exekutatzeko beharrezkoak diren dirulaguntza guztiak.

7

Ez da ageri Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren segimendua kasu guztietan egiten denik.

Egiaztatzen jardun gara ea berrikusitako hiru azpiproiektuen exekuziorako aurreikusitako dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota ote dauden, eta honako ondorio hauetara iritsi gara:

- Isurketa gutxiko eremuak eta hiri- eta metropoli-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria. Kudeaketa-planak aurreikusten du guztira 10,86 milioiko zen-

⁶ Dirulaguntzen Plan Estrategikoak barne hartzen ditu 70.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten dirulaguntzak.

⁷ B.20 alegazioaren ondorioz ezabatutako paragrafoa.





batekoa egiten duten dirulaguntzak emanen direla 2022-2024 epealdian. Dirulaguntza horiek ez dira jasotzen epealdi horretarako onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

• Moves III Planaren exekuziorako kudeaketa-planean aurreikusitako dirulaguntzen zenbatekoak ez datoz bat Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotakoekin, honako taulan erakusten den bezala:

	2021	2022	2023
Dirulaguntzen Plan Estrategikoa		4.270.261	450.000
Kudeaketa plana	229.739	20.270.261	450.000

• "Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta sozialerako errehabilitazio-programak" azpiproiektuaren kudeaketa-planak 2022-2026 epealdirako aurreikusten dituen dirulaguntzak eta indarreko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, 2022-2024 epekoak aurreikusten dituenekiko konparazioa, honakoa da:

	2022	2023	2024	2025	2026
Dirulaguntzen Plan Estrategikoa	1.572.800	3.352.475	14.800.000		
Kudeaketa plana	1.572.800	3.352.475	14.800.000	15.200.000	12.270.725

Kontratuak, hitzarmenak eta enkarguak

SEEPa 2021eko eta 2022ko ekitaldietan exekutatzeari begira lizitatu asmo diren kontratuak ez daude sartuta ekitaldi horietarako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontratazio aurrekusiak jasotzen dituen dokumentuan.

Ez zaigu informaziorik eman SEEPeko funtsen kudeaketaren ondoriozko premiei erantzutearren egin diren kontratuei, hitzarmenei eta baliabide propioentzako enkarguei buruz.

SAP-G21 kontabilitate-sistematik lorturiko datuen arabera, 2021ean ez zen sozietate publikoentzako enkargurik izan SEEPeko funtsei dagokienez, eta 2022an 1,84 milioiko gastua hartu zuten; hots, aurreikusitako kredituen ehuneko 29. Honako sozietate publikoei dagozkie:

Deskribapena	2022ko behin betiko aurrekontua	2022ko betebeharrak
CEIN Laguntzen kudeaketa	13.142	0
CEIN Ekintzailtza- eta intraekintzailtza-ekintzak Marketin digitaleko Hub-ean	15.000	0
CEIN 477/2021 Errege Dekretuko laguntza-deialdiak	156.031	47.797
Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea, akreditatze-prozedura	50.000	0
CNAI, Reskilling eta Upskilling	1.239.012	0
CNAI, ziklo elebidunak	569.923	232.854





Deskribapena	2022ko behin betiko aurre- kontua	2022ko betebeha- rrak
NIK-Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, hondakinei buruzko araudiaren inplementaziorako plana Kudeaketa-gastuak	36.222	0
NASERTIC Alfabetatze digitalerako ikastaro presentzialak	243.000	0
NASERTIC gaitasun digitalei buruzko programak	1.784.173	430.367
NASERTIC Erreferentziatzko zentro publikoetan konektagarritasuna indartzea	322.725	0
NASERTIC Laguntza teknikoak	10.000	0
NASERTIC Sentsoreak	10.000	0
NASERTIC Turismo-merkatuei buruzko inteligentzia-sistema	50.000	0
NASERTIC Datuaren Bulegoa eta Gobernantza, Nafarroako Gobernu-arena	24.599	0
NASERTIC Cloud pribatu jasangarri bateranzko eboluzioa	50.300	0
Nasuvinsa Laguntza Teknikoak	20.000	0
Nasuvinsa Naturagune eta aparkalekuak kudeatzeko tresna	20.000	0
TRACASA Instrumental Kudeaketa-plataforma digitala	30.000	0
TRACASA Instrumental Informazio sistemak	25.000	0
TRACASA Instrumental Historia Sozial Bateraturako Laguntza Teknikoa	75.000	32.718
TRACASA Instrumental Datuaren Bulegoa eta Gobernantza, Nafarroako Gobernua	47.844	0
Gizain, Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa, AUNA proiektua	1.458.005	1.093.504
Guztira	6.249.976	1.837.240.837.240

Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioari eginiko enkarguak 1,09 milioiko gastua ekarri zuen; hots, enkarguei dagokienez 2022an aitorturiko guztizkoaren ehuneko 60.

Bestetik, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak esparru-akordio bat lizitatu zuen, BEZa kanpo 6,97 milioiko balio estimatua zeukana, sozietate publikoek europar programetako finantza-laguntzak kudeatzeko laguntza teknikorako. Lizitazio-iragarkia 2022ko otsailaren 7an argitaratu zen kontratazio-atarian. Bi kontratu esleitu dira, bakoitza 218.600 eurokoa, BEZa kanpo.

2.1.4 Gardentasuna eta kontu-ematea

SEEParen webgunea

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak, zeinaren bitartez SEMa ezartzen baita, adierazten da beharrezkoa dela Europar Batasuneko funtsen jasotzaileek "ekintzak eta horien emaitzak susta ditzatela, informazio koherentea, eraginkorra eta neurrizkoa emanez, askotariko hartzaileei zuzendua, barne harturik hedabideak eta publikoa".





36/2020 Errege Lege-Dekretuak gardentasun-printzipioaren garrantzia nabarmentzen du, eta adierazten ezen planaren eraginkortasuna, egungo egoeraren ondoriozko presa-testuinguruan, baldintzatuta egonen zaiela exekuzio- eta kontrol-tresna azkarrak edukitzeari eta gardentasuna, jarduketan koherentzia eta horien iraunkortasuna bermatzeko moduko gobernantza bati.

HFP/1030/2021 Aginduak dio ezen Estatu kideak webgune bateratu bat ezarri eta mantendu beharko duela, SEMari eta zerikusia duten proiektuei buruzko informazioa eskainiko duena, eta Batzordeari web-estekaren berri eman beharko diola, askotariko hartzaileei –hedabideak eta publikoa barne– informazio zehatza, koherentea, eraginkorra eta neurritzkoa bermatzeko.

SEEPak halaber aurreikusten du web atari bat eratzea, non zentralizatu eta bideratuko baita planari buruzkoa eta interes potentziala duten eragile desberdinentzakoak (enpresak, partikularrak eta administrazioak) den informazio guztia-
ren banaketa.

Autonomia-erkidegoei dagokienez, SEEParen web atarian informazio hau jasotzen da, besteak beste: SEEPeko funtsen banaketa-irizpideak eta esleipenak, bereizketa eginez autonomia erkidegoek zuzenean kudeatzen dituztenen eta Estatuak exekutatzen dituen artean, REACT EU funtsak, autonomia-erkidegoak parte hartzen duen ESEPEak (Ekonomia Suspertu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak), kontratu-lizitazioak eta autonomia-erkidegoen dirulaguntzetarako deialdiak.

SEEParen web zentrolean argitaraturiko informazioak ez du modurik ematen proiektuek autonomia-erkidego bakoitzean izandako exekuzioa eta horiei uztarturiko funtsak, eta halaber ez du autonomia-esparruaren gaineko osotariko ikuspeirik eskaintzen.

Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Ataria

5/2018 Foru Legeak, maiatzaren 17koak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoak, zehaztu egin du SEEPeko funtsek NFKAn izandako kudeaketari buruz argitaratu behar den informazioa. Horri buruz esaten du ezen Europako funtsen garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboak eskatzen duela gardentasuna eta kontu-ematea erabatekoak izatea eta berariazko tratamendua izan dezaten NFKAren Gobernu Irekiaren Atarian.

Ildo horretan, ekainaren 30eko 14/2021 Foru Legeak bederatzigarren xedapen gehigarria txertatu zuen Gardentasunari buruzko 5/2018 Foru Legean: “Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntzatik (REACT-EU) eta SEEPetik (NGEU) heldu diren Europako funtsen kudeaketari buruzko gardentasuna eta kontu-arrazoiak ematea”.





Xedapen horrek dioenez, Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da NFKAren eta horren foru-sektore publiko instituzionalaren informazio guztia, zehazten duena Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratze Laguntzatik (REACT-EU) eta SEEPetik heldu diren funtsen kudeaketa.

Gune horretan proiektuen betetzeari eta lortutako emaitzei buruzko kontu-arrazoiak emanen dira. Proiektu finantzatu edo kofinantzatu bakoitzetik gutxienez ere honako elementu hauek argitaratu beharko dira:

- Izena.
- Proiektua betetzearen ardura duen organoa.
- Betetzearen hasierako eta amairako datak.
- Lortu beharreko mugarriak eta helburuak.
- Erabilitako kudeaketa-tresnak. Zehaztuko dira onetsitako dirulaguntza-deialdiak, sinaturiko kontratuak, dirulaguntza-hartzaileen eta kontratisten azpikontratazioak.
- Proiektuaren aurrekontu-eragina kasuko urte anitzeko ikuspegiarekin, gauzatze-maila adierazita.
- Uneko ekitaldirako, aurrekontu-partida lotuen egoera, betetze-fase guztietan.

Gobernu Irekiaren Atarian adierazitako informazioa jasoko duen gunea presartzeko epea sei hilabetekoa zen, 14/2021 Foru Legearen indarraldiaren hasieratik. Lege hori 2021eko uztailaren 14ko NAO n argitaratu eta biharamunean sartu zen indarrean.

2022ko azaroaren 14ra bitartean, gune horretan argitaratutako informazio bakarra departamentuek onetsitako Iruzurraren Aurkako Neurrien Planak ziren. Egun horretatik aurrera, Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian atal berri bat paratu da, "Europako Suspertze Funtsak" deitua <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/ekonomika/europako-suspertze-funtsak>, non honako informazio hau argitaratzen baita: SEEParen hileroko txostena, zeinak departamentuka xehakaturik agertzen baititu SEEPeko jarduketaren kopurua, aurreikusitako guztizko finantzaketa, jasotako eta kontabilizaturiko finantzaketa, 2020an eta 2021ean zehar aitorturiko betebeharrak eta 2022tik 2026ra bitarteko epealdirako baimendutako gastuak.

Informazio hori bi Excel fitxategitan xehekatzen da, eta honakoak barne hartzen dituzte: jarduketa bakoitzari buruz lehen adierazitako datuak, azpiproiektuak exekutatzeko dituzten departamentuek onetsitako kudeaketa-planei buruzko erreferentzia bat, exekuzioaren xehetasunak, SAP-G21 kontabilitate-sisteman erregistraturiko kontabilitate-programazioa eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalako dirulaguntza-deialdietarako esteka, non, kasu batzuetan, onuradunei buruzko kontsulta egin baitaiteke.





Aurreko informazio hori 2022ko abenduaren 31ra bitarte eguneratuta dago.

Aipaturiko webera sar daiteke funtsei buruzko Nafarroako Foru Komunitateko https://nextgeneration.navarra.es/es/web_orri_berariazkotik, “Europako funtsen kudeaketari buruzko kontu-ematea” estekari jarraikiz.

NextGeneration.navarra.es weba

<https://nextgeneration.navarra.es> web-orria 2021eko abenduan eratu zen, eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren kabineteak kudeatua da.

Orri honetan, informazioa SEEParen egiturari segiturik aurkezten da, eta honako atal hauetan banaturik dago:

- NFKAren azpiproiektuak SEEPeko hamar palankek barne hartzen dituzten 30 osagaietako bakoitzean. Zehazten dira exekuzio-departamentua, aurreikusitako finantzaketa osoa, helburuak, egin beharreko ekintzak, exekuzio-epealdia eta espero diren emaitzak.

- Funtsak eskuratzeko deialdiak eta bideak, SEEPari buruzko estatu-webgunerako esteka baten bitartez: <https://planderecuperacion.gob.es/como-acceder-a-los-fondos>.

- Nafarroako Gobernuaren prentsa-oharrak, funtsei buruzkoak.

- Next Generation Navarra berripapera.

- Nafarroa Suspertu Planerako esteka.

Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekia gunean, SEEPeko funtsei buruzkoan, web-horri honetarako esteka agertzen da.

SEEParen exekuzioarekin zerikusia duten jarduketek komunikazioaz eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren, SEEPa kudeatzeko sistema tankeratzen duenaren, 9. artikuluan ezarritako betekizunak betetzeaz ardura duena komunikazioko eta nazioarteko harremanetako zuzendari nagusia da, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentukoa.

Kontuak ematea

Apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuak, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko, xedatzen du ezen Nafarroako Gobernuak agerraldia egingen duela hiru hilabete behin Nafarroako Parlamentuan, informazioa emate aldera SEEPeko proiektuei, jasotako funtsei, deialdiei, hitzarmenei, kontratuei, funts-banaketarako erabilitako beste tresna batzuei eta helburuen betetze-mailari buruz, besteak beste.





2022an, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak agerraldia egin zuen Ekonomia eta Ogasun Batzordean otsailaren 9an, maiatzaren 18an eta urriaren 7an, eta informazioa eman zuen Next Generation programaren barrenean Europako funtsek zeukaten betetze-egoerari buruz, abian zeuden proiektuen kopuruari buruz, jasotako funtsei buruz, Nafarroak parte hartzen duen ESEPEei buruz (Ekonomia Susperitu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak), proiektu pilotuei buruz eta funtsen kudeaketari buruzko informazioa argitaratzeko prestatutako web-orriari buruz.

2.1.5 Lehia sustatze aldera harturiko neurriak

Autonomia-erkidegoek jasotako funtsak baldintzatuta daude epe jakin batean mugarrak eta helburuak lortzera. Horregatik, funts exekutatzeko erabilitako tresna diren dirulaguntza-deialdien eta kontratu-lizitazioen ohiko publikotasunaz gain, beren espezifikotasunagatik, komeni da ezagutarazpen-ahalegin gehigarriak egitea balizko onuradunen arteko lehia areagotze aldera, bai eta haiei aholkularitza eta laguntza tekniko eskaintzeko ere.

Ez da ageri NFKAn onetsiriko araudiak edo erabaki, jarraibide nahiz gida berriazkoetan jasota dagoenik SEEPari uztarturiko funtsak eskuratzeari buruz onuradunentzat interesekoa den informazioa argitaratzeko gidalerrorik edo maiztasunik, horien bitartez sustatzekorik planarekin zerikusia duten laguntza eta kontratuatarako lehia.

<https://nextgeneration.navarra.es/es/> web-orriak ez du informazio guztia zentralizatzen, eta ez ditu berriaz eta homogeneotasunez ezagutarazten SEEPeko azpiproiektu desberdinak exekutatzeko egindako dirulaguntza-deialdi eta kontratu guztiak. Funtsak eskuratzeko deialdi eta bideei buruzko informazioa esteka baten bidez eskaintzen da, Espainiako Gobernuak SEEPi buruz duen web orrian sartzekoa.

Kontratazio Atarian ez da modurik txertatu, SEEParekin finantzaturiko kontratuen lizitazioei buruzko kontsulta berriazkoa erraztekorik.

Nahiz eta aipatutako web-orriaren bitartez aukera badagoen NFKAri esleituriko azpiproiektuak ezagutzeko, ez da laguntza-biderik, bulegorik edo berriazko egiturarik eratu balizko interesdunei aholkularitza eta laguntza tekniko eskaini eta, halatan, haiei SEEPeko funtsak eskuratzeko laguntzekorik.

Ez da ageri online harremanetarako berriazko formulariorik, SEEPari buruzko galderak egin eta interesdunak exekuziorako proiektu-proposamenak aurkeztekorik eta horiek finantzatzeari begira eskueran dauden SEEPeko deialdi edo dirulaguntzei buruzko informazioa jasotzekorik.

Departamentuek azpiproiektu bakoitzerako prestatzen dituzten kudeaketa-planetan ezagutarazpen-ekintzak aurreikusten dira, hala nola zeresana duten eragileekiko bilerak, informazio-solasak, publizitate-kanpainak eta departamentuaren webean berriazko atal bat txertatzea, besteak beste.





Ez zaigu ageri zer ezagutarazpen-ekintza egin diren. Horrenbestez, ez daukagu informaziorik jardunaldirik antolatzeaz, ez eta inolako informazio-kanpainari buruzkorik ere, edo enpresaburu-elkartekin, ETEekin, autonomoekin eta toki-entitateekin berariazko topaketarik egiteaz, departamentu batzuek beren eskumenekoak diren SEEPeko jarduketak aurkezteko noiz edo behin egin izan dituztenez at, eta prentsa-oharren bidez izan dugu azken horien berri.

Webean aipatzen diren kontsulta-bideak dira Estatuko Administrazio Orokorren telefono-arretarako 060 zenbakia, herritarrak SEEPari buruz urtearen 365 egunetan eta egunaren 24 orduetan artatzekoa, eta harremanetarako berariazko posta-helbide bat. 2022ko urtarriletik azarora bitartean 26 kontsultari erantzun zaie web-orriaren postatik.

Web-orrian agertzen diren Facebook, Instagram, Twitter eta LinkedIn sare sozialetarako estekak Nafarroako Gobernuaren ofizialak dira. Sare horietan albisteak eta informazioa ematen dira Next Generation funtsekin finantzaturiko jarduketei buruz. Soilik gai horri buruzko informazioa biltzen duen kontu berariazkorik ez da sortu.

2022ko azaroan informazio-buletin bat prestatu zen, hamabost egunean behingo maiztasuneko.

2.2 Giza baliabideen alorreko premiak asetzea

36/2020 Errege Lege-dekretuak kudeaketa onerako printzipio gisa ezartzen du, besteak beste, baliabide eta bitartekoen erabileraren arrazionalizatze eta efizientzia.

SEEPari uztarturiko funtsen kudeaketaren berezitasunek eta kudeaketa horrek dakarren lan-zamaren areagotzeak erronka dakarkite NFKAri.

2.2.1 Araugintzazko garapena

Ez da ageri aztertu eta planifikatu direnik SEEPeko funtsen kudeaketarengatik lan-zaman gertatzen den areagotzearen ondoriozko giza baliabide premiak, ez eta lanaren balizko oztopoak ere, eta beharrezkoak diren langile egokiro trebatuak edukitzeko hartu behar diren neurriak ere.

Alde horretatik, SEEParekin zerikusia duten zereginei atxikita dauden giza baliabideak planifikatu eta kudeatzeari dagokionez NFKAn ez da berariazko araugintzazko garapenik onetsi. Era berean, ez da jarraibide edo orientabiderik adierazi, eta ez da ageri gida edo bestelako dokumenturik, SEEPari uztarturiko giza baliabideen plangintza, kudeaketa eta prestakuntzari dagokienez.

2.2.2 Giza baliabideen plangintza eta antolaketa

Azpiproiektu bakoitzaren kudeaketarako beharrezkoak diren giza baliabideen plangintza sartuta dago kudeaketa-planetan.





Departamentu bakoitzak azpiproiektu bakoitzerako prestatu behar duen kudeaketa-planak barne hartu behar ditu exekuziorako beharrezkoak diren langile gehigarrien aurrekontu-eragina, baliabide-areagotzea justifikatzen duen lan-zama beharrezkoaren kuantifikazioa, bete behar diren lanpostuen ezaugarriak eta lanpostu horiek zer epealditarako diren beharrezkoak.

Ez da ageri SEEParen kudeaketaz eta exekuzioaz arduratzen den langileriaren prestakuntza-premiak aintzat hartuak izan ote diren.

Ez da ageri NFKAk inolako prestakuntza-ekintzarik, jardunaldirik, tailerrik edo lantalderik antolatu izana, eta ez intranetean ez eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren web-orrian ez da ageri SEEParen kudeaketan diharduten langileen gaitasunak indartzeko prestakuntza-ekintzarik.

Horri buruz, informazioa eskatu diegu Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari, baina ez dugu erantzunik jaso.

2.2.3 Bitartekoetarako premiak asetzea

SEEPa kudeatzeko langileetarako premiei aurre egiten zaie langile berekien, aldi baterako kontratazioen eta sozietate publikoei egindako enkarguen bitartez.

2.3 Kudeaketa-ereduak

2.3.1 Kudeaketa-sistema

HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, ezartzen ditu SEEParen osagaien plangintzan eta exekuzioan nahitaez aintzat hartu beharrekoak diren berariazko kudeaketa-printzipioak. Printzipio horiek honakoak dira:

- Mugarri eta helburuak eta emaitzaren segimendu eta frogantzarako irizpideak.
- Etiketatzeko berdea eta etiketatze digitala.
- Ingurumenarentzako balizko inpaktu negatibo muntadunen arriskuaren analisia, emaitzaren segimendua eta egiaztatpena egitea hasierako ebaluazioarekin alderatuta.
- Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta deuseztatze bideak indartzea.
- Estatu-laguntzen araubidea eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa bateragarri izatea.
- Funtzen amai-hartzailea identifikatzea, laguntzen hartzaile gisa nahiz kontratu baten adjudikazio-hartzaile gisa nahiz azpikontratista gisa.
- Komunikazioa.

Kudeaketa-printzipioak betetzea sarturik dago SEEPeko 1. kontrol-mailaren barrenean, zeina exekutatze-entitateei buruzkoa baita.





Autoebaluazioa

HFP 1030/2021 Aginduak alderdi kritikoen autoebaluazio bat taxutzen du. Test baten bidez eginen da, honakoei buruzkoa: kontrol-funtzioa, kudeaketa/barne auditoretzakoa, mugarri, helburu eta proiektuen segimendua, eta erabaki-hartzea dela-eta printzipio jada aipatuei buruzko ebaluazioa egitea.

Autoebaluazioan, arriskua balio bakar batekin kuantifikatzen da. Xedea da "arrisku baxua" maila erdiestea. Kontrako kasuan, exekutatzeko-entitateak beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu.

Autoebaluazio noiz eta SEEParen exekuzioaren hasierako unean egin behar da, eta gutxienez ere urtean behingo maiztasunez.

Txosten honetako konklusio-atalean adierazten den bezala, ez da ageri azpi-proiektuen exekutatuzaile izandako hamaika departamentuetatik hiruk autoebaluazio-testa egin izanik, eta gainerako zortziek Ganbera hau horren eske joan zitezaien unean egin zuten.

Ez da jarraibiderik jaulki, zehaztekorik ebaluatzailea nor izan behar zen, autoebaluazioaren maiztasuna zein, testak baliozkotzeko modua zein eta kudeaketa-sisteman txertatzearen arduraduna nor izan behar zen, besteak beste.

Ez da ageri departamentuek asmorik dutenik autoebaluazioa aldizkakotasunez egiteko, gutxienez ere urtebeteko maiztasunez.

Autoebaluazio-testak prestatu dituzten zortzi departamentuetatik, bi baizik ez dira, Eskubide Sozialetako Departamentua eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua, horien prestaketa-prozesuaren berri eman digutenak.

- Eskubide Sozialetako Departamentuan zuzenbidearen eta ekonomiaren alorretako zortzi pertsonak parte hartu zuten; batzuk, Idazkaritza Tekniko Nagusiko karguak zituztenak, eta beste zenbait langile, zuzendari nagusi eta zerbitzu-zuzendari mailetakoak, besteak beste.

Kontratazio-prozeduretako, hitzarmenetako bitarteko berekiei eginiko enkarguetako, dirulaguntzetako eta langileria-hautaketako arriskua ebaluatu eta, emaitzetan oinarriturik, IANPa berrikusi zen.

Autoebaluazioa egite aldera, aintzat harturiko irizpidea izan zen, besteak beste, iruzurraren aurkako koordinazio-zerbitzu nazionalaren gida.

- Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren autoebaluazio-testa egiteaz arduratu zen idazkaritza nagusiari, zerbitzu baten zuzendaritzari eta sekzio bati atxikitako lau pertsonak osaturiko talde bat, besteak beste informatikaren eta antolaketaren arloetakoak. SEEPa kudeatzeko estatu-bulegoak markatutako gidalerroei eta prestaketa-gidetako irizpideei jarraitu diete.





Autoebaluazio-testean arriskua estimatze aldera alor bakoitzak dituen ponderazio-faktoreak honako hauek dira:

Alorrak	Ponderazio-faktoreak
Kudeaketaren kontrola	% 18
Mugarri eta helburuak	% 34
Ingurumen-kalteak	% 12
Interes-gatazka, Iruzurraren eta Ustelkeriaren Prebentzioa	% 12
Estatu-laguntzen araubidea, bateragarritasuna	% 12
Finantzaketa bikoitza ekiditea	% 12
Guztira	% 100

Mugarri eta helburuak

Mugarri eta helburuen segimendua da SEEPeko kudeaketa-printzipiorik behinenetakoa. Hori urratzeak berekin dakar jasotako finantzaketa itzuli beharra.

HFP 1030/2021 Aginduak "mugarri eta helburuak" kontzeptuak garatzen ditu, bai eta horien segimendurako eta emaitza-frogantzarako irizpideak ere. Exekutatze-entitateek azpiproiektuen mugarri eta helburuak planifikatu behar dituzte, kritikoak direnak desagregatuz.

HFP 1030/2021 Aginduak bere II. Eranskinean taxuturiko autoebaluazio-prozesuak aztertzen du kudeatze-sistemari mugarri eta helburuak betetzeko egin zaion egokitzapena; horretarako, exekutatze-entitatearen guztizko arriskuaren ehuneko 34ko ponderazioa ematen zaio, eta honako elementu hauek hein berean baloratzen ditu:

- Helburukako kudeaketaren alorreko aurretiazko esperientzia.
- Mugarri eta helburuak kudeatzeko prozedurak aplikatzea.
- Mugarri eta helburuak kudeatzeko jasotako prestakuntza.
- Kudeaketa eta Segimendu Informazio Sistemari mugarri eta helburuei buruzko informazioa emateko berariazko giza baliabide eskuragarriak.

HFP 1030/2021 Aginduak ez du arriskua baloratzeko azalpen edo irizpiderik eskaintzen esperientziari, prestakuntzari eta giza baliabideei dagokienez.

Kudeaketa-prozedurak aplikatzeaz denaz bezainbatean, HFP 1030/2021 Aginduaren III. eranskinak azpiproiektu-mailako galdetegi bat jasotzen du, informazio- eta segimendu-sistemako jarduketari buruzkoa (CoFFEE-SEM). Sistema horrek autonomia-erkidegoentzat operatibo egon gabe zirauen 2022ko azaroaren 30ean.





2.3.2 Kudeaketa-tresnak: araugintzazko neurriak eta SEEPeko eskakizunetarako egokitzapena

Dirulaguntza-deialdiak, kontratu-lizitazioak eta hitzarmenak dira autonomia-erkidegoek SEEPeko azpiproiektuak exekutatzeko darabiltzaten kudeaketa-tresnak.

Egiaztatu dugu ea NFKAk araugintzazko neurririk onetsi ote duen SEEPeko funtsekin finantzaturikoak diren kudeaketa-tresnen prozedurak eta izapidetzea arintzeko eta sinpletzeko.

Prozedurak

4/2021 Foru Lege-dekretuaren bitartez zera onetsi zen, urgentziaz izapidetu eta lehentasunez tratatuko direla Europako Suspertze Tresnako europar funtsen kargurakoak diren gastuen exekuziorako administrazio-prozedurak, beharrezkoa izan gabe administrazio-organoak urgentzia hori arrazoitu dezan hasiera emateko erabakian.

Ez dira ezein kasutan murriztuko eskabideak eta errekurtsioak aurkezteko epeak.

Dirulaguntzak

SEEP funtsekin finantzaturako dirulaguntzei dagokienez, apirilaren 14ko 4/2012 Foru Lege-dekretuak, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko, honako neurri hauek ezartzen ditu NGEU proiektuetako funtsekin finantzatzen ahal diren dirulaguntzen ematea azkartzeko:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 7.3 artikuluan aipaturiko Nafarroako Gobernuaren baimena ezin eskatuko da milioi bat baino gehiagoko zenbatekoa duten dirulaguntzak emateko, noiz eta hartzailea zehazteak, dirulaguntzaren xedea dela-eta, beste edozein interesduni dirulaguntzarako bidea ixten diorean.

- Oinarri arautzaileen tramitazioan eta NGEU proiektuetako funtsekin finantzatzen ahal diren dirulaguntzetarako deialdiaren tramitazioan, txosten juridikoa baizik ez da eskatzen ahalko, eta espedientea kontu-hartzaitzaren fiskalizaziopean geratuko da hamar egun naturaleko epe luzaezinean.

- Zilegi izanen da dirulaguntza horien aplikazioaren justifikazioa egitea justifikazio-kontu sinpletu baten bidez, baldin onuradun bakoitzeko 100.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoa duten dirulaguntza ebatziak badira.





• 36/2020 Errege Dekretuko 64. artikulua modua ematen du europar funtsekin finantzatzen ahal diren dirulaguntzak alde aurretik izapidetzea krediturik eskueran egon gabe, noiz eta frogatzen denean aplikatzekoa den kreditua xedatzeko behar den aurrekontu-aldaketa eskatu egin dela, eta dirulaguntzaren onespena baldintzatuta da-goela aldaketa horren onspenera.

NFKAn ez da aurretiazko izapidetzerik ezarri SEEPari uztarturiko funtsekin finantzatutako dirulaguntzentzat. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimendu egiten du aurretiaz tramitatzea kontratazio-espeditenteak, bai eta gastu-espeditenteak ere, haien araudiak gastu-konpromisoa formalizatzeraino iristea ahalbidetzen duenean⁸.

Kontratuak

4/2021 Foru Lege-dekretuan kontratazio-alorreko honako berezitasun hauek onetsi ziren:

• Kontratazio-espeditentea presako gisa kalifikatzen baldin bada, zilegi izanen da kontratua exekutatzeko has dadin erabakitzea, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.2 artikuluan ezarritako etete-epea muga-eguneratu ondoren eta hura formalizatu baino lehen, baldin eta kasua bada aurreikusita dauden bermeak, kontratuko betebeharrak betetzekoak, eratuta badaude jada.

• NGEU funtsekin finantzatutako kontratu eta esparru-akordioek izapidetze-lehen-tasuna izanen dute beste edozein kontraturen aldean, izapidetze horretan esku hartzen duten organo guztientzat. Zeinek bere txostena jaulkitzeko epeak bost egun naturalera murrizten dira, eta epe horrek ez du inolako luzapenik izaten ahalko.

• Salbuespen gisa, NGEU funtsekin finantzaturiko energia-hornidurako eta -zerbitzuetarako kontratuen indarraldia luzatzea, gehienez ere hamar urtera arte.

• Administrazioari zerbitzu informatikoak eta teknologikoak emateko SEEP funtsekin finantzaturiko enkarguak exekutatzeko aldera tresna-enteek hirugarrenekin kontratatzen duten zenbatekoaren ehuneko 50aren muga bertan behera uztea.

Ez da ageri administrazio-klausula partikularren plegu-eredurik prestatu izana, ez eta SEEPari uztarturiko funtsekin finantzaturiko kontratuen lizitazioa izapidetzeko beste inolako dokumentu-eredurik ere.

Hitzarmenak

Europako Suspertze Tresnatik heldutako europar funtsen kargurako proiektuak exekutatzeko aldera NFKAk sinaturiko hitzarmenen izapidetzeari dagokionez

⁸ B.23 alegazioaren bitartez aldaturiko paragrafoa





4/2021 Foru Lege-dekretuan txertaturiko berezitasuna da zilegi izanen dela justifikazio-oroitidazki ekonomiko eta araudiarena hitzarmenaren onespeneren ondoren prestatzea.

SEEParen baldintzetara egokitzeko neurriak

Aztertu dugu zer urrats egin diren SEEPeko funtsekin finantzaturiko kudeaketa-tresnen tramitazioan, horiek egokitzekoak HFP 1030/2021 Aginduaren 2. artikuluan ezarritako SEEPeko berriazko kudeaketa-printzipioetara.

NFKAk arautu egin du SEEPeko kudeaketa-printzipioak SEEPeko funtsekin finantzaturiko kontratuen prozeduran eta dirulaguntza-izapidetze prozeduraren fase desberdinetan txertatzeari dagokiona.

Horrela, SEMek finantzaturiko proiektuen kudeaketari eta segimenduari buruzko arauetan, zeinak onetsi baitziren Nafarroako Gobernuaren 2022ko otsailaren 16ko erabakiaren bitartez, kudeaketa finantzario onaren printzipioak txertatzen dira, eta horietako batzuk funtsezko betekizunak dira, egiaztatu behar direnak SEEPeko funtsekin finantzaturiko dirulaguntzen oinarri arautzaileen eta kontratazio-espedienteen fiskalizazioan.

SEEPeko funtsekin finantzaturiko hitzarmenen izapidetzea ez dago aipatu arauetan eraendua, ez baitago sartuta kudeaketa finantzario onaren printzipioetan, ez eta fiskalizazioaren bitartez egiaztatu beharrekoak diren zertzeladetan. Beraz, ez da ageri hitzarmenen-izapidetzea egokitu egin denik HFP 1030/2021 Aginduaren 2. artikuluko kudeaketa-printzipioetara.

2.3.3 Iruzuraren prebentziorako, detekziorako eta deuseztapenerako mekanismoak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, zeinaren bidez ezartzen baita SEM, xedatzen du ezen “*Mekanismoaren aplikazioa egin behar da kudeaketa finantzario onaren printzipioari heldurik, barne direla iruzurraren prebentzio eta pertsekuzio eraginkorrenak, bereziki iruzur fiskal, ihes fiskal, ustelkeria eta interes-gatazkenak*”, eta neurriak harrarazten ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, detektatu eta deuseztatzeko.

36/2020 Errege Dekretuak kudeaketa finantzario oneko printzipio gisa ezartzen du interes-gatazken, iruzurraren eta irregulartasunen prebentzio eraginkorra.

SEEParen exekuzioan 2021/241 Erregelamenduko hertsapenak betetze aldera, irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduak, zeinaren bidez taxutzen baita SEEPa kudeatzeko sistema, arautzen du iruzur, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, detektatu eta deuseztatzeko mekanismoen indarkuntza, eta ezartzen du ezen





"SEEPeko neurrien exekuzioan parte hartzen duen entitate orok, erabakitzaile nahiz exekututzaile izan, IANP bat izan beharko du"ela.

EAKN-Estatuko Kontu-hartzaitza Nagusikoa den Iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalak gida bat prestatu du, SEEPa exekutatzean iruzurraren aurkako neurriak aplikatzekoa, iruzur, ustelkeria eta interes-gatazken prebentzio eta detekziorako eta finantzaketa bikoitza ekiditeko.

NFKAn, Nafarroako Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko Erabakiz, IANP eredu onetsi eta honako neurri hauek ezarri ziren:

- Departamentu bakoitzak bere IANP propioa onetsi beharko du, abiapuntu bezala hartuz onetsitako eredu adierazitako gutxieneko edukia, SEM proiektuak direla-eta exekutatzen dituzten jarduketei hura egokituta.

IANPak honako zertzelada hauek jasoko ditu, besteak beste: IANParen xedea, norainokoa eta aplikazio-esparrua; departamentuaren antolaketa-egitura eta eduki funtzionala; interes-gatazkek tratatzeko prozedura; prebentzio, detekzio edo deuseztapen edo pertsekuziorakoak diren iruzurraren aurkako neurriak; eta IANParen publikotasun, segimendu eta eguneraketa.

Horrez gain, IANPak bederatzi eranskin dauzka, zeinetan zenbait dokumentu jasotzen baitira, hala nola Interes Gatazkarik Ezaren Deklarazioa (IGED), Nafarroako Gobernuaren kideen eta NFKAko goi-kargudunen gobernu onaren kodea, jokabide-kodea, interes-gatazkaren, iruzur-prebentzioaren eta ustelkeriaren testa eta iruzur-arriskuaren ebaluazioa, besteak beste.

- IANPea jasotako neurrien exekutatzearen dokumentuzko froga utziko da, bertan adierazita zein organok edo pertsonak egin dituzten, horien edukia eta lorturiko emaitzak, halako moldez non auditore-tza pista bat mantenduko baita, sistemaren funtzionamendua ebaluatu ahal izateko.

- Departamentu bakoitzean Iruzurraren Aurkako Departamentu-batzorde bat eratu da, kasuko planean zehaztuko den osaera izanen duena, gutxienez hiru batzordekide osatua (lehendakari bat, arlo juridikoko pertsona bat eta arlo ekonomikoko beste bat), eta eginkizun nagusizat hartuko duena iruzurrezkoa izateko moduko jokabide baten zantzurik sumatuz gero egin beharreko urratsak zehaztea. Batzorde horren kide izateko modukoak diren pertsonengan interes-gatazkarik gertatuz gero, zilegi izanen da beste departamentu batzuetakoak diren profil bereko pertsonengana jotzea.

- IANPa eguneratu egin beharko da kasu hauetan:

- a) Planak ukitzen dituen unitate organikoei esleituriko eginkizunak aldatzen direnean.





b) Departamentuaren jarduera zein baldintzatan egiten den, baldintza horiek aldatzen badira, halako moldez non Planak jasotzen duen arrisku-ebaluazioak horren eragina jasaten duen.

c) Auditoretza publikoko eragiketa batean adierazitako gomendio nagusiak eta neurriak onartu beharrekoak dira.

d) Hasierako iruzur-arrisku ebaluazioa berrikusten denean.

NFKAn, exekutatze-entitate (departamentu) bakoitzak bere IANP berekia onetsi du. Plan horiek Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuta daude, honako esteka honetan: <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/transparencia/plan-recuperacion-transformacion-resiliencia>.

Departamentu guztietan, IANPeko neurriak iruzurraren aurkako ziklo deritzoneko lau giltzarri-elementuen inguruan egituratzen dira: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta pertsekuzioa. Departamentu bakoitzak exekutatzen dituen SEEPeko azpiproiektu guztiei zuzenean aplikatzekoak dira, horren indarraldian zehar.

Kasu orotan, IANPa kasuko departamentuko kontseilariaren foru aginduz onetsi da, 2022ko apiriletik ekainera bitartean.

11 departamentuetako IANPek eduki onetsia jasotzen dute; besteak beste, iruzur-arriskuaren ebaluazioa eta "interes-gatazkaren eta iruzur-prebentzioaren nahiz ustelkeriaren testa" barne hartzen dituzte.

Exekutatze-entitate diren 11 departamentuetatik, bik bakarrik, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak eta Eskubide Sozialetakoak, jakinarazi dizkigute IANPa egite aldera gauzaturiko barne prozesua eta prestaketa horretan parte hartu duen langileriaren profila.

"Interes-gatazka, iruzur eta ustelkeriaren prebentzioa" testari dagokionez, departamentu guztiek okerren baloraturiko zertzeladak dira prebentzio-alorreko prestakuntzarako irakaspena eta datu-prospekzioko edo arrisku-puntuazioko lanabesez iruzur-detekziorako eginiko erabilera.

Nahiz eta prestakuntzarako irakaspena izan departamentu guztiek autoebaluazioan okerren baloraturiko alderdietako bat, ez da ageri horri buruzko prestakuntzarik eman izana.

Nafarroako Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko erabakian ezartzen da ezen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak etika publikoaren eta lanabesen alorreko prestakuntza-ekintzak antolatuko dituela. Ez zaigu ageri halako prestakuntzarik eman izana.

Nafarroako Foru Komunitateko arduradun gorenek iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurka konpromisorako deklarazio bat egin izanari dagokionez, 2022ko martxoaren 2an Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako





Gobernuaren kideen eta NFKAko goi-kargudunen gobernu onaren kodea bereganatzea, bai eta NFKAko enplegatu publikoen jokabideari eta printzipio etikoei buruzkoa ere.

Bilkura horretan, Nafarroako Gobernuak adierazpen instituzional bat onetsi zuen, iruzurraren aurkako borrokarako konpromisoa hartzekoa, non aldarrikatzen baitu martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen bidez onetsitako Gobernu Onaren Kodean jasotako printzipio etiko eta jokabidezkoekiko bere konpromisoa. Adierazpen instituzionala eranskin gisa agertzen da departamentuek prestatuturiko IANPetan.

Adierazpen instituzionalaren arabera, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du bere politika etengabe berrikusi eta eguneratzeko prozesu bati heltzeko, lorturiko emaitzak ebaluatzearen bitartezkoa, halatan zuzentze- eta pertsegitze-neurrien inplementazioan behar bezalako kontrola eta ganora bermatzeko.

Adierazpen hori, kolegiala eta maila gorenekoa, halaber hedatzen da Administrazioiko goi-kargudunenganaino eta NFKAko eta haren erakunde autonomotako enplegatuenganaino.

NFKAko enplegatu publikoen jokabidezko eta printzipio etikoetako kodeak ezartzen du ezen jarduneko egoeran dauden funtzionarioen betebeharrak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuz onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuaren 56. artikuluan jasotakoak, NFKAko edozein enplegatu publikorenganaino hedatzeko modukoak direla.

2.3.4 Aurrekontu-kudeaketa eta -kontrola

Aztertu dugu ea kudeaketarako eta aurrekontu-kontrolerako NFKAn ezarrita dagoen antolaerak modurik ematen ote duen aurrekontu-kudeaketa arina eta malgua izateko eta SEEPetik jasotako funtsen segimendu eta kontrol egokia egiteko.

Aurrekontu-kudeaketa

HFP 1031/2021 Aginduaren 9. artikulua xedatzen du ezen, SEEParen urteaniztasuna aintzat harturik, eta horren aurrekontu- eta kontabilitate-segimendu egokia egiteko, erabakitze- eta exekutatzeko-entitateek baliabide-programazioa aurkeztu beharko dutela, SEEPeko mugarri eta helburuen betetzearen denborabanaketari jarraikiz, bai eta plan horren iraunaldi osorako aurrekontu-aurreikuspena ere. Sistemak beharrezkoak diren guneak prestatuko ditu, 2020tik 2026ra bitartean aurreikuspen horiek jasotzeko.

NFKAk ez dauka SEEPeko mugarri- eta helburu-banaketaren araberrako baliabide-programaziorik.





36/2020 Errege Lege-dekretuaren 37.4 artikulua arabera, Estatuko Administrazio Orokorrarengandik jasotako transferentziengatik diru-sarrerak, SE-Mekoak eta REACT-EUkoak, zuzenbidez atxikita daude SEEParen barrenean sartzen diren proiektuak edo ekintza-ildoak finantzatzera.

Gastua egiten ez bada edo aurreikusitako helburuak osoki nahiz partzialki bete gabe geratzen badira, autonomia-erkidegoa behartuta egonen da jasotako funtsak osoki edo partzialki itzultzera. Itzulketa-prozedura Ogasuneko ministroaren agindu bidez arautuko da.

NFKAk kontabilitate-sistemako finantzaketa atxikiko aurrekontu-modulu baten bidez egiten du SEEPari uztarturiko gastu eta diru-sarreraren segimendua.

Kontabilitate-modulu horretan sarturik daude azpiproiektu edo jarduketaren mailako gastuak eta horiei uztarturik kasuko eperako aurreikusten den finantzaketa, baina eskastasun tekniko batzuk agertzen ditu, gastuen segimendua zailtzen eta horien kontrola eskuzkoa izatera behartzen dutenak. Eskastasun horiek ondoko hauek dira:

- Finantzaketa atxikia duen proiektu bateko gastuak ezin dira aurrekontu-programa desberdinetakoak izan.
- Langileriarri dagozkion gastu-partidak ezin zaizkio zuzenean egotzi finantzaketa atxikiko proiektuari, eta horretan kontabilizatzen dira langileria-gastu kontabilizatuen kreditu-berresleipen baten bidez.

Bestetik, kasu guztietan ez da jakiten SEEPeko inbertsioak azpiproiektutzat ala jarduketatzat jotzen diren; afera hori zehaztuko da CoFFEE-SEMeko informazio- eta segimendu-sistema erabat operatibo dagoenean.

SEEPeko gastu eta dirusarreraren segimendua egiteko beste neurri bat da funts horiei atxikitako diruzaintza-gerakinaren bitartezkoa. Magnitude hori zuzenean lor daiteke kontabilitate-sistematik. SEEPari atxikitako diruzaintza-gerakina, 2021eko abenduaren 31n, 175,92 milioikoa zen.

NFKAn araugintzazko neurri hauek onetsi dira SEEPari uztarturiko funtsen aurrekontu-kudeaketa azkartzeko:

- Kreditu-txertaketari buruzko erregelak malgutu egin dira. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatuz, bertan behera utzi zen harako murriztapen hura, zeinaren arabera kreditu gehituak haien gehikuntza baimentzen den aurrekontu-ekitaldiaren barrenean aplikatuak izaten ahalko baitira noiz eta, bakarrik, Europar Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik heldutako funts finalistekin finantzatzutako gastuei dagokienean.





- Malgutu egin dira partiden arteko funts-mugimenduei buruzko erregelak⁹.

2022ko ekitaldiko aurrekontuei buruzko foru legearen 56. artikulua baimena ematen du, bere indarraldiak iraun bitartean, dauden partiden artean edo ekitaldian zehar eratu beharra suertatzen den partiden artean funts-mugimenduak egiteko, SEMeko proiektu bakoitzekoak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 38. artikuluko murriztapenei men egin behar izan gabe.

Funts-mugimendu horiek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Next Generation Bulegoaren titularraren adostasuna beharko dute izan.

- Arautu egin da SEMeko kreditu-gerakin atxikia hurrengo ekitaldietara gehitzeari buruzko afera.

Aurrekontu-ekitaldiaren amaieran exekutatu gabe geratu diren SEM proiektuen exekuziorako aurreikusitako kredituak hurrengo ekitaldiari gehitzen ahalko zaizkio, aldeztatik egokituz proiektuko kudeaketa-planean jasotzen den plan ekonomiko eta aurrekontuena. Gehitze hori diruzaintza-gerakinarekin finantzatzen ahalko da.

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 58. artikulua ezartzen du ezen, SEMari dagokion aurrekontuetan kontsignatutako gastua, ekitaldian exekutatzeko ez bada, diruzaintza-gerakin atxikitzea joko dela, eta zilegi izan den hori hurrengo aurrekontu-ekitaldietara gehitzea, proiektu bakoitzean jasotako edozein partidatan.

- Arautu egin da SEEPerako gastu-konpromiso urteaniztuna.

Aipatu 18/2021 Foru Legearen 45.1.b artikulua baimendu egiten du Ogasun Publikoaren Foru Legeko mugak gainditzea; besteak beste, *"Europar Batasunak eta/edo Estatuko Administrazio Orokorrek kofinantzatzen dituzten planak, programak eta ekimenak aurrera eramateko, bai eta haietatik eratorritako betebeharrei aurre egiteko ere, bost urte baino gehiagoko plangintza eduki behar dutenean"*.

- SEM funtsetatik eratorritako eragiketarako itxiera-egutegi bereizi bat onetsi da 2021 eta 2022ko ekitaldietarako, itxierari buruzko foru-aginduetan ezarritako muga-egunetatik salbuetsirik SEM gastuei buruzko espedienteen izapidetze aurreratua, konpromisoak eta aurrekontu-aldaketak.

⁹ B.24 alegazioaren bitartez aldatutako paragrafoa





Aurrekontu-kontrola

SEEPak hiru mailako kontrol-sistema bat jasotzen du. Lehen maila kudeatzailerik berek egiten dute; bigarren maila zerbitzu juridikoen eta kontu-hartzaitzaren esku uzten da; eta hirugarren maila, auditoretzen bitartezko ex post kontrolarena, EAKN-Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiari dago kio, autonomia-erkidegoetako kontu-hartzaitza nagusiekin elkarlanean.

SEEPak dioenez, kontrol global eta integratuko sistema oinarritzen da antolieran eta gastu publikoen kontrol arrunterako mekanismo eta tresnetan. Halaber, aurrekontu-egiturari eta kontabilitate-informazioko sistemari loturik dago, bai exekuzio finantzarioaren aldetik bai mugarri eta helburuak lortzearen aldetik, baina elementu horiek planaren baldintza berezietara doituta.

NFKAn, 4/2021 Foru Lege-dekretuak ezartzen du NGEU funtsen kudeaketaren barrenean izapideturiko espedienteek lehentasuna dutela; halatan, kontrol-organoak gehienez bost eguneko epean jaulki behar du bere irizpena.

Espediente horiei aplikatzekoa zaien kontu-hartzaitza funtzioa Nafarroako Gobernuaren 2022ko otsailaren 16ko erabakian definitu da, zeinaren bidez onesten baitira SEMak finantzatzen dituen proiektuen kudeaketa eta segimendua egiteari buruzko arauak.

Erabaki horrek eraentzen ditu lehen eta bigarren mailako kontrolak, eta aurretiazko fiskalizazio mugatua ezartzen du. Egiaztatu beharreko zertzeladak zehazten ditu kontratazio-espedientei eta SEEPeko funtsekin finantzaturiko gastuak baimentzen dituzten dirulaguntzen oinarri arautzaileen onespenerako espedientei dagokienez.

2.3.5 Informazio-sistemak

36/2020 Errege Lege-dekretuak, abenduaren 30ekoak, ezartzen du sektore publiko autonomikoko entitateak behartuta daudela SEEPeko gastuen kontabilitate-exekuzioaren segimendurako informazioa igortzera.

Aurrekontu-segimendurako informazioak barne hartuko ditu ezartzen diren faseetako gastu-exekuzioen zenbatekoak, bai eta DDBN-Dirulaguntzen Datu Base Nazionaleko deialdi-kodearen identifikazioa ere, edo, kasuaren arabera, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman kontratuak duen identifikazio-zenbakia.

Irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren bitartez ezartzen da informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, segimendua egiteko SEEParen mugarri eta helburuen betetze-mailaz eta plan horren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaz.





Exekutatzeko-entitateek honako informazio hau jaso behar dute azpiproiektuetan edo ekintza-ildoetan, gero horren segimendua egin dadin: osagaia; erreforma edo inbertsioa; erabakitzeko-entitatea; exekutatzeko-entitatea; kudeatzeko-organoa; azpiproiektuaren edo ekintza-ildoaren identifikazio-kode bakarra, zeina kudeaketa eta segimendurako informazio-sistemak esleitua baita; finantza-iturriak; mugarri eta helburuak; adierazleak; exekutatzeko-entitatearen aurrekontu-partidak; xedearen deskribapen laburra; hasiera- eta amaiera-datak; kostu estimatua; eta beste-lako informazio muntaduna.

Sistemak barnean hartzen duen informaziotik abiatuz, exekutatzeko-entitate bakoitzak kudeaketa-txostena prestatu beharko du, kudeaketarako eta segimendurako informazio-sistemarako beharrezkoak diren egitura, formatu eta aldizka-kotasunarekin.

Kudeaketa eta segimendurako CoFFEE-SEM informazio-sistema ez dago erabat operatibo autonomia-erkidegoentzat, eta, horregatik, azpiproiektuaren identifikazio-kode bakarra, sistema horrek esleitu beharrekoa, ez dago eskuragarri. CoFFEE-SEM sisteman jasoko da azpiproiektu edo ekintza-ildo bakoitzerako adierazitako informazio guztia.

Dena den, exekutatzeko-entitateak behartuta daude emandako datuen baliozkotasuna, fidagarritasuna eta trazabilitatea bermatuko duten barne-kontrolko sistemak edukitzera.

Aztertu ditugu Foru Administrazioak azpiproiektuen gainean eginiko segimendua, kontabilitate- eta aurrekontu-informaziorako sistemak SEEParen eskakizunetara egokitzeko jarduketak, SEEPari uztarturiko dirulaguntzak eta kontratuak nahiz funtsen hartzaileak identifikatzeko mekanismoak eta azpiproiektuetako mugarri eta helburuen segimendua.

Kontu-hartzailera Zuzendaritza Nagusiarena den SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuan, departamentuek exekutatzeko dituzten azpiproiektu/jarduketa desberdinei buruzko informazioa biltzen da, eta informazio horren segimendua Excel orrien bitartez egiten da.

Azpiproiektu bakoitzean honako elementu hauek identifikatzen dira: SEEPeko osagaia, erreforma edo inbertsioa, erabakitzeko-entitatea, exekutatzeko-entitatea, izendapena, mugarri/helburuak eta horien lorpenaren datak, kontabilitate-proiektuaren zenbakia, kostu estimatua eta aitorturiko betebeharrak. Ordainketari buruzko informaziorik ez da jasotzen.

SEMeko finantzaketadun proiektuei buruz Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez 2022ko otsailaren 16an onetsi ziren kudeaketa- eta segimenduko-arauek ezartzen dute SEM proiektuen exekuzioari buruzko aurrekontu-kontabilitatea egokitzeko zaiela SEEParen kudeaketa-araudiko informazio-betekizunei; eta, ondorioz:



- Dirulaguntza-deialdien identifikazio-kodeak gastu-baimenketaren idazpenetan jasoko dira.

- SEM proiektuetan formalizaturiko kontratuetatik eratorritako gastu-konpromisoek identifikazio-kode bat jasoko dute, Kontratuen Erregistroan esleitua dutena.

- Ez da zilegi izanen Estatuko Administrazioari helarazi beharreko informazioaren edukiarekin eta xehetasun-mailarekin bateraezin den kontabilitate-prozedurarik edo dokumentu-motarik erabiltzea.

Dirulaguntzei dagokienez, ez da inolako aldaketarik egin kontabilitate-sisteman, ezen gastu-baimentzearen kontabilitate-idazpenetan jadanik identifikatuta agertzen zen dirulaguntza-deialdia.

Kontratuen kasuan, gastu-konpromisoari buruzko kontabilitate-idazpenak ez du jasotzen kontratuen erregistroko kodea.

Nafarroako Gobernuarena den NLEP-Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformak ez ditu jasotzen SPKP-Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman kontratu bat identifikatzeko beharrezkoak diren hiru eremuak: kontratazio-organoaren kodea, lizitazio-kodea eta kontratu-kodea. NLEPe kontratu eta kontratistei buruzko informazioa helarazten dio SPKPri, eta aipatu hiru eremuak txertatzen direnean, SAP kontabilitate-sistemari helaraziko dio kontratuei buruzko informazioa, horiek kontabilitate-exekuzioarekin uztartze aldera.

SEMarekin finantzaturiko proiektuei buruz 2022ko otsailaren 16an onetsitako proiektu-kudeaketa eta -segimenduari buruzko arauak halaber ezartzen dute informazio-sistema bat eratuko dela, honakoetarako:

- Proiektu bakoitzeko mugari eta helburuei buruzko informazioa eta uztarturiko adierazleak jasotzeko.

- Informazioa emateko, SEMarekin finantzaturiko proiektuei buruz, horien egitegoerari eta aurreikusitako bilakaerari buruz, hala magnitude ekonomiko eta aurrekontuetakoei dagokienez nola mugari/helburuei eta uztarturiko adierazleei dagokienez. Halaber jasoko ditu DDBN-Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta SPKP-Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman hurrenez hurren agertu beharrezkoak diren dirulaguntza-deialdi onetsien eta kontratu formalizatuen erreferentziak.

- SEM proiektu bakoitzeko dirulaguntzen hartzaileak eta kontratistak nahiz azpi-kontratistak identifikatzeko.

- EAO-Estatuko Administrazio Orokorrari mugari eta helburuen nahiz programazio ekonomikoaren betetzeari buruzko informazioa helarazteko.

Informazio-sistemaz denaz bezainbatean, Kontu-hartzailtza Zuzendaritza Nagusia, elkarlanean arituz Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Unibertsitate eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak kontraturiko kanpo-enpresa batekin, SEPAN deritzon tresna informatiko bat






garatzen ari da, SEEPeko azpiproiektuen eta jarduketan gainera informazioa kudeatzeko, non aurreikusten baita azpiproiektu/jarduketa bakoitza "ekimen-kode"aren bidez identifikatzea eta CoFFEE-SEM informazio-sistemari helarazteko behar den informazioa eta mugari nahiz helburuak jasotzea.

Asmoa da tresna hori DDBNrekin eta Kontratazio Atariarekin konektatzea, onuradunei buruzko informazioa jasotze aldera.

Tresna horren garapena baldintzatuta dago SEEPeko kudeaketa- eta segimendu-informazioko sistema, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiko CoFFEE-SEM, zeinari buruz baitihardu HFP/1031/2021 Aginduak, operatibo egoteari eta haren egitura ezagun izateari, horretara egokitu ahal izateko.

SAP kontabilitate-sistema garatze-fasean dago, eta xede du informazioari buruzko berariazko kontsultak egin ahal izatea 1030/2021 eta 1031/2021 aginduek manatuak; halaber, kudeaketa-planak onesteko administrazio-espedienteen multzo berri bat eratzen da, EXtr@ espediente-aplikazioaren barrenean.



2.4 Lagineko azpiroiectuak

C1. 11. Isurketa gutxiko eremuak eta hiri- eta metropoli-garraioaren eraldaketa digital eta jasangarria

Lurralde Kohesiorako Departamentua da neurri honen exekutatzeko-entitatea, zeina SEEPeko "Hiri- eta landa-agenda, despopulaketaren aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena" 1. palankako "Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana" 1. osagaiko neurria baita.

Helburua da isurketa gutxiko eremuak sortzeari edo horien funtzionamenduari laguntzea metropoli-inguruneetan, hiri-mugikortasun garbi, seguru eta inteligente bat lortze aldera.

Neurri horretako jarduketak 2021eko azaroaren 5eko Garraio Konferentzia Nazionalean onetsi ziren. 2021-2025 epealdirako aurreikuspena da guztira 27,53 milioi inbertitzea, Iruñeko eta inguruan duen eskualdeko bizikleta-bideen eta/edo oinezkoentzakoaren sarea burutzeko, lotuneak eginez eta ibilbideak ugarituz eta hobetuz; halaber, ibilgailu pribatuzko joan-etorriak garraio publikozkoekin ordeztzea, disuasioko aparkalekuen edo garraio publikoan egindako hobekuntzen bitartez.

Aipatu ekintzak finantzatzeko aurreikusten diren SEEPeko funtsek 12,54 milioi egiten dute, eta 2021eko abenduan jaso ziren.

Aitorturiko betebeharrak 2,53 milioioiak ziren 2022ko abenduaren 31n.

Bidegorrirako obrak egitea toki-entitateei dagokie. Lurralde Kohesiorako Departamentuak eraikuntza-proiektuak kontratatzen ditu, eta toki-entitateei eskueran ipintzen dizkie. Horiekin lankidetzak hitzarmenak sinatuko ditu. Toki-entitateek egin diren jarduketan eta jasotako funtsen exekuzioaren frogagiriak prestatuko dituzte.

Departamentuak esparru-akordio bat lizitatu zuen, inbertsioei loturiko zerbitzuak Iruñerriko metropoli-aldean emateko, balio estimatua 826.379 eurokoa zeukana, BEZa kanpo. Lizitazio-iragarkia 2022ko maiatzaren 9an argitaratu zen kontratazio-atarian. Hauexek izan ziren kontraturiko zerbitzuak:

- Aholkularitza eta laguntza teknikoa, hainbat proiektutarako: bidegorrietarakoak, oinezkoentzako bideetarakoak, garraio publikoaren irisgarritasuna hobetzekoak eta disuasioko aparkalekuetarakoak.

- Toki-entitateei laguntza teknikoa ematea proiektuak exekutatzeko obrak koordinatu, horien segimendua egin eta horiek ikuskatzeko, horrek barne hartzen duela Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak ezarritako baldintzak betetzeko informazioa prestatzea.





Egiaztatu dugu ezen, oro har, esparru-akordioak bete egiten dituela Kontratazio Behatokiak SEEParen abaroan finantzatzen diren kontratueterako dituen gidetan ezarritako berezitasunak; hots, iruzur-arriskuaren ebaluazioa, funtsen hartzailea identifikatzeko betebeharra, komunikazio-betebeharra eta interesik ezaren deklarazioa egitea. Halaber, pleguetan jaso dira ingurumena errespetatu beharra eta integritateari buruzko betebeharrak.

C1. 12. Pizgarri-plana, kargapuntu publiko eta pribatuak instalatzekoa, ibilgailu elektrikoak eta erregai-piladunak erostekoa eta elektromugikortasunaren, kargaren eta hidrogeno berdearen alorreko proiektu bereziei eta berrikuntzakoei bultzada emateko lerroei buruzkoa (MOVES III PLANA: mugikortasun efiziente eta jasangarria)

Plan hori kokaturik dago "hiri- eta landa-agenda, despopulaketaren aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena" 1. palankako ""mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana" 1. osagaian.

266/2021 Errege Dekretuak, apirilaren 13koak, onetsi zuen zuzenean laguntzak ematea autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melillako hiriei, SEEParen alorrean mugikortasun elektrikoari loturiko pizgarri-programak exekutatzeko aldera.

2023ko abendura bitartean aurreikusten diren Moves III planeko jarduketek 23,79 milioi egiten dute, eta honako hauek dira:

Jarduketak	Gastu aurreikusia	Betebehar onartuak		
		2021	2022	Guztira 2022/12/31
Ibilgailu elektrikoetarako eta karga-azpiegituretarako dirulaguntzak	20.950.000	229.739	2.220.548	2.450.287
Ibilgailu elektrikoaren erosketak	993.000	7.000	98.000	105.000
Karga-azpiegitureak	1.265.616	0	21.114	21.114
Laguntzak izapidetu eta ebaluatzeko langileria	577.818	4.457	0	4.457
Guztira	23.786.434	241.196	2.341.684	2.580.858

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari Moves III Plana exekutatzeko esleituriko funtsak 23,41 milioi egiten dute; esleituak izan ziren, eta 2021ean (5,57 milioi) eta 2022an (17,84 milioi) kobratu ziren.

2022ko abenduaren 31 bitartean esleituriko laguntzek, ibilgailu elektriko eta karga-azpiegituretarakoek, 2,45 milioi egiten dituzte. 2022ko abenduaren 31 arte





laguntza horietarako baimenduriko gastua 20,95 milioikoa da, eta honako deialdi hauei dagokie:

Xedea	Baimendutako zenbatekoa	Deialdiaren eta OOAAen onepena	NAOn argitaratzea
Mugikortasun elektrikorako pizgarriak	4.950.000	2021/07/06	2021/07/27
Mugikortasun elektrikorako pizgarriak: gehikuntza	16.000.000	2022/10/13	2022/10/21
Baimendutako guztizkoa	20.950.000		

Laguntza horiek honako aurrekontu-exekuzioa izan dute:

	2021	2022	2023	Guztira
Deialdian onetsitako gastu baimendua	1.000.000	19.500.000	450.000	20.950.000
Gastu baimendu kontabilizatua	229.739	20.125.136	450.000	20.804.875
Gastu konprometitua	229.739	2.220.548	0	2.450.287
Aitortutako betebeharra	229.739	2.220.548		2.450.287

Mugikortasun elektrikorako pizgarrietarako deialdiaren ebazpenean, zeina 2022ko uztailaren 6an onetsi baitzen, 4.950.000 euroko zenbatekoarekin, baimendu zen 1.000.000ko gastua egitea 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren kargura. Alabaina, 2021eko aurrekontuan, gastu baimendua 229.739 eurokoa izan zen.

2021 eta 2022ko ekitaldietan zehar, laguntzak emateko 11 ebazpen onetsi dira, guztizko zenbatekoa 13.826.962 eurokoa daukatenak; baina konprometitu diren gastuek 2.450.287 euro bakarrik egiten dute.

Laguntza horiek banakako ebaluazioko prozeduraren bitartez esleitzen dira.

C2. 11. Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta sozialerako etxebizitza-zaharberritze programa

Plan hori kokaturik dago "hiri- eta landa-agenda, despopulaketaren aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena" 1. palankako ""mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana" 1. osagaian.

853/2021 Errege Dekretuak, urriaren 5ekoak, zeinaren bidez arautzen baitira bizitegi-zaharberritzerako eta etxebizitza sozialeko programak, honako jarduketa hauek jasotzen ditu, besteak beste: auzo- nahiz eraikin-mailako zaharberritzea, zaharberritze-bulegoak, etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzea, dagoen eraikinaren liburua egitea eta zaharberritze-proiektuen idazketa.

Programa horietan, exekutatzeko-entitatea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua da, eta asmo du horiek exekutatzeko 60.996.000 euroko guztizko zenbatekoa duten dirulaguntzak emanaz 2022-2026 epean; 47.196.000, zaharberritze babesturako, eta 13.800.000, errentamendu babesturako.





2022ko abenduaren 31ra bitartean, laguntza horiek honako aurrekontu-exekuzioa zeukaten:

Osagaia	Programaren izena (behin-behinekoa)	Diru-sarrerak		Gastuak		
		Finantzaketa aurreikusia 2020-2023	AEG 2021+2022	Gastu aurreikusia	Baimendua, 2022etik 2026ra	ABG 2020+2021+ 2022
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hariak berronertzeko plana	Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta sozialerako zaharberritzea (zaharberritze babestua)	47.196.000	25.467.900	47.196.000	32.550.000	1.126.256
	Eraikin energetikoki efizientetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzea (errentamendu babestua).	13.800.000	6.900.000	13.800.000	0	0
Guztira		60.996.000	32.367.9003 2.367.900	60.996.000	32.550.000	1.126.256

2022eko abenduaren 31ra bitartean aitortuta eta kobratuta dauden eskubideek 32,37 milioi egiten dute: 25,47 milioi, zaharberritze babesturako, eta 6,9 milioi, errentamendu babesturako.

2022ko abenduaren 31ra bitartean, 32,55 milioi egiten duten kredituak baimendu dira 2022tik 2026ra bitarteko eperako (2022an, 1,55), eta guztira 1,13 milioi egiten duten laguntzak esleitu dira (milioi bat, etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko; 0,13 milioi, dagoen eraikinaren liburua egiteko).

Zaharberritze babesturako laguntzen deialdiak honako hauek izan dira:

Xedea	Gastu baimendu onetsia	Deialdiaren eta OOAren onepena	NAOn argitaratzea	Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratua
Bizitegi-inguruneetako eraikinen energia-birgaikuntza	10.000.000	2022/05/25	2022/06/20	2022/09/22
Eraikinetako energia-birgaikuntza	10.000.000	2022/03/04	2022/03/31	2022/09/22 Ez dago jasota
	10.000.000	2022/12/19	2023/01/05	
Etxebizitzetan efizientzia energetikoa hobetzea	1.000.000	2022/02/24	2022/03/28	2022/09/22 Ez dago jasota
	1.000.000	2022/12/07	2023/01/10	
Dagoen eraikinaren liburua egitea	250.000	2022/02/28	2022/03/28	2022/09/21
Eraikin-zaharberritze integralerako proiektu teknikoak idaztea	300.000	2022/06/02	2022/07/01	2022/09/22
Baimendutako gastuak, guztira	32.550.000			

Laguntza horiek guztiak esleitzeko prozedura banakako ebaluazioa da.





Laguntza horiek honako aurrekontu-exekuzioa izan dute:

	2022	2023	2024	2025	Guztira
Deialdian onetsitako gastu baimendua	1.550.000	6.000.000	22.000.000	3.000.000	32.550.000
Gastu baimendu kontabilizatua	1.550.000	6.000.000	22.000.000	3.000.000	32.550.000
Gastu konprometitua	1.126.256	0	0	0	1.126.256
Aitortutako betebeharra	1.126.256	0			1.126.256

2022ko azaroan, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuan dirulaguntzak kudeatzeko aplikazio informatikoa ez zegoen zeharo operatibo.



3. eranskina. 2022ko abenduaren 31ra bitarteko exekuzioa, departam- tuka

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	2020-2023 eperako au- rreikusitako finantzaketa	AEG 2020-2022	ABG 2020 - 2022
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arreta integrala emateko Zerbitzua sortzea.	1.306.712	1.306.712	7.891
Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua, guztizkoa		1.306.712	1.306.712	7.891

Lurralde Kohesiorako Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusi- tako finan- tzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020 - 2022
C01-Hiri- eta metropoli-inguru- neetako mugikortasun jasanga- rri, seguru eta konektaturako talka-plana	Isurketa gutxiko eremua. Metropoli- inguruneetako mugikortasun jasan- garri, seguru eta konektatua.	12.540.934	12.540.934	2.530.030
C05-Itsasertzaren eta ur bali- bideen babesa	Udalerri txiki eta ertainetako saree- tan hornidura hobetzea eta galerak murriztea.	3.153.155	3.153.155	0
C05-Itsasertzaren eta ur bali- bideen babesa	Uraren zikloaren digitalizazioa	1.882.140	1.882.140	0
C06-Mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatua	Garraio jasangarria	1.532.781	1.532.781	0
C06-Mugikortasun jasangarri, se- guru eta konektatua	Garraio jasangarri eta digitalerako la- guntza. ETEak digitalizatzea	1.535.695	1.535.695	0
Lurralde Kohesiorako Departamentua, guztizkoa		20.644.705	20.644.705	2.530.030





Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020-2022	ABG 2020-2022
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	Bizitegi-inguruneetako suspertze ekonomiko eta soziale-rako zaharberritze-programa (zaharberritze babestua).	47.196.000	25.467.900	1.126.256
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	Eraikin energetikoki efiziente-etan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitze programara (errentamendu babestua).	13.800.000	6.900.000	0
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	Eraikinen Energia-birgaikuntzarako Programa (EEbP)	22.125.000	22.125.000	1.267
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	Energia-birgaikuntza, 5000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta guneetan dauden eraikineterakoa (EEbP 5000 programa)	3.415.000	1.707.500	0
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	PIREP-Casa Ascunce	445.276	445.276	0
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	PIREP-Robotika Zentroa	1.625.213	1.625.212	0
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Ekintzailletza eta mikroenpresa (Ekialdeko Pirinioen Suspendte Ekonomikorako Plana)	3.000.000	3.000.000	1.396.332
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berronertzeko plana	PIREP-Rozalejoko markesaren jauregia	1.517.911	1.517.911	72.001
Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua, guztira		93.124.400	62.788.799800	2.595.8562.595.8565





Hezkuntza Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020-2022	ABG 2020-2022
C19-Gaitasun Digmaletarako Plan Nazionala (digital skills)	IkasNOVA Hezkuntza-digitalizazio- ziorako Plana- GAITASUNA (#ComDigEdu)	4.837.505	4.837.505	4.403
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	Lanbide Heziketa modernizazio- zeko plana. Lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzea	7.896.435	7.896.435	747.475
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	Lanbide Heziketa modernizazio- zeko plana. Reskilling eta upskilling	3.358.068	3.358.068	14.708
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	ATECA ikasgelak. Ikasgelak teknologia aplikatuko gune bihurtzea	702.695	702.695	526.926
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	Lanbide Heziketako irakasleei digitalizazio- eta jasangarritasun-alorretako prestakuntza ematea	89.962	89.962	59.777
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	IkasNOVA Hezkuntza-digitalizazio- ziorako Plana- EKIPAMENDUA (#ComDigEdu)	12.221.332	14.212.878	0
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	Lanbide Heziketa modernizazio- zeko plana. Ekintzaitzarako ikasgelak.	265.000	265.000	97.413
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	Lanbide Heziketa modernizazio- zeko plana. Ziklo elebidunak.	6.885.000	6.885.000	375.949
C20-Lanbide Heziketari bultzada emateko Plan estrategikoa	Lanbide Heziketa modernizazio- zeko plana. Lanbide Heziketako eskaintza tamainaberritzea	5.610.749	5.610.749	1.378.808
C21-Hezkuntza-sistemaren modernizazio eta digitalizazioa, barne dela 0-3 urtekoen hezkuntza goiztiarra	Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan eskolatzeari bultzada emateko Programa	11.971.158	9.550.777	337.776
C21-Hezkuntza-sistemaren modernizazio eta digitalizazioa, barne dela 0-3 urtekoen hezkuntza goiztiarra	Proa+, hezkuntza-arloko orientazio, aurrerakada eta aberasteko programa	7.204.065	4.499.591	248.825
C21-Hezkuntza-sistemaren modernizazio eta digitalizazioa, barne dela 0-3 urtekoen hezkuntza goiztiarra	Akonpainamendu-unitateak	1.544.891	854.586	419.505
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren hartzaile diren pertsonen gizaratze-ibilbideak garatu eta ebaluatzea	2.280.000	2.255.868	0
C19-Gaitasun Digmaletarako Plan Nazionala (digital skills)	Gaitasun-zentro nazionalen sarea sortzea	309.100	0	0
C19-Gaitasun Digmaletarako Plan Nazionala (digital skills)	IkasNOVA - EKIPAMENDUA (#EcoDigEdu) Gailu eramangarrien hornikuntza	1.709.503	0	0





C19-Gaitasun Digitaletarako Plan Nazionala (digital skills)	IkasNOVA - EKIPAMENDUA (#EcoDigEdu) Gaitasunak eskuratzeko prestakuntzak eta ikastetxetako ikasgela digitaletarako euskarriak	282.043	0	0
Hezkuntza Departamentua, guztira		67.167.5067	61.019.115	4.211.5654



Osasun Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusi- tako finan- tzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020-2022
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	C11.I03-4. Autonomia-erkidegoetako administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa: osasuna	4.582.885	1.394.791	0
C18-Osasun sistema nazionala eraberritzea eta haren ahalmenak handitzea	Goi Teknologiako Ekipamenduetako Inbertsioa (GTEI)	15.340.851	15.340.851	9.591.588
C18-Osasun sistema nazionala eraberritzea eta haren ahalmenak handitzea	Informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina, Nafarroan umetokiaren le-poko minbizia goiz detektatzeko po-pulazio-programari buruzkoa	113.379	73.346	0
C18-Osasun sistema nazionala eraberritzea eta haren ahalmenak handitzea	Nafarroan minbizi kolorrektala goiz detektatzeko programarako erakar-tze aktiboa, gonbidapen pertsonali-zatuaren bitartezkoa	103.351	62.015	0
C18-Osasun sistema nazionala eraberritzea eta haren ahalmenak handitzea	Osasun publikoko zaintza-sarearen informazio-sistema (Argos, Inmunis eta minbiziaren zaintza-sareak)	476.545	476.546	0
C18-Osasun sistema nazionala eraberritzea eta haren ahalmenak handitzea	Etengabeko prestakuntzako planen abaroen profesional sanitarioei prestakuntza ematea	268.203	174.352	17.227
Osasun Departamentua, guztira		20.885.214	17.521.900	9.608.815





Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finan- tzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020 - 2022
C3-Nekazaritzako elika- gaien eta arrantzaren sis- tema eraldatzea inguru- men arloan eta digitalean	Animalien eta landarediaren osasunaren alorreko biosegur- tasun-baldintzak indartzea.	1.287.214	621.874	0
C3-Nekazaritzako elika- gaien eta arrantzaren sis- tema eraldatzea inguru- men arloan eta digitalean	Nekazaritzaren eta abeltzain- tzaren jasangarritasun eta lehi- akortasunari begira ustiategie- tan eginiko inbertsioetarako la- guntzak (III).	11.336.743	9.091.137	0
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehen- goratzea	Itsas eta lur biodibertsitatearen kontserbaziorako (I2) jarduke- tak (6)	1.190.920	1.365.500	0
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehen- goratzea	Biosfera-erreserbetako jard- uketak	861.956	861.956	0
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehen- goratzea	Linea elektrikoak aldatzea	1.306.677	1.306.677	0
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehen- goratzea	Ekosistemak lehengoratzeko eta azpiegitura berderako (I3) jarduketak (9)	4.725.000	4.725.000	57.315
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehen- goratzea	Baso-kudeaketa jasangarriko (I4) jarduketak (5)	3.700.000	3.525.420	201.611
C05-Itsasertzaren eta ur baliabideen babesa	Uholde-arriskura egokitzea	2.441.260	0	0
C12-Espainia 2030 Indus- tria Politika	Etxe-zaborren kudeaketa: pre- bentzio-neurriak, minimizazioa, bereizketa, berrerabilera eta birziklatzea.	7.432.696	7.432.696	25.337
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehen- goratzea	Bioekonomia. Oihan-aprobe- txamendua, abeltzaintza es- tentsiboa eta oihan-ekoizpen jasangarriak	1.192.294	0	0
C05-Itsasertzaren eta ur baliabideen babesa	Ebro ibaiaren erdiko tartean uholde-arriskuari aurre egi- teko jarduketak, Ebro Resili- ence strategiaren barrene- koak	4.000.000	0	0
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, guztira		39.474.760	39.474.760	284.263





Garapen Ekonomikorako Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020-2022
C01-Hiri- eta metropoli-inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana	Bidaiariak eta enpresen salgaiak garraiatzeko flotentzako laguntzak	2.945.686	6.771.691	0
C01-Hiri- eta metropoli-inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana	MOVES II Plana (2020)	2.215.707	2.215.707	1.411.344
C01-Hiri- eta metropoli-inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektaturako talka-plana	MOVES III Plana: dirulaguntzarako deialdiak	23.413.749	23.413.749	2.580.858
C04-Ekosistemen eta haien biodibertsitatearen kontserbazioa eta lehengoratztea	Meatzaritzak kalteturiko lurzoru eta eskualdeak lehengoratztea.	2.710.000	2.710.000	0
C07-Energia berriztagarrien hedapena eta integrazioa	Ekonomiaren sektore desberdinetan energia berriztagarri terminoak ezartzeko pizgarrien programak	3.140.952	3.140.952	0
C07-Energia berriztagarrien hedapena eta integrazioa	Energia berriztagarriko iturrien bitartezko autokontsumorako instalazioak	19.467.646	19.469.290	1.140.361
C08-Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunen sustapena eta malgutasunaren eta billegiratzearen hedapena	Energia berriztagarriko iturrien bitartezko autokontsumorako instalazioetan billegiratzea ahalbidetzea	5.003.950	5.002.306	38.274
C13-ETEEi bultzada ematea	Komertzioa modernizatzeko programa: Funts Teknologikoa	1.522.768	761.384	0
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	Helmugako turismo-jasangarritasunerako 5 Plan: Estellerria, Erdialdea, Zangozerrria eta Pirinioaurrea, Pirinioak eta Baztan Bidasoa	27.280.000	0	0
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	"Landa Nafarroa" helmuga-kohe-siorako jarduketak	10.985.000	10.985.000	236.130
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasunerako plana	"Iruña SF365" helmugako turismo-jasangarritasunerako plana	5.492.500	5.492.500	5.492.500
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	"Nafarroako Erribera" helmugako turismo-jasangarritasunerako plana	5.492.500	5.492.500	5.492.500
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	Helmugetako turismo-jasangarritasunerako Xacobeo 2021 Plan Nazionala	5.830.000	5.830.000	0





Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusi- tako finan- tzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020-2022
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	Turismo-enpresen energia-efizientziako eta ekonomia zirkularrereko proiektuak.	3.706.370	3.706.370	0
C15-Konektibitate digitala, zibersegurtasunaren sustapena eta 5Garen hedapena	UNICO programa-Industria eta enpresak (industrialdeak)	1.386.000	840.000	0
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, guztira		120.592.828	95.831.449	16.391.968



Eskubide Sozialetako Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020 - 2022
C19-Gaitasun Digmaletarako Plan Nazionala (digital skills)	Enplegurako gaitasun digitalak.	2.195.905	1.784.174	755.560
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Egoitza-zentroetako sistema teknologikoak modernizatzea	1.383.050	250.000	25.954
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Egoitza soziosanitarioen eraberritzeak.	19.610.169	5.215.325	4.413.517
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Telelaguntza. Ingurunearen kontrolerako sistema digitalak.	7.798.225	2.199.082	1.604.002
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Laguntza-baliabideak eta eguneko egonaldiko baliabideak egokitzea babes-sistemako adingabeentzat eta bitarteko teknologiko hornitzea.	1.128.000	676.000	886.078
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Nafarroako historia sozial elektronikoa bateratua	3.430.000	1.000.000	280.365
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Menpekotasun eta zahartze-afektatutako ikerketarako institutua	300.000	100.000	0
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako inbertsio teknologikoa	3.040.000	1.065.000	57.425
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Familia-harrerari bultzada emateko erakartze- eta sentsibilizazio-plana	290.000	90.000	151.847
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Landa-berrikuntzako proiektuak, gizarte-zerbitzuen alorreko berrikuntzarekin zerikusia dutenak	1.400.000	261.700	0
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Sarean ikuspegi dialogikoz lan egitea	500.000	88.300	0
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Irigarritasun unibertsalaren alorreko ekintzak	335.868	50.000	61.219
C22-Talka-plana, zainketa-lanen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzekoa	Irigarritasun unibertsalerako inbertsioetarako deialdia.	637.548	637.548	95.196
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Gazte Enplegua. Lehenbiziko lanbide-esperientziak administrazio publikoetan.	1.569.482	1.569.482	1.004.295
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Emakumearen enplegua. Emakumeentzako laguntza, landa- nahiz hiri-inguruneetan.	1.892.465	1.766.301	0





Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020 - 2022
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Emakumearen enplegua. Prestakuntza- eta gizarteratze-programak, kontratazio-konpromisodunak, genero-indarkeriaren edo salerosketa eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeentzakoak	179.076	119.384	59.692
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Genero-transbertsaltasuna enplegu-politika aktibo guztietan	135.639	117.646	30.401
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Enplegurako gaitasun digitalen alorreko prestakuntza-premien detekzioa	21.261	14.174	7.087
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Talde bereziki zaurgarriak.	2.901.883	2.469.688	717.056
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailtza eta mikroenpresak.	4.976.985	4.199.331	2.560.000
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Enplegu Sistema Nazionaleko prestakuntza etengabea	109.849	74.414	18.380
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Orientazioa eta ekintzailtza. Orientazio eta Ekintzailtza Zentron Sarearen jarduerak	1.800.000	1.200.000	124.299
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Orientazioa eta ekintzailtza. Orientazio eta Ekintzailtza Zentron Sarea sortzea. Akonpainamendua eta enplegurako berrikuntza	2.200.000	1.490.000	292.148
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	AUNA proiektua. Inklusio-ibilbide integratuak. Proiektu pilotu berri-tzaile bat egiteko proiektua.	5.820.682	5.820.682	1.594.153
Eskubide Sozietako Departamentua, guztira		63.656.088	32.258.231	14.738.6743



Kultura eta Kirol Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020 - 2022	ABG 2020 - 2022
C14-Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	Turismo-erabileradun ondare historikoaren mantentze eta zaharberritzerako proiektu jasangarriak.	4.172.877	0	0
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Kultur azeleratzaileentzako laguntzak (KSI: Kultur eta Sormen Industriak)	352.469	211.262	90.299
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Hiriz kanpoko eremuetan kultur eskaintza zabalagotu eta dibertsifikatzeko laguntzak	724.650	362.325	0
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Liburutegiak hornitzea	201.954	201.954	0
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Arte eszeniko eta musikalen azpi-egiturak modernizatzea.	689.292	689.292	216.444
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Vianako Andre Maria elizako dorrearen goialdeko gorputza zaharberritzea	959.862	959.862	124.997
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Nafarroako Errege Artxibo Nagusikoak diren Estatuaren titulartasuneko dokumentuen deskribapen eta digitalizazioa.	37.694	24.996	30.231
C24-Kultur industriaren erreberlizazioa	Kultur ondareko eta Ondare Historikoaren Zerbitzuko ondasunen inbentarioaren deskribapen eta digitalizazioa.	99.174	80.000	79.981
C25-Espainia, Europako ikusentzunezko hub-a (Spain AVS Hub)	Zinema-aretoen titularrentzako laguntzak.	294.111	294.111	6.750
C26-Kirol-sektorearentzako sustapen-plana	Ariketa fisikoa eginarazteko plana.	253.386	253.386	0
C26-Kirol-sektorearentzako sustapen-plana	Kirol-instalazioak modernizatzea. Energia Kirola 2.0 Plana	711.542	711.542	0
C26-Kirol-sektorearentzako sustapen-plana	Kiroleko berdintasuna	595.851	462.700	0
Kultura eta Kirol Departamentua, guztira		9.092.862	4.251.430	548.701





Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020-2022	ABG 2020-2022
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 0 proiektua. Azpi-egitura digitalak	1.941.419	5.889.566	461.534
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 1 proiektua. Elkar-rreragingarritasuna. 1.A. apartatua. INTEROPERATIBITATEA	2.906.329	1.200.000	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 1 proiektua. Elkar-rreragingarritasuna. 1.B apartatua. SISTEMA-OPTIMIZAZIOA	248.473	0	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 2 proiektua. Datuetan oinarrituriko eta orientaturiko justizia.	600.000	600.000	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 4 proiektua. Zibersegurtasuna.	43.313	0	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 6 proiektua. Arartekogabetasun digitala.	417.460	0	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 7 proiektua. Testualizazioa.	900.000	0	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 8 proiektua. GEOM-Gatazka Ebazpenerako Ordezko Metodoak.	536.627	0	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Justizia 2030/ 9 proiektua. Erregistro Zibila.	681.608	0	0
Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua, guztizkoa		8.275.229	7.689.566	461.534






Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua

Osagaia	Izendapena (behin-behinekoa)	Aurreikusitako finantzaketa 2020-2023	AEG 2020-2022	ABG 2020 - 2022
C02-Etxebizitzak birgaitzeko eta hiriak berroneratzeko plana	PIREP-NUP Campus jasangarria	3.098.000	3.098.000	3.098.000
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	C11.I03-2. Autonomia-erkidegoetako administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa: Azpiegituren Zerbitzua. Cloud pribatu jasangarri bateranzko eboluzioa	2.590.300	2.134.512	0
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Autonomia-erkidegoetako administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa (1): DATUPNA	241.000	198.594	198.594
C11-Administrazio publikoak modernizatzea	Autonomia-erkidegoetako administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa (3): Aurrerapen Digitale-rako Zerbitzua	2.032.325	1.674.718	117.931
C15-Konektibitate digitala, zibersegurtasunaren sustapena eta 5Garen hedapena	UNICO programa- Belaunaldi berriko konektibitatea erreferentzia-zentro publikoetan.	2.085.000	2.085.000	47.371
C15-Konektibitate digitala, zibersegurtasunaren sustapena eta 5Garen hedapena	UNICO programa-Gizarte-bonua	128.640	104.000	0
C15-Konektibitate digitala, zibersegurtasunari bultzada ematea eta 5Garen hedapena	UNICO programa-Eraikinak (telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko ekintzak)	930.600	0	0
C17-Zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema nazionalaren erreforma instituzionala egitea eta haren ahalmenak indartzea	Energia eta Hidrogeno Berriztagarriaren Plan Osagarria.	5.418.485	5.418.485	882.767
C17-Zientzia, teknologia eta berrikuntza sistema nazionalaren erreforma instituzionala egitea eta haren ahalmenak indartzea	Autonomia-erkidegoekiko I+G+b plan osagarria. Programa: "NEKAZARITZA-ELIKAGAIK" Nafarroan	12.160.529	12.160.529	0
C19-Gaitasun Digitaletarako Plan Nazionala (digital skills)	Herritarrentzako gaitasun digitalen alorreko hastapenentarako prestakuntza-programa.	1.881.621	1.881.621	228.045
C23-Politika publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako	Gazte Enplegua. INVESTIGO ikerketa-programa	4.419.406	3.389.626	1.293.248
Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua, guztira		34.985.906	32.145.085	5.865.956





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

Behin-behineko txostena jasorik, NFKA-Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana inplementatze aldera hartu diren neurriei buruzkoa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ondoko ataletan biltzen diren alegazioak aurkezten ditu.

SEEParen inplementaziorako harturiko neurriei buruz egin nahi den ezein analisi ezin zaio itzuri ez kasuko arauak jartzen dituen zuzenbidezko mugarteari, ez eta eginiko txostenak aztergai hartzen duen unean NFKAren jardunak bizi duen egoera zehatzari ere. Horregatik, eta alegatzen diren gaiak hobekien argitzearren, idazki honek elementu horien deskribapen bat jasotzen du, alde zuzeneko zertzelada gisa, horietatik ezartzen baitituzte NFKAko organoek SEEParen exekuzioa dela-eta aurrera eramanez eta gaur egun ere eramanez jardunaren mugarteari luze-zabalak.

A - ALEGAZIOEN AURRETIAZKO ZERTZELADAK

SEEPa autonomia-erkidegoetan exekutatzeko jarraitu beharreko araubidea

SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana da Estatuko Administrazioak onetsitako bitartekoa, Europar Batasunak bere herrialde kideen jarduketak finantzatzeko aldera abian jarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak eskuratu ahal izateko. Plan horrek aipatzen du zer erreforma eta inbertsio egin behar diren aipatu funtsak jasotzeko.

Plan horren lehen zirriborroa 2020ko urrian igorri zitzaion Europako Batzordeari, eta horren behin betiko bertsioa 2021eko uztailan onetsi zen. Plana exekutatzeko aldera onetsi zen abenduaren 30eko 30/2020 Errege Lege-dekretua (ELd), zeinak neurri urgentiak jasotzen baititu, Administrazioa modernizatzekoak eta SEEPa exekutatzekoak, Planaren gobernantzarako ereduak ezarrita. 2021eko irailean HFP/1030/2021 Agindua onetsi zen, zeinak tankeratzen baitu Plana kudeatzeko sistema, bai eta HFP/1031/2021 Agindua ere, non jasotzen baita exekuzioaren segimendua egiteko ereduak.

SEEParen gobernantzarako ereduak ELd-aren III. Tituluan zehazten da, eta besteak beste honako gai hauek biltzen ditu:

- SEEParen izaera, edukia, prestaketa eta onespena (I. kapitulua).
- Gobernantza-egiturak: Suspertze Plana dela-eta Estatuko Administrazioak dituen organo zehatzak eta kudeatze- nahiz segimendu-mekanismoak (II. kapitulua).
- Kudeaketa publikoko tresnak: bertan jasotzen dira plangintza estrategikorako neurriak, giza baliabideetakoak, digitalizaziokoak eta bitarteko materialak, Estatuko Administrazioari aplikatzekoak (III. kapitulua).

Deskribaturiko gobernantza-eredua Estatuko Administrazioari aplikatzeko da, ez gainerako administrazio publikoei aplikatzeko: aipatzen dituen organoak, kasu guztietan, Estatu-alarrekoak dira, eta ez dago inolako aipamenik horren aplikazioa beste administrazio batzuetako organoetarako hedatzen duenik. Gainera, estatu-mailako gobernantza-ereduan jasotzen den plangintza estrategikoa ministerio-departamentu bakoitzerako egiten da (23. artikulua). Ez da planteatzen SEEParen plangintza globalik. Plan estrategikoa kasuko ministerioari esleituriko edo horrek kudeaturiko proiektuetatik abiatuz ziren egin behar izatekoak (23.2.a artikulua); eta, ELd-aren datan (2020ko abenduaren 30a), jadanik ezagun zitzaizkion ministerio bakoitzari, ordurako onetsita eta Europako Batzordeari bidalita zegoenez Suspertze Planaren zirriborroa. Ministerioek bi hilabete zeuzkaten plan estrategiko horiek prestatzeko.





Esleituriko jarduketan eta proiektuen multzoari erreparatuta, plan horiek honakoak jaso behar zituzten:

- Europako funtsak eskuratzeari uztarturik, kudeatu beharreko inbertsio eta gastuen estimazioa (gastu horiek finantzatuko dira jaso beharreko diru-sarrerekin).
- Helburuak eta jarduketak, halako moldez non beharrezkoak diren eginkizunak eta lan-zamak esplikatu baitituzte, eta/edo horien gorakada.
- Departamentuaren baliabideak berrantolatzeke proposamena, eta, kasua bada, adierazitako lan-zamak direla-eta giza eta gauza-baliabideetarako premiak areagotzea.
- Jarduna kudeatzeaz arduraturiko unitateetako langileriaren prestakuntza-beharrizanak.

Plangintza estrategiko horri buruz, honako nabarmendu beharra dago:

- Ministerio-mailan egiten da, ez maila globalean; izan ere, plan-inplementazioa dagokio baliabide-kudeaketaren alorreko ministerio-eskumenak dituenari (idazkariordea) (23.5 artikulua). Horrenbestez, ministerio-maila da egokia plan estrategiko honen helbururako, zeina baita baliabide-esleipen efizientea egitea, ekintzak exekutatu egiten direla bermatzeko.
- SEEPean jasotako ekintza guztiak, ministerioari dagozkionak, aurrera eramateko beharrezkoak dren baliabideak jasotzen ditu.

ELd-an, autonomia-erkidegoak ez dira ia aipatu ere egiten, salbu eta berriazko konferentzia sektorial bat eratzeari dagokionez (19. artikulua), xede duena autonomia-erkidegoek planeko proiektuetan duten parte-hartzea bideratzea. Halaber aipatuak dira haien artean banatzekoak diren kredituen aurrekontu-exekuzio izapidetze-berezitasunei dagokienez.

HFP/1030/2021 Aginduari dagokionez, arau horrek kudeaketa-sistema bat tankeratzen eta garatzen du, halakoa zeinak xede baitauka Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko osagaietan aurreikusitako neurriak (erreformak/inbertsioak) gauzatzen dituzten proiektu eta azpiproiektuak definitu, planifikatu, exekutatu, segitu eta kontrolatzea. Garrantzitsua da jasotzen duen eginkizun- eta erantzukizun-esleipenerako eskema aipatzea. Horri buruzko argigarriak Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak eman zituen, apirilaren 12ko 1/2022 Ebazpenaren bidez.


Erabaki-entitatea: SEEPean aurrekontu-zuzkidura duen entitatea, erreformen eta inbertsioen plangintza eta segimendua egiteaz eta horien mugarrak eta helburuak betetzeaz erantzukizuna duena. Erabaki-entitateak dira osagaien ardura duten ministerio-departamentuak.

Exekutaze-entitatea: honi dagokio kasuko erreforma eta inbertsioetako proiektu edo azpiproiektuak exekutatzea, bere eskumenean esparruan eta erabaki-entitatearen irizpide eta gidalerroei jarraikiz. Proiektuen exekutaze-entitate dira ministerioetako departamentuak eta Estatuko Administrazio Orokorreko entitateak; eta, azpiproiektuen kasuan, horiek dira ministerioetako departamentuak, Estatuko Administrazio Orokorreko nahiz autonomi eta toki administrazioetako entitateak, eta sektore publikoko beste parte-hartzaile batzuk.

Aginduak aipatzen duen "exekutaze-entitate" kontzeptu horrek zalantza franko sortu zuen autonomi eta toki administrazioetan, eta horregatik azalpen argigarria eskaini zuen apirilaren 12ko 1/2022 Ebazpenak, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiarenak (agintaritza hori da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren gaineko erantzukizuna duena). Ebazpen horrek ezartzen du ezen, autonomia erkidegoen esparruan, SEEParen exekutaze-entitate direla kontseilaritza autonomikoak edo horren pareko departamentu-erakundeak.

Deskribaturiko eskemari jarraikiz, eta HFP/1030/2021 Aginduaren 3. artikuluan jasotzen denaren arabera, Osagai-mailan planak ezartzen dituen helburuetatik abiatu erabaki-entitateek proiektuak definitu eta mugarrak nahiz helburuak esleitu behar dituzte. Printzipioz, horiek ministerioaren beraren erantzukizunpean daude, definituriko proiektu bakoitzaren exekutaze-entitate gisa. Une horretatik aurrera, proiektu bakoitza bere funtzionamendu-dinamika propioarekin hasten da exekutatu izaten, eta ministerioak, exekutaze-entitate gisa, zilegi du





"azpiproiektuak" sortzea, bereak ez diren beste entitate batzuek exekutatu dituztenak, mugarrari eta helburuak betetzearen konpromisoari helduz eta horretarako baliabide ekonomikoak jasoz. "Azpiproiektu" baten inguruan era horretan tankeraturiko "exekutatzeko-entitate" batek, bere aldetik zilegi du, halaber, beste "azpiproiektu" batzuk sortzea, beste entitate publiko batzuek exekutatu dituztenak; horrenbestez, sakonera aldakorreko "azpiproiektu"-egitura bat suerta daiteke.

Funtzionamendurako arau-antolaera honetan, plana ez da erkidegoka globalki esleitzen, baizik eta ministerio bakoitzak, proiektu bateko "exekutatzeko-entitate" den aldetik, autonomia-erkidegoetako departamentuekin aldebiko harremanak ezartzen ditu definitzen dituen azpiproiektuen exekuziorako, egokiak iruditzen zaizkion unean eta luze-zabalean. Are ministerionahiz departamentu-mailako esleipen globalik ere ez dago, azpiproiektu bakoitza proiektu batekiko erreferentziarekin eta gainerako proiektuetatik bereizita tankeratzen baita, berdin diola guztiak ministerio beretik sortuak izatea. Gerta daiteke departamentu berean topo egitea ministerio desberdinetatik datozen azpiproiektuak, zeren eta egitura organikoa taxutzen duten irizpideak ez baitira berberak Estatuko Administrazioan eta NFKAn.

Testuinguru horretan, zentzugabea siuertatzen da "plan erregional" bati buruz mintzatzea, modu zentralizatuan planifikatua eta ordenatua izateko modukoa litzatekeena. Izan ere, azpiproiektu desberdinak dira, gehitze hutsez, NFKAren jardun-esparrua osatzen dutenak. Baina azpiproiektu bakoitzaren edukiari, epeei eta finantzaketari buruzko erabakiak kasuko Ministerioak hartu ditu, halako moldez non departamentuaren parte-hartzea, inolakoa izatekotan, lokalizazioak seinaltzekoa edo bere erabaki-esparruaren barreneko kudeatze-tresnak erabakitzekoa izatera mugatzen baita.

Administrazio publikoen jarduketek SEEPean daukaten integrazioak dimentsio bertikala du, ekintzen segimendu eta kontrolari dagokienez. Europar Batasuneko araudian jasotzen den bezala, funtsak eskuratu ahal izateko baldintza nagusia da kasuan kasuko plan nazionalen zehazturiko mugarrari eta helburuak betetzea. SEEParen kasuan, betetze hori egiaztatzen da exekutatzeko-entitate desberdinek integrazio bertikaleko eskema batean egiten dituzten ekarpenetan oinarriturik; alegia: proiektu bakoitzetik abiatuta sorturiko maila desberdinetako azpiproiektuzko egitura osoa kontuan harturik. Ezarritako kudeaketa-eskemarekin, SEEPa betetzen da planean bertan ezarritako terminoetan: ez dauka zentzurik administrazio zehatz baterako; ez eta, are, bere ardurapean zenbait azpiproiektu dituen exekutatzeko-entitate baterako. Izan ere, gerta daiteke azpiproiektu bateko helburuen betetzea zeren baitan eta bai erantzukizuna bai baliabideak eskuratu zaizkien beste entitate batzuen jarduketan baitan egotea.

SEEParen exekuzioari buruzko edozein analisitarako munta ukaezinekoa den beste ondorio bat zera da: SEEParen betetzea mugarrari eta helburuen betetzearen arabera neurtzen den heinean, eta mugarrari nahiz helburu horien esleipena beste exekutatzeko-entitate batzuen esku utzia izan daitekeen heinean –exekutatzeko-entitateak esleituriko baliabideekin batera–, aurrekontu-exekuzioa adierazle oso badaezpadakoa izan daitekeela planaren aurrerakadaren norainokoaren berri izateko. Esate baterako, Estatuko gastu-aurrekontuaren exekuzioa aintzat harturik, SEEPak betetze-maila altua leukake, jadanik baliabide aurreikusien parte oso muntaduna transferitu baitzaie beste administrazio batzuei (autonomia erkidego nahiz toki entitateei). Errealitatean, baina, gainerako administrazioek ezin izan dituzte exekutatu, eta kasu batzuetan exekuzio-epea 2026ra artekoa da.

SEEParen garapenaren bilakaera

HFP/1030/2021 Aginduan jasotako kudeaketa-eskematik abiatuta, SEEPaz Estatuko Administrazio organoek egindako garatze-lana honako honetan gauzatu da:

- Proiektuen exekutatzeko-entitate diren ministerioek azpiproiektuak tankeratu eta sortu dituzte denboran zehar, horretarako konferentzia sektorialak eginez funts-banaketako irizpideak ezartze aldera, eta NFKAko departamentuak harturiko konpromisoak zehazten dituzten tresnak (hitzarmenak) formalizatu.





- Funts Idazkaritza Nagusiak, betiere HFP/1031/2022 Aginduaren 11. artikuluan jasotako aginduari jarraikiz, CoFFEE sistema informatikoa garatu du, SEEPeko neurrietako mugari eta helburuen betetzeaz eta neurri horien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaz segimendua egitekoa. Sistema hori eratu da SEEParen exekuzioan partaidetza duten eragile desberdinei erraztearren horren koordinazioa eta segimendua egitea, eta erantzuna emanez plangintza, kudeaketa, kontrol eta kontu-ematearen alorreko premiei. Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-mailetako sektore publikoko entitate guztiek nahitaez eman beharreko informazio horren edukia HFP/1031/2021 Aginduak definitzen du, eta jasotzen ditu bai proiektuen egitura eta horien azpiproiektu-xehakapena, bai idazpen-mailako kontabilitate-exekuzioari buruzko informazioa, eta mugari eta helburuen betetze-maila.

Halatan, SEEParen gauzatzeak kontzeptualki zeharo bereizten diren bi funtzionamendu-dinamikari erantzuten die: batetik, proiektuetako exekutatzeko-entitateek, autonomia-erkidegoetako departamentuekiko aldebiko harremanen bitartez, definitzen dute harietara eragiten dieten azpiproiektuen edukia, eta lortu beharreko emaitzak, epeak eta eskuratzen zaizkien baliabideak seinalatzen dituzte; bestetik, Funts Idazkaritza Nagusiak euskarri-sistema informatikoa garatzen du, non jasota utzi beharko baitira definituriko azpiproiektuak eta horietako bakoitzari dagokion segimendu-informazioa, hala kontabilitate-izaerakoa nola espezifikoa, zeina baita azpiproiektu bakoitzeko mugari eta helburu propioei buruzkoa.

Ministerioak ELd-an aurreikusitako jarduerak aurrera eramaten jardun dira: 2021az geroztik, denboran zehar konferentzia sektorialak egin dira, eta kasuko kudeatze-tresnak formalizatu dira, beraietatik abiatuta funts aurreikusiak jasotzea ahalbidetu dutenak. Alabaina, 2022an ipini da CoFFEE sistema autonomia-erkidegoen eskueran haien azpiproiektuen garapen eta plangintzarako, irisgarritasun- eta funtzionamendu-problema askorekin. Gaur den egunean, azpiproiektuen araberrako jarduketak zehazteko lanari ekin zaio, azpiproiektuak iristen ari diren heinean. Azpiproiektu eta jarduketaren garapen eta plangintza bakoitzak beharrezko du kasuko ministerioak balidazioa eman diezaiola.

Begi-bistakoa da SEEParen bilakaerak oinarri dituen bi funtzionamendu-dinamika horien arteko edozein hutsegite edo doigabetasunek ezinbestean eragina izanen duela exekutatzeko-entitateek harturiko konpromisoen betetzean, ezen azpiproiektuek zertzelada guztiak entitate horientzat zehaztuta behar dituzte izan, bai ikuspegi kontzeptualetik bai operatibotik.

NFKAk harturiko neurrien erreferentzia-mugartea deskribatu ondoren, honako alegazio hauek aurkezten dira, behin-behineko txostenaren orrialdeak aipatuta.

B- ALEGAZIOAK

B.1.- CoFFEE-SEM (9. orrialdea).

CoFFEE-SEM da HFP/1031/2021 Aginduan ezartzen den tresna bat, kudeatze- eta segimendu-lana egiteko neurri eta proiektuei, mugari eta helburuei eta proiektuekin lotura duten gastuen kontabilitate- eta aurrekontu-exekuzioari dagokienez.

2022ko azaroaren 30ean, CoFFEE-MRR ez zegoen oraindik erabat operatibo autonomia-erkidegoentzat. Tresna hori funtsezkoa da SEEPeko azpiproiektuen kudeaketarako eta, batez ere, mugari eta helburuen betetzearen segimendu-lana egiteko, betetze hori funtsak helarazteko baldintza nahitaezkoa izaki.

Baiki, CoFFEE-SEM tresna funtsezkoa da SEEPeko azpiproiektuen kudeaketa eta segimendurako. Baina esatea ezen 2022ko azaroaren 30ean CoFFEE-MRR ez zegoela oraindik "erabat operatibo autonomia-erkidegoentzat", ez da zorrotza.

Errealitatea da fiskalizazioaren denbora-mugarrean (2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko maiatzaren 31ra artekoa) CoFFEE-SEM ez zegoela ezertan ere operatibo autonomia-erkidegoentzat,

SEEPeko azpiproiektuen kudeaketa eta segimendurako funts-funtsezkoa den tresna horren erabateko inoperatibitatea ez da behar adina aintzat hartzen behin-behineko txosten honen luze-zabalean.





Fiskalizazioaren denbora-mugartea oso gainduta zegoelarik, 2022ko abenduaren erdialdean eta 2023. urtearen hasiera-aldean, Estatuako Administrazio Orokorra azpiproiektuak esleitzen hasi zitzairen NFKAko exekutatzeko-entitateei (departamentuei), zirriborro-egoeran zuek eta tantaz tantako moduan, bai eta haren proiektuetako mugarri edo helburuak ere, gero azpiproiektu-mailako kudeatze-mugarri eta -helburuetan deskonposatzeko.

Dokumentu honen datan, Estatuako Administrazio Orokorra oraindik eginkizun dauka NFKAri esleitu beharreko azpiproiektuen parte handi bat CoFFEE-SEM-en sortzea, eta oraindik ezezaguna da HFP/1031/2021 Aginduan aurreikusita dauden komunikazio elektronikoko zerbitzuen garapena.

Xehetasun gehiago, alegazio hauen B.5 apartatuan.

B.2.- Azpiproiektu-bideak (9. orrialdea).

SEEPeko maila autonomikoko inbertsio-azpiproiektuak honako bide hauetatik exekutatzeko dira:

- *Estatutik autonomia-erkidegoei funts-transferentziak egitea, haiek beren eskumen-esparruan proiektuak kudeatzeko.*
- *Ekonomia Susperitu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak (ESEPE). ESEPEak lankidetzaren publiko-pribatuko mekanismo berri bat dira.*
- *Estatuak zuzenean kudeatutako programak.*

Autonomia-erkidegoek ez dute eskumenik ESEPEen exekuzioan, ez eta Estatuak zuzenean kudeaturiko programetan ere. Erkidegoetan, Estatuak erabakitzen eta haien eskumen-eremu propioari dagokiona baizik ez da kudeatzen. Maila autonomikoko inbertsio-azpiproiektuak exekutatzeko bide gisa aintzat hartzen badira ESEPEak eta Estatutik zuzenean kudeaturiko programak, litekeena da nahasmendua sortzea autonomia-erkidegoek Susperitze Planaren exekuzioan esleituta daukaten zereginari buruz.

B.3.- Autonomia-erkidegoei funtsak esleitzea (9. orrialdea).

Funts-transferentzietan dagokienez, Estatuak autonomia-erkidegoei SEEPeko baliabideak esleitzen dizkie ministerio eskudunek eta autonomia-erkidego guztiek parte hartzen duten konferentzia sektorialetan.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 147. eta 148. artikuluek honako hau xedatzen dute:

147. artikulua - Konferentzia Sektorialak.

1- Konferentzia Sektoriala lankidetzarako, alde anitzeko adoste-lanerako eta esparru sektorial jakin baterako organoa da, zeinaren lehendakari baita Estatuako Administrazio Orokorra ordezkatuz gaiaren arabera eskudun den Gobernuaren kidea, eta horren baliokide diren gobernu-kontseiluekideak, autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melillako hirien ordezkari gisa jardunez.

148. Konferentzia Sektorialeko eginkizunak.

2.f) Aurrekontu-kredituen lurralde-banaketarako oinarri gisa hartzeko modukoak diren irizpide objektiboak ezartzea, bai eta horien banaketa ere ekitaldi ekonomikoaren hasieran, azaroaren 26ko 47/2003 Legeak xedatuari jarraikiz.

Konferentzia Sektorialeko kredituen lurralde-banaketarako irizpideak onesten dituzte, baina transferentzien exekuzioa egiten da 36/2021 ELd-aren 44. artikuluan adierazten duenari heldurik, hau da: Aurrekontu Lege Orokorren 148. artikuluan ezarritako erregelari jarraituz. Lau garren Erregelak honakoa dio:

Konferentzia Sektorialak kreditu-banaketa adostu ondoren, Estatuako Administrazio Orokorreko organo eskudunei edo haren menpeko erakundeei dagokie finantza-konpromisoak formalizatzeko tresna juridikoak, hitzarmenak edo ebazpenak, sinatzea edo onestea.

Horrenbestez, funts-esleipena konferentzia sektorialetan egiten da, baina transferentzia horien biderapenerako tresna juridikoak –zeinek, nabaria denez, funts-jasotzearen baldintzak barne hartzen baitituzte (zertarako erabiliko diren, epeak, justifikazioak eta abar)– alde bikoitasuna daukate izaeratzat (ministerioa-departamentua).

B.4.- Azpiproiektu-bideak (9. orrialdea).





Azpiroiectu bat autonomia-erkidego bati esleitzeak berarekin loturik dakar diru-baliabideak transferitzea eta exekutatzeko-entitateak konpromisoa hartzea mugari eta helburuak betetzeko.

Funts-transferentzien helduleku diren tresna juridikoek ez dute azpiroiectua zedarritzen, eta helburuak ez dira beti zehaztuta egoten. SEEParen garapenari buruzko A2 apartatuan jadanik esan den bezala, funts-transferentziak kasuko azpiroiectuaren edo azpiroiectuen zedarrizzerik gabe egin dira. CoFFEE tresna informatikoan azpiroiectuen definizioa 2022ko abendutik aurrera abiatu da, eta ez da zeharo bat etortzen berehalakoak ziren funtzionamendu-premiei erantzute aldera egin zen kontabilitate-zedarritzearekin. Gaur den egunean, oraindik ere badaude azpiroiectu-definiziorik gabe jaso diren transferentziak.

B.5.- NFKAri esleitu zaizkion SEEPeko azpiroiectuak (9. orrialdea).

2022ko abenduaren 31n, NFKAk 118 azpiroiectu zeuzkan esleituta (...).


Dokumentu honen B.1 apartatuan azaldutakoaren ildotik, goiko baieztapen hori ez da zorrotza.

Txostenak aipatzen dituen 2022ko abenduaren 31ra bitarteko 118 azpiroiectuak ez dira SEEParen araberrako azpiroiectu-zerrenda bat, baizik eta barne-erabilerarako kudeaketa-zerrenda behin-behineko bat, funtzionamendurako eta informazio publikorako premia berehalakoei erantzutetokoa, eta NFKAko departamentuei esleitu zaizkien SEEPeko azpiroiectuen norainokoa Estatuko Administrazio Orokorrak denboran zehar ezarri eta definitzearen baitakoa, betiere.

Zerrenda hori etengabeko bilakaeran dago, eta 2023ko martxoaren 13ra bitartean, 121 azpiroiectu/behin-behineko jarduketakoa da, zeinen gaineko segimendua egiten ari baita SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzua. Horiek ez daukate korrespondentzia unibokorik CoFFEEko azpiroiectuekin, zeinen bana-banako norainokoa Estatuko Administrazio Orokorrak erabakiko baitu denboran zehar. Zehazki:

- Horietako seik, 53 milioi euroko finantzaketa bildurik, ez daukate oraindik SEEP azpiroiectuaren lokalizatzailerik CoFFEEen (ezta behin-behinekoz ere).
- Horietako 68, 244 milioi euroko finantzaketa bildurik, CoFFEEko "behin-behineko" lokalizatzaile batekin daude uztarturik.
- Horietako 47, 185 milioi euroko finantzaketa bildurik, CoFFEEko "behin betiko" lokalizatzaile batekin daude uztarturik.

Era berean, eta beste maila batean, 2019ko martxoaren 13ra bitartean SEEP azpiroiectuaren 89 lokalizatzaile daude CoFFEEen, barne-segimenduko behin-behineko jarduketa/azpiroiectuetako 115ekin uztarturik daudenak. Esate baterako, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko behin-behineko 9 segimendu-azpiroiectu/jarduketari dagokienez, Estatuko Administrazio Orokorrak azpiroiectu eta CoFFEEko lokalizatzaile bakar batean zehaztu ditu.





Kontuan harturik azpiproiektu oro jarduketan bitartez egin beharrekoa dela haren plangintza eta exekuzioari begira, jarduketan egoera aztertzen da. Gaur egun CoFFEEen 46 jarduketa daude, zeinetatik 8k bakarrik baitaukate behin betiko lokalizatzaile bat. Jarduketa horiek xehakapen partzial bat dira, guztira hiru besterik ez diren azpiproiektu batzuenak. Beraz, 2023-03-13ko egoera honako hau da: NFKAren guztizko azpiproiektuen % 39k bakarrik daukate lokalizatzaile operatibo bat, eta, jarduketak analizatuz gero, azpiproiektuen % 2,5ek baizik ez dauka planifikatuta jarduketak. Horren arrazoia da CoFFEE tresnaren abiarazpenaren berandutzea (2022ko abendukoa), horren plangintzaren konplexutasuna (bi mailetan), eta abiarazpen-problema ugariak (barne dela interes-gatazkarako arriskuaren analisi sistematikoari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduari egokitzeko lana).

B.6 Gastuaren exekuzioa (11. orrialdea).

Nabarmena da exekuzioa baxua izan dela (...).

NFKAko departamentuen aurrekontu-exekuzioaren zenbatekoa ez da Planaren aurrerakadaren adierazle ona:

- Azpiproiektu bakoitzak berariazko egutegia dauka, bakoitzerako zehazturiko hasiera- eta amaiera-datak dituenak, bai eta denbora-jomuga propioa eta besteekiko berezia ere.
- Exekuzio-portzentajeak (aitorturiko betebeharrak guztizko gastu aurreikusien gain egiten duten zenbatekoa) aurrerakada-adierazle gisa duen esanahi-balioa azpiproiektu bakoitzean aurreikusitako jarduketan izaeraren baitakoa da.

"Exekuzio baxua" azpiproiektu zehatzei buruzkoa izan beharko litzateke, eta ez departamentuei buruzkoa, eta kasuko azpiproiektuko helburuak betetzearen probabilitate urriari uztartu beharko litzaioke. Aurrerakadaren berri emateko moduko aldagai muntadun bakar gisa gastu-errealizazioaren norainokoa proposatzeak, aintzat hartu gabe kasuko azpiproiektuaren ezauzgarriak eta egoera, edo azpiproiektu-multzo baterako adierazle agregatu gisa, ideia doigabea eman dezake Suspertze Planean jasotako jarduketan burutze-mailari buruz.

B.7.- 36/2020 Errege Lege-dekretua eta gobernantza-mugartea (16. orrialdea).

36/2020 Errege Lege-dekretuak –abenduen 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko– agintzen du gobernantza-eredu bat ezartzea SEEPeko azpiproiektuen segimendu, ebaluazio, koordinazio eta kontrolerako.

Aurreko paragrafo hori, zeinak auditoretzaren 1. helburua azaltzen eta testuingururatsen baitu, ez da zorrotza.


36/2020 Errege Lege-dekretuak zioen azalpenean esaten du, bigarren orrialdean, ezen erronka horien muntak eta horien garapenerako denbora-mugarteak erakundeen eta administrazio publikoen esku-hartzea beharrezko dutela, eta agerian uzten dutela premiazkoa dela neurri urgenteak hartzea, gobernantza-eredu bat eraikitzeak, xede gisa izanen duena inbertsio-proiektu eta -programa desberdinen eta araudi-erreformen hautaketa, segimendu, ebaluazio eta koordinaziorako gobernantza-eredu bat taxutzeko, horizontaltasunezkoa, proiektu-abiarazpenaren arintasuna hobetzeko, europar araudiak behartzen dituen berme eta kontrolak mantenduz prozedurak sinpletzeko eta gastu publikoa efizienteagoa izatekoa".

Horrenbestez, 36/2020 Errege Lege-dekretuak ez du autonomia-erkidegoen azpiproiektuetarako gobernantza-eredurik aipatzen.

B.8 Gobernantza-egiturak (17. orrialdea).

SEEPa eraginkorki exekutatzeak, beharrezkoa da halako gobernantza-eredu bat ezartzea zeinak bermatuko baitu behar bezalako plangintza, koordinazioa, segimendua eta ebaluazioa, jarduketan koherentzia eta soluzio amankomunak erabakitzea.





SEEParen inplementaziorako gobernantza-eredua abenduaren 30eko 36/2020 ELd-aren III. Tituluan zehazten da, eta besteak beste honako gai hauek biltzen ditu:

- SEEParen izaera, edukia, prestaketa eta onespina (I. kapitulua).
- Gobernantza-egiturak: Suspertze Planaren kudeaketa eta segimendurako Estatuko Administrazioak dituen berriazko organo eta mekanismoak (II. kapitulua). Kudeaketa publikoko tresnak: Estatuko Administrazioari aplikatzen ahal zaizkion plan-gintza estrategikoaren, giza baliabideen, digitalizazioaren eta bitarteko materialen alorretako neurriak biltzen ditu (III. kapitulua).
-

Deskribaturiko gobernantza-eredua Estatuko Administrazioari aplikatzekoa da, ez gainerako administrazio publikoei aplikatzekoa: aipatzen dituen organoak, kasu guztietan, Estatu-alorrekoak dira, eta ez dago inolako aipamenik horren aplikazioa beste administrazio batzuetako organoetaraino hedatzen duenik. Zalantzan jarri ezinekoa da Estatuko Administrazioak zeregin zehatzak dauzkala, Suspertze Planaren barnekoak eta gainerako administrazio publikoek dituztenez bestelakoak; eta, horregatik, III. Tituluaren testua huts-hutsik Estatuari aplikatu beharrezkotzat jo behar da, bere ardurapekoak diren funtzioen izaerari egokituriko gobernantza-tresnak definitzen dituen neurrian. Horregatik, Estatuko gobernantza-eredua ezin mimetikoki aplikatzekoa zaie funtzio berak betetzen ez dituzten entitate batzuei. Horrela, NFKAk ezarritako gobernantza-sistema egokia ote den ondorioztatzeko –horixe izaki kontrol-zereginaren helburua–, konparaziorako erreferentzia ez litzateke 36/2020 Errege Lege-dekretuaren III. Tituluaren edukia izanen, baizik eta, Planari buruzko xedapenei eta Planaren eragile gisa bere gain hartzen dituen betebeharrei jarraikiz, NFKAk, SEEParen arrakastan lagungarri izateko, bere gain hartu beharrekoa zaion zeregina.

Horregatik, eta interpretazio-akatsak ekiditearren, NFKAtik ezarri beharrekoa litzatekeen gobernantza-sistemak eman behar dituen bermeen norainokoa zehaztu beharko litzateke, Estatuko Administrazioak abenduaren 30eko 30/2020 Errege Lege-dekretuaren III. tituluan ebatzi gabeko edo bertan ezarritako ereduaren irismenaz haragoko gaiak hartuko litzatekeen heinean, eta halaber kontuan harturik irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak kudeaketarako ezartzen duen araubidearen mugartea.

B.9 Gobernantza-egiturak (17. orrialdea).

Ildo horretan, 2022ko martxoan departamentu horren egitura organikoa aldatu zen, SEEParen Koordinaziorako Zerbitzua eta SEEParen Koordinaziorako Atala eratzeko.

Zerbitzuaren izena ez da zorrotza, eta nahasmendua sor dezake. Hemen, eta auditoretzatxostenaren beste parte batzuetan ere, eman gabe uzten da zerbitzuaren izen ofizialaren zati bat, izena "Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzua" baitauka (264/2019 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen baita).


Gainera, egituren eraketa ez da argi geratzen. 2021eko otsailean, 6/2021 Foru Dekretuaren bitartez, Next Generation Bulegoaren Zuzendaritza Nagusia eratu zen, eta zegoen Kontabilitate Orokorreko Zerbitzua bertan behera utzi.

2022ko martxoan, 23/2022 Foru Dekretuaren bitartez, bateratu egin ziren Next Generation Bulegoaren Zuzendaritza Nagusia eta Kontu-hartzailatza Zuzendaritza Nagusia. Halaber eratu ziren SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzua eta SEEParen Koordinaziorako Atala. Horrez gain, berriro ere eratu zen Kontabilitate Orokorreko Zerbitzua, 2021ean bertan behera utzitakoa.

B.10.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzua (17. orrialdea).

SEEParen Koordinaziorako Zerbitzuak eta Atalak, Kontu-hartzailatza Nagusiko Zuzendaritzaren pean, betetzen dituzte departamentuek exekutatuak diren SEEPeko jarduketak koordinatzeko eginkizunak.





Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa aldatzen duen 23/2022 Foru Dekretuak zerbitzu honen eginkizunak zerrendatzen ditu; hauexek, hain zuzen:

- a) Foru Komunitateko Administrazioaren organoen ardurapean uzten diren jarduketak koordinatzea, jarduketa horiek SEM proiektuen segimendua egiteko sistemaren eskakizunetara egokitzeko.
- b) Foru Sektore Publikoa osatzen duten entitateen informazio ekonomiko-finantzarioa Estatuko Administrazio Orokorrari helaraztea, aurrekontu-egonkortasunerako eta jasangarritasun finantzarioarako araudiaren segimendua egiteko.
- c) SEEParen exekuzioari uztarturiko informazio-sistema zehaztea.
- d) Aurrekontu-egonkortasunerako eta jasangarritasun finantzarioarako araudian jasotako erregela fiskalen helburuaren lorpenaz ondorioztatzea eta azterketa egitea.

Hori horrela, unitate horren eta bere menpeko egituraren eginkizuna, SEEParen koordinazioari dagokionez, ez da NFKAko organoen ardurapean uzten diren jarduketa guztiak koordinatzea, baizik eta koordinatzea halako jarduketak zeinak organo horiei ardurapean jartzen baitzaizkie SEM proiektuen segimendurako sistemaren baldintzetara egokitzeko.

B.11 Eginkizun-bereizketa (17. orrialdea).


Gure ustez, egitura organiko hori ez da kontrol- eta kudeaketa-funtzioen bereizketa egoki bati dagokiona, ezen Kontu-hartze Zuzendaritza Nagusia, zeina foru-sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren kontrolaren arduradun baita, halaber delako arduradun SEEParen kudeaketarekin zerikusia duten jarduketak koordinatzen dituzten unitate organikoena.

Konklusio hori 2. Eranskineko 2.1.2 atalaren –governantza-egitura– edukiari buruzkoa da. Atal horretan deskribatzen da NFKAk SEEPean parte hartetik eratorritako beharrezanean erantzute aldera egitura organikorako onetsitako aldaketa. Atal horretan jotzen da egitura horrek Kontu-hartzaitza Nagusitik bereizita behar duela egon; dena den, iritzi hori oinarritzen duen argudiorik ez da aipatzen.

Suspertze Planaren gobernantza-ereduan adierazitako kontrolaren (2. mailako kontrola) eginkizun propioak Kontu-hartzaitza Zerbitzuak betetzen ditu; alabaina, NFKAko organoen ardurapean ipintzen zaizkien jarduketaren koordinazioa, zeina SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuak egiten baitu –Kontu-hartzaitza Zerbitzuarengandik zeharo bereizitako unitate organikoa da– alderdi arras zehatz bati buruzkoa da: SEM proiektuen segimendurako sistemaren baldintzetarako egokitzapena (urriaren 30eko 264/2019 Foru Dekretuaren 39. artikulua, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa). Bi zerbitzu horiek funtzio zeharo zedarrituak betetzen dituzte, jarduketaren alderdi desberdinei dagozkienak, eta inola ere barne hartzen ez dutenak horien kudeaketan nolabaiteko partaidetza izaterik: Kontu-hartzaitza Zerbitzuak aurretiazko fiskalizazio jarduketak egiten ditu, Administrazioaren gainerako jarduketekin bezalaxe, eta SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuak ezartzen du kudeaketaren arduradun diren organoek SEEParen jarraipena egiteko sistema elikatzeke bete behar dituzten zereginen mugartea, horrek esan nahi izan gabe kudeaketan aktiboki parte hartzen denik.

Kontu-hartzaitza Zuzendaritza Nagusiaren mailan, ez dago kudeaketaren eta kontrolaren arteko eginkizun-gatazkarik: Kontu-hartzaitza Zuzendaritza Nagusiak ez du organo horrek berak kontrolatuak izateko moduko kudeaketa-jarduketarik egiten. Esan den bezala, SEEPa dela-eta aurrera eramandako eginkizuek ez dute loturarik 2. mailako kontrol-eginkizunekin, zeinak definituta baitaude SEM proiektuen kudeaketari buruzko Arauen 3.5.2. atalean (arau horiek 2022ko otsailaren 16ko gobernu-erabakiaren bidez onetsi ziren). SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuaren eginkizunak, azpiproiektuen exekuzioari dagokionez, kontzeptualki identikoak dira Kontabilitate Zerbitzuak administrazioaren gainerakoaren jarduera arruntari buruz betetzen dituenen aldean, zeinak lehen aipaturiko 264/2019 Foru Dekretuaren 37. artikuluan definitzen baitira. Alegia: kudeaketa-mugarte bat eta euskarri bat eskaintzea informazio-gintza-betebeharrak betetzeko. Hori, kontabilitatearen kasuan, diru-





magnitudeei buruzkoa da, eta SEEParen kasuan tresna horrek definitzen dituenak dira magnitudeak: mugarren eta helburuen betetzea. Kontabilitatea dela-eta Kontu-hartzaitza Zuzendaritza Nagusiari egiten zaion eginkizun-esleipen hori erabat finkatuta dago autonomia-erkidegoetan, eta ez du inoiz problemarik ez eta zalantzarik ere sortu.

Adierazitako iritziak, koordinazio-eginkizunak ezinbestean Kontu-hartzaitza Zuzendaritza Nagusiaren esparrutik ateratzeari buruzkoak, ez ditu aintzat hartzen SEM funtsak jasotzeko ezarritako baldintzek barne-kontrolako ereduaren taxuketan bertan izan ditzakeen eraginak, halako moldez non eredu hori baldintza horiei egokitu beharko baitzaie. Zehazturiko koordinazio-zereginen eta fiskalizaziokoan artean dagoen hurbiltasun organikoa, era horretan, izanen litzateke konpondu beharreko taxuketa-akats bat ez baizik, oso bestela, aurretiazko kontrolaren eragiketak kudeaketa-prozesuen azkartasuna kaltetzea ekiditeko moduko elementu bat. Alde horretatik, hizpidera ekarri beharrekoa da Gobernuaren 2022ko otsailaren 16ko erabaki bidez onetsitako Kudeaketa Arauetan 3.5.2 atalak zehaztasunez adierazten duela aplikatu beharreko 2. mailako kontrolaren edukia, eta III. Eranskinak deskribatzen duela zer egiaztapen egin behar den dirulaguntzen eta kontratazio-espeditenteen oinarri arautzaileen gainean.

B.12.- Azpiproiektuen komunikazioko akatsak (17. orrialdea).

Alabaina, departamentuek beraiei esleitu zaizkien azpiproiektuei buruz garaiz eta forman ez komunikatzeak SEEParen koordinazio-unitateei eragotzi egiten die planeko jarduketei buruzko ezagutza homogeneo, eguneratu eta osoa edukitzea.

NFKAko departamentuei esleituriko azpiproiektuei buruzko informaziorik ezak betiere erakartzeko kudeaketa eta informaziorako CoFFEE tresnaren operatibitate eza Estatuko Administrazio Orokorrari zegokionez, eta, horren ondorioz, NFKAko exekututze-entitateei esleituriko azpiproiektuen gaineko informaziorik eza.

2022ko apirilaz geroztik, orduan finkatu baitzen exekututze-entitateari uztarturiko kudeaketa-organoren figura, eta Gobernuak 2022ko otsaileko erabaki bidez onetsitako kudeaketa-arauetan jasotako Kudeaketa Planen prestaketa taxutu baitzen, bai eta CoFFEEen pixkanaka NFKAko exekututze-entitateei azpiproiektuak 2022ko abenduan esleitzeaz geroztik ere, komunikazio-urritasun hori pixkanaka onbideratu da, eta gaur den egunean muntazko oztopo izateari utzi dio.

B.13 Gobernantza-organok (17. orrialdea).

Ez da sortu SEEPeko jarduketan zuzendaritza- eta plangintza-funtziorik duen gobernantza-organorik. Goragoko apartatuetan azaldu den bezala, SEEPari buruzko zuzendaritza- eta plangintza-eginkizunak Estatuko Administrazio Orokorrari ematen zaizkio, eta ez autonomia-erkidegoei; eta ez dago erregio- edo toki-mailako "Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planik".

Jarduketan zuzendaritza eta plangintzako eginkizunak dituzten gobernantza-organok gisa, ez da organo berririk sortu, baizik eta zuzendaritza eta plangintza hori departamentuen zuzendaritza-organok propioei egokitzen zaie; eta, oro har, haien zuzendaritza nagusiei eta antzeko organoek, zeinek denboran zehar onetsi diren kudeaketa-planak prestatzen baitituzte.


B.14.- Plangintza estrategikoa (18. orrialdea).

Ez da aurkitu SEEParen kudeaketa globalerako plangintza estrategikorik, mugari eta helburuak eraginkorki betetzeko baliabide eskuragarriak, premiak eta jarduketak aztertuz eginikorik.

Testu horixe bera txostenaren 27. orrialdean agertzen da, "giza baliabideen kudeaketa" idazpuruaren aurre-aurtetik. Iruzkina aplikatzeko modukoa da.

Estatuko Administrazioaren esparruan, ministerio bakoitzerako egiten da plangintza estrategikoa (36/2020 LE, 23. artikulua). Ez da planteatzen SEEParen plangintza globalik. Plan estrategikoak nola eta kasuko ministerioak esleitu edo kudeaturiko proiektuetatik abiatuta behar ziren prestatu (23.2.a artikulua).





NFKAren mugapean plangintza estrategikoaren printzipioak duen betetzea ebaluatu behar da hark SEEParen gaineko bere jarduera aurrera eramaten duen ingurunearen baldintzetatik abiatuta. Estatuko Administrazioan ministerioek jadanik osoki ezagutzen zuten beraiek landu beharreko SEEParen sektorea, eta hortik aurrera bi hilabete zeuzkaten beren plan estrategikoak prestatzeko; bada, horrela ere, NFKAn jarduketa-esparrua elkarren segidako hitzarmenen eta ebazpenen bitartez zehazten joan da, non jasotzen baitziren, elkarrekiko beregain, egin beharreko jarduketaren baldintzak eta epeak. Alegia: egin beharreko jarduketei buruzko proposamen bete eta itxirik ez da egon, erreferentzia gisa balio ahalko zuenik plangintza-prozesu globalei heltzeko, halakoak non modua emanen baitzuketen beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta prestakuntzakoak estimatzeko.

Baldintza horietan, ezinezkoa gertatzen da plangintza global bat asmotan hartzea, Ganberaren txostenak iradokitzen duen bezala. Horrek ez du, alabaina, beharizan hori ahantzarazi; izan ere, kudeaketa-planek, 2022ko otsailaren 12ko Gobernuaren Erabakiz onetsitako egitura edukita, mugarri eta helburuak eraginkortasunez betetzeko baliabide, premia eta jarduketak aztertzen dituzte, nahiz eta ez globalki, baizik eta azpiproiektu bakoitzari dagokionez, horixe baita NFKAko departamentuen posizioak ministerioekiko duen alde nagusia: azken horiek plan estrategikoa egiten badute arrera eraman behar dituzten jarduketa guztiak eza-guturik (SEEPean daude jasota), NFKAko departamentuak denboran zehar ezagutuz doaz dagozkien jarduketak, kudeatze-tresnak (hitzarmen nahiz ebazpenak) formalizatzen joan ahala. Baldintza horietan ezin zaio plangintza globaleko prozesu bati heldu; batez ere, inbertsioak denbora-epe oso urrian egin behar direnean, horrek beharturik proiektuen abiarazpena ahal den gehiena arintzera.

B.15.- Nafarroa Suspertu (18. orrialdea).

Nafarroa Suspertu Plana SEEParen ardatzekin lerrokatuta dago, baina ez dago zuzeneko bat-etortze edo loturarik bertan jasotako jarduketan eta SEEPeko azpiproiektuen artean.

"Nafarroa Suspertu" Plana 2020ko abuztuan onetsi zen, justu uztailearen erdialdean egin zen Kontseilu Europarraren ondoren, zeinean funts-banaketa adostu baitzen.

"Next Generation" eginen zen plan nazionalari jarraikiz, eta Suspertze eta Erresilientzia Mechanismoa ezartzen duen europar Erregelamendua onetsia izan aurretik. SEEParen arau-mugartea ezartzen da abenduaren 30eko 36/2020 ELd-an eta HFP/1030/2021 Aginduan, batez ere. SEEParen zirriborroa prestatu eta 2020ko urrian igorri zitzaion Europako Batzordeari. 2021eko uztailean onetsi zuen Europako Batzordeak SEEPa. "Nafarroa Suspertu" Plana SEEParen euskarri den tresna finantzarioa zehaztua izan baino lehen taxutu zen; hori dela-eta, nekez pentsa daiteke "Nafarroa Suspertu" Plana aintzat hartzeko moduko elementua izatea Nafarroan eginiko SEEParen plangintza estrategikoaren ebaluazioan.

B.16.- Mugarri eta helburuen argitalpena (19. orrialdea).

Ez dira argitaratu mugarri eta helburuak, ez eta SEEPeko jarduketak exekutatzeko aldera formalizaturiko kontratuak ere.

Azpiproiektu bakoitzari uztarturiko mugarri eta helburuen identifikazio zehatzak beharrezko du Estatuko Administrazio Orokorrek definituta eduki ditzala horiek.

B.5 apartatuan esan den bezala, 2023ko martxoaren 13an egoera oraindik urrun dago, bete beharreko mugarri eta helburuen eta benetako betetzearen norainokoaren zerrenda xehakatu bat, zeina SEEP azpiproiektuka antolatuta egonen baita, epe laburrean eskueran eduki ahal izatetik.

Estatuko Administrazioak azpiproiektu bakoitzari esleiturik dauden mugarri eta helburuak zehazten dituen heinean, argitaratu beharreko informazioa mardulagoa izanen da.

B.17.- Giza baliabideen kudeaketarako beharrezkoak diren neurriak (21. orrialdea).

2. helburua. Ezarri al du NFKAko beharrezko neurriak, giza baliabideen kudeaketa SEEPetik eratorritako premiei lot dakien?





Alegazio hau txostenaren 27. orrialdean jasotzen den konklusioari buruzkoa da.

Galdera horri buruz, lehenik eta behin esan behar da SEEPeko beharrizanak ez direla globalki ezagutu, baizik eta denboran zehar azaleratu direla, ministerio bakoitzak autonomia-erkidegoek egin beharrekoak ziren jarduketak erabakitzen zituen heinean. Egin beharreko jarduera ezezaguna baldin bada, nekez ebaluatzen ahalko dira premiak, dela beharrezkoak diren baliabideen estaldurari dagozkionak, dela daudenen prestakuntzari dagozkionak; eta are zailagoa izanen da soluzioak mahaigaineratzea (berdin dela hartu beharreko neurriak izan nahiz kasuan kasuko jarduketak izan).

Bestalde, ez da esaten zer neurri beharko liritekeen giza baliabideen kudeaketa SEEPeko beharrizanetara egokitzeko. Horri buruz egiten den gomendioan estaldura eta prestakuntza aipatzen dira. Estaldurari dagokionez, txostenak aipatzen du ezen Kudeaketa Planetan jadanik jasota daudela kasuko azpiproiektuaren exekuziotik eratortzen diren langileria-beharrizanak, baina ez da argudiatzen gai honi planteamendu korporatibo batetik heltzearen abantaila, hain zuzen ere baliabide gehigarrietarako beharrizanak denboran zehar agertzen diren egoera batean.

SEEPeko funtsen kudeaketari buruzko prestakuntza-ekintzei dagokienez, kontuan harturik Estatuko Administrazio Orokorrak definitzen duela kudeaketa-sistema, prestakuntza-ekintzak eskaintzea administrazio horri dagokio. Ildo horretatik, prestakuntza-ekintzak 2022ko irailetik abendura bitartean egin dira, eta NFKAko departamentu guztiei izan zaizkie eskainiak. Berriki, 2023ko otsailean, kudeatzaile interesatu guztiei estatuko INAPetiko on-line prestakuntza eskaini zaie.

B.18.- Interesdunek funtsen berri izatea eta horiek eskuratzea (27. orrialdea).

Gure ustez, interesdunek funtsak ezagutu eta lortzea sustatu eta errazteko neurri eta ekimenak ez dira behar adinakoak.

Interesdunek NFKAren kudeaketapeko funtsak eskuratzen dituzte gastu publikoa hirugarrenei bideratzen zaien tresna arrunten bitartez: hots, dirulaguntzak eta kontratuak. Tresna horiek jadanik badauzkate publizitate- eta lehia-printzipioak bermatzeko mekanismo propioak. Ganberaren txostenak adierazten du neurriak ez direla nahikoak, eta horretarako argudiatzen da (2. eranskineko 2.1.5 atala) ezen mugarri eta helburuak epe jakin batean betetzearekin funtsak lotura izatea litzatekeela, hain zuzen, balizko onuradunen lehia areagotzeko jakinarazpen-efortzu gehigarriak egitearen justifikagarri. Ildo horretan, eta onarturik ezen lehia areagotzeko edozein ekintza txalogarri dela –eta ez hainbeste funtsak "hedatze" hutsagatik, zeren finantzaketa edozein kasutan ere aplikatuko baitzaio mugarri eta helburuak betetzeari, baizik eta funts-aplikazioaren efizientziagatik, hautakizun diren proposamenen aukera zabalteko modua ematen baita–, ez da antzematen zergatik funtsak mugarri eta helburuen betetzeari loturik egoteak bere horretan lehia murriztuko duen, eta behartuko duen balizko interesdunen artean publizitate-ahalegin gehigarri bat egitera; halaber, ez da antzematen zergatik SEEParen barnean kokaturikoak diren gastu publikoaren kudeaketa-prozesuetan parte hartzeko aukerek irisgarriagoak behar ote duten izan Plan honetatik at dauden beste prozesu batzuetarako ematen direnak baino.

Ganberak adierazten du ezen azpiproiektu bakoitzaren kudeaketa-planetan jakinarazpen-ekintza bereziak aurreikusten direla. Arrazoizkoa da esparru honetan aintzat hartzekoak izatea, kasuko azpiproiektuaren edukia ikusirik, aurkeztu beharreko proposamenek eduki beharko dituzten zertzelada bereziak azpimarratzeko beharrezkoak diren ekintzak. Txostenak ez du aztertzen kudeaketa-planetan jasotako neurrien edukia, haien balioa edo egokitasuna epaitzeari dagokionez. Horrek modua emanen luke hobetze-proposamenak egiteko. Besterik gabe esaten da ez direla nahikoak, inola zehaztu gabe zer alderditan jarri beharko litzatekeen enfasia. Bestetik, jarduketak egiazki gauzatuak izateari buruzko informaziorik ez edukitzeak





justifikazioa ematen ahalko luke jarduketa horien segimendurako mekanismo bat proposatu beharrari buruz, baina ez dirudi taxuzkoa denik horrek eraginik izatea haien diseinu eta edukian.

Lehia sustatze aldera harturiko neurri buruzko bere IV.1.5 apartatuan behin-behineko txostenak dioen bezala, NFKAren SEEPeko funtsak exekutatzeko dirulaguntzen eta kontratu-lizitazioen deialdiei buruzko web orriko informazioa eskaintzen da Estatuak autonomia-erkidego guztientzat argitaraturiko deialdietarako esteka baten bitartez. Hori horrela de SEEPekin berarekin koherente izanik, zeinak aurreikusten baitu Estatuak Administrazio Orokorra informazio-atari bateratu bat eratzea, xede den publikoak dituen parte-hartze aukerak errazte aldera. Zehazki, SEEPak, gobernantza eta parte-hartzeari buruzko 4.4.1. atalean, VIII eta XI azpiataletan, honakoa dio:

- VIII. azpiatala: "(...) Suspertze Planaren web-ataria, zeinak bitarteko baliagarri izan beharko baitu, potentzialki interesdun diren eragile guztientzako izanik (enpresa, partikular nahiz administrazioentzako) plan horri buruzkoa den informazio guztiaren banatzea zentralizatu eta bideratzeko, halatan lehia areagoturik".

- XI. azpiatala: "(...) Suspertze Planari buruzko web-atari berariazkoa, non informazioa jasoko baita Planari, programei, deialdiei eta abiatzen diren proiektuei buruz, jomugatzat harturik informazio-atari nagusi eta bateratua izatea eta xede den publikoari parte-hartze bideak erraztea".

B.19.- Kudeaketa-sistema SEEPeko printzipioetara egokitzean autoebaluazioa egitea eta irizpide homogeen aplikatzea (22 eta 27. orrialdeak).

Nahiz eta horiek egiteari begira zenbait orientabide jaso zituzten SEEP eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko NFKAren Zerbitzuarengandik, departamentuek elkarrekiko loturarik gabe egin zuten autoebaluazioa, eta testak egiteko irizpide amankomun eta koordinaturik ez zen ezarri. (22. or.).

Kudeaketa-sistema ez zaie SEEParen printzipioei irizpide homogeen arabera egokitu, eta ez da eratortzen SEEParen eskakizunei heltzeko funtsezkoak diren zertzelada kritiko eta erabakitzaileei buruzko analisi batetik (27. orrialdea).

Kudeaketa-organoek SEEPeko kudeaketa-printzipio zehatzetara egin beharreko egokitzea pena HFP/1030/2021 Aginduaren 2. artikuluan zehazten da. Egokitze-mekanismoa honako honetan datza:

- Oinarrizko mekanismoa kudeaketa-sistemaren autoebaluazioa da; horrela, puntuazioa esleitzen zaio Aginduaren II. Eranskinak xede horrekin jasotzen duen galdegegian jasotako faktoreetako bakoitzari. Zeregin hori beren gain hartu beharko dute arduradun eta kudeatzaile diren organoek.

- Autoebaluazioak emaitza gisa sistemaren guztizko puntuazio bat ematen du, guztizko arrisku-mailarekin erlazionaturikoa. Puntuazio-sistema horren arabera, kudeaketa-sistemak arrisku "altu", "ertain" edo "baxu"kotzat kalifika daitezke.

- Exekutatzeko-entitateek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte, bermatzeko ezen guztizko arriskua "baxu"tzat jotako mailan kokatzen dela. Zilegi izanen dute horretarako egokitzat deritzeten neurriak aukeratzea. Autoebaluazioaren emaitza taxuzko gidalerrotzat har daiteke sistemetakoa arriskua murrizte aldera egin beharreko urratsen nondik norakoa zehazteko.

- Autoebaluazio-prozesua urtero egin behar da, eta beharrezkoa da haren emaitza txertatzea sisteman jasota dagoen informazioari, kontrol-organoek gero egiazta dezaten (Estatuak Administrazio Kontu-hartzailetza Nagusiak, Europako Batzordeak, Kontuen Auzitegiak eta abar).

- Mugarri eta helburuen betetzearen erregistroak kudeaketa-organoa behartzen du kudeaketa-printzipioen betetzeari buruzko ziurtagiri bat jaulkitzera, frogagiriak gehituta.





HFP/1030/2021 Aginduak jasotzen duen diseinua ikusirik, autoebaluazio-mekanismoak zentzua dauka exekutatzeko-entitatearen beraren testuinguruan: batetik, sistemaren egokitzapenean eginiko aurrerabidea erakusten duen erreferentzia gisa; eta, bestetik, mugarri eta helburuen betetzeaz irizpena egitean frogatu beharrekoa den funtsezko elementu gisa. Horregatik, departamentu desberdinetako sistemen kalitatea konparatzearen irizpide-homogeneotasuna planteatzeak, batetik galdetegiak aurreikusitako helburuari ez erantzuteaz gain, bestetik haren emaitza itxuragabetu egin lezake kudeaketa-sistemaren baldintzen betetzea agiri bidez frogatzeko erreferentzia gisa, mugarri eta helburuen betetzea erregistratzeko unean.

B.20.- SEEPeko funtsekin finantzaturik 2022an exekutatzeko asmoa zegoen dirulaguntzak DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude; ez, ordea, 2021eko ekitaldikoak (18. orrialdea).

Zeharo ezinezkoa da 2021-2023 DPEn sartzea SEEPekin finantzaturiko dirulaguntzak.

36/2020 Errege Lege-dekretua 2020ko abenduaren 20ean onetsi zen.

2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 20/2020 Foru Legea 2020ko abenduaren 29an onetsi zen, nahiz eta horren izapidetzeari aurreko hilabeteetan heldu zitzaion.

2021-2023 DPEa eguneratzeko fitxak 2021eko otsailean bete ziren, eta une hartan ez zegoen inolako dirulaguntzarik aurreikusita, SEEPeko funtsekin exekutatzekorik.

B.21.- Ezin dugu egiaztatu Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota ote dauden SEEPa exekutatzeko beharrezkoak diren dirulaguntza guztiak (39. orrialdea).

DPE urtero eguneratzen da, urtealdi bakoitzaren hasierako aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza-lerroetatik abiatutik.

B.22.- Ez da ageri Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren segimendua kasu guztietan egiten denik (39. orrialdea).

Esplikatu beharko litzateke ezeztapen hori zeri buruzkoa den, eta zer arauditan oinarritzen den.

"11/2005 Foru Legeak, azaroaren 9koak, Dirulaguntzei buruzkoak, 5. bis artikuluan arautzen du plangintza, honakoa xedatuz:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dirulaguntzen plan estrategiko orokor bat ezarriko du hiru urtetik behin, departamentuen eta jarduketara lotutako araberako xehakaturak. Plan horrek, onetsia izan aurretik, arlo ekonomikoan eskumena duen departamentuaren baimena lortu beharko du.

Dirulaguntzen plan estrategiko hori urtero berrikusiko da, eta bertan gehituko dira beharrezkotzat jotzen diren aldaketak edo doikuntzak.

Dirulaguntzen plan estrategikoa Nafarroako Parlamentuko ekonomiaren arloko batzorde eskudunari aurkeztu beharko zaio urtero, apirilaren 30a baino lehen.

2. Urte bakoitzeko lehen lauhilabetekoan, departamentu eta erakunde autonomoek aurreko ekitaldiko deialdien ebaluazio-txostenak prestatuko dituzte. Txosten horietan aztertuko dira deialdi bakoitzean banaka planteatutako helburuen betetzea eta dirulaguntza emateko prozeduran ezarritako epeen betetze-maila, bai eta deialdiei lotutako gai garrantzitsuak ere.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren txostenak Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzaren dokumentu gisa igorriko zaizkio, onetsi ondoren eta ezarritako epearen barruan, Nafarroako Parlamentuan ekonomiaren arloko eskumena duen batzordeari."

Gaur den egunean, dirulaguntzei buruzko legeak aurreratu duen segimendua arauari jarraikiz egiten da.





B.23.- NFKAn ez da aurretiazko izapidetzerik ezarri SEEPari uztarturiko funtsekin finantzaturako dirulaguntzentzat (50. orrialdea).

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 40. artikularen babesean, zeinak arautzen baititu gastu-konpromiso urteaniztunak, alde zuzenetik edo urte anitzetarako izapidetu dira SEEPeko funtsekin finantzaturiko gastuak. Aipatu espedienteak izapidetu ahal izateko, ez da beharrezkoa izan berariazko araurik aldatu edo onestea.

B.24.- Kreditu-transferentziei buruzko erregelak malgutu egin dira.

2022ko ekitaldiko aurrekontuei buruzko Foru Legearen 56. artikulua baimena ematen du, bere indarraldia iraun bitartean, dauden partiden artean edo ekitaldian zehar eratu beharra suertatzen den partiden artean funts-mugimenduak egiteko, SEMeko proiektu bakoitzean,...

Ñabartu beharra dago funts-mugimenduak ez direla kreditu-transferentziak.

B.25.- Gomendioak

Aurreko ataletan eginiko alegazioen ildotik, behin-behineko txostenean jasotzen diren gomendioetan dituzten eraginak azaltzen dira.

Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiari esleituta dauden SEEPa koordinatzeko eginkizunak banantzea unitate horrek betetzen dituen kontrol-eginkizunetatik, eta SEEParen koordinazioa esleitzea Kontu-hartzaitzaren gandik beregain den unitate bati.

B.11 apartatuan jasotzen den alegazioaren arabera, Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiaren menpeko unitate batetik betetzen diren koordinazio-funtzioek ez dute eraginik organo horren kontrol-eginkizunetan, ez eta eginkizun horien eraginik jasaten ere. Gomendia erabat zentzuzkoa izanen litzateke baldin eta SEEParen koordinazio-orako esleituriko eginkizunek bestelako edukia izanen balute, beste kudeaketa-tresna batzuekin gertatzen den bezala, zeinetan egitura organikoko eredu berariazkoak aplikatzen baitira, aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituzten baldintzei jarraikiz taxutuak: egiturazko funtsekin (EGEF-Eskualde Garapenerako Europako Funtsa, EGIF-Europako Gizarte Funts) finantzaturiko programa operatiboek bestelako tratamendua jasotzen dute, Administrazio honetatik funts hauei dagokienez egin beharrekoak diren koordinazio-funtzioen izaerarako egokia, eta gauza bera gertatzen da nekazaritza-funtsekin (LGENF-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa, NBEUF-Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsa), zeinen kudeaketarako taxuturiko antolamenduzko erantzuna oinarritzen baita "ordain-erakunde" batean, egitura organiko formal bati gain-jarria eta funtzionamendu- eta kontrol-arau oso zehatz batzuei lotua, egiturazko funtsenaz oso bestelakoa. SEEParen mugarte juridikoan, Foru Komunitateko Administrazio organoek egiten dituzten jarduketak koordinatzeko beharrianak sortzen dira jarduketan segimendurako sistemaren baldintzekin erlasionaturik, eta ez horien plangintza edo exekuzioarekin erlasionaturik. Koordinazio-beharrizan horiei erantzuteko, berariazko antola-soluzioa erabaki da, ezarritako kudeaketa-ereduaren berezitasunarentzat egokia; baina beharrian berririk sortuz gero —eta baliteke Suspertze Planaren bigarren fasean, oraindik taxutu gabean, halakorik agertzea—, antolaketa-soluzioa desberdina izan liteke, nahiz eta administrazioa eraginkortasunez taxutzearen ikuspegitik hartua, betiere.

Aztertzea zer den komenigarriago: SEEPeko funtsen gaineko plangintza- eta zuzendaritza-zereginak dituzten unitateak eratzea ala eginkizun horiek SEEPeko koordinazio-unitateei esleitzea.

B.13 atalean jasotako alegazioan adierazten dira organo berririk eratu ez izanaren arrazoiak. Hain zuzen ere, kudeaketa-planak prestatzen dituzten departamentuetako organoek berek bete ohi dituzte eginkizun horiek. Eginkizun horien zentralizazioak





zentzua izanen luke baldin eta beste funtzionamendu-eredu bat ezarri balitz, programa operatiboen antzekoa, non aurreikusiko bailirateke egin beharreko jarduketaren hautapen bat eta finantzaketaren zertarako aldatzeko birprogramazio-prozesuak. Baldintza horietan, zeinak ez baitira SEEParen gauzatzen, arrazoizkoa litzateke plangintza-unitate zentralizatuak egon beharraz hausnartzea.

Informazio-fluxuak hobetzea SEEParen exekutatzeko-unitateen (departamentuen) eta koordinazio-unitateen artean, zertarako eta azpiproiektuei buruzko informazio guztiaren osotasuna eta zentralizazioa bermatzeko.

Alegazioen B.12 atalean esaten den bezala, egoera horrek nabarmen egin du hobera 2022ko apirilaz geroztik, Estatuko araudian taxuturiko kudeaketa-sistemari buruz hasieran zeuden zalantzak ebatzi ondoren, eta 2022ko otsaileko Gobernu-erabakian jasotako kudeaketa-planen prestaketa finkatuta zegoelarik.

SEEPeko inbertsioetarako plangintza estrategiko bat egitea, mugarri eta helburuak eraginkorki betetzeko baliabide eskuragarriak, premiak eta jarduketak aztertuz.

Alegazioen B.14 apartatuan adierazten den bezala, SEEPari dagokion plangintza estrategikoko printzipioak errespetatu egin dira, baina bideragarria izan den moduan, SEEParen abiarazpenaren errealitatearen ondorioz. Hau da: "azpiproiektu" bakoitzaren mailan, hori halakotzat jotzen zen moduan euskarri gisako tresna juridikoa formalizatzeko unean. Estatu-mailan, plangintza estrategikoa ministerio-mailan egin da, eta hori posible izan da jada ezagutzen zituztelako beren ardurapean egonen ziren proiektuak.

Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzea Gardentasunari buruzko Foru Legean adierazitako informazio guztia: mugarri eta helburuak eta SEEPeko funtsak exekutatzeko aldera izapideturiko kontratuak.

B.16 atalean adierazten den bezala, azpiproiektu bakoitzeko mugarri eta helburuen definizioa Estatuko Administrazioari dagokio, zeina abendura arte ez baita lehenbiziko azpiproiektuak zehazten hasi, bakoitzaren mugarri eta helburuekin. Alegazioen B.5 apartatuan azpiproiektu-zehaztapenaren gaurko datako egoera agertzen da. Azpiproiektuak definituta daudenean, uztarturiko mugarri eta helburuak barne, orduan argitaratuko dira.

Next Generation funtsen webgunean zentralizatzea SEEPeko funtsetako dirulaguntzen eta lizitazioen deialdiei buruzko informazioa, eta hurrengo deialdi aurreikusiak argitaratzea, informazio homogeneoa eskaintzearen finantzaketa eskuragarriari buruz eta interesdunei baliabide horietarako eskurabidea erraztearen, ezertan galarazi gabe departamentuek informazio hori osatzea esleituta dauzkaten SEEPeko azpiproiektuei buruzko informazio zehatzarekin.


Balitzko interesdunek abantailak lortu ahal izateko modukoak diren aukerak sortzen direnean horien berri izateko lagungarri den ezein gomendio ez da errefusatzeko modukoa; alabaina, zilegi da ñabartzea, B.18 atalean adierazi bezala, ezen informazio hori funtsen web-orrian zentralizatzeko ez duela hobekuntza nabarmenik ekarriko, jadanik deialdi eta kontratueterako orokortasunez ezarrita dagoenaren aldean.

Neurriak hartzea, interesdunek funtsak ezagutzeko eta lortzeko errazteko, bai eta formulak ezartzea ere, SEEPeko azpiproiektuei buruzko aholkularitza ematekoak balitzko onuradunei (enpresa txiki eta ertainak, autonomoak eta toki entitateak, besteak beste).

Alegazioen B.18 atalean adierazi bezala, kudeaketa-planetarako onetsiriko eskemak atal bat jasotzen du, non barne hartzen baitira kasuko azpiproiektuko jarduketa zehatzak ezagutarazteko hartu beharreko neurriak.

Urrats koordinatuak egitea SEEPeko funtsak kudeatzen dituzten departamentuen, Funtzio Publiko Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren artean, funts horiek kudeatzeko behar diren giza baliabideak hornitu eta prestatzea xede.





Alegazioen B.17 atalean esaten da SEEParen exekuziotik eratorritako langileria-beharrizanak denboran zehar azaleratuz joan direla, eta horrek eragotzi egiten du ekin-tza koordinatuak erabakitzea beharrezkoak diren postuak betetzeko eta horien pres-takuntzarako.


Irailaren 29ko OHP 1030/2021 aginduko 2. artikuluan ezarritako kudeaketa-printzipioen autoe-baluzioa egitea departamentu guztietan, batez ere mugarri eta helburuen segimendua, irizpide koordinatu eta homogeenak erabiliz eta SEEPeko eskakizunei heltzeko zertzelada kritiko eta fun-tsezkoak aztertuz.

B.19 atalean zalantza kontzeptualak adierazten dira, arduradun eta kudeatzaile diren organoek berek dituztenez bestelako irizpideak ezartzearen komenigarritasunari bu-ruzkoak, kalte egin diezaioke eta mekanismo honek ezarrita dituen helburuak lor-tzeko duen eraginkortasunari. Baina begi-bistakoa da autoebaluzio-eragiketak egi-tearen beharizana azpimarratu beharrezkoa dela, eta funtsezkoa da prozesu hauek urtero egin daitezela, halako moldez non exekutatzeko-entitate bakoitzaren kudeaketa-sistemen hobekuntza egiaztatzen ahalko baita.

Iruñean, 2023ko martxoaren 15ean.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria
Elma Saiz Delgado





Kontuen Ganberaren txostenak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana ezartzeko hartutako neurriei buruzkoak, 24. orrialdean honakoa dio:

"Ez da ageri Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestakuntza-saiorik antolatu izana etika publikoari eta iruzurraren aurkako lanabesei buruz, Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko erabakian kontrakoa agintzen bada ere, ez eta horiei buruz edo iruzurraren aurkako neurriei buruz IANPEk aipatzen duten prestakuntza eman izana ere".

Nafarroako Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko Erabakiak, zeinaren bidez bereganatzen baita Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak goi-kargudunen gobernu onaren kodea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enplegatu publikoen jokabide eta printzipio etikoena ere, eta onesten baita Iruzurraren Aurkako Neurrien Planaren erredua, SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren exekuzioa dela eta SEM-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura finantzaturiko proiektuen kudeaketari dagokionez, 2. apartatuan ezartzen du: "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak departamentu bakoitzak Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan propioa onetsi beharko du foru agindu bidez, abiapuntutzat harturik 111. eranskin gisa atxikitzen den erreduan ezarritako gutxienezko edukia".

6.1.5. puntua Iruzurraren aurkako borrokaren alorreko prestakuntza, III. Eranskinakoa:

Departamentu honek sustatu eta erraztuko du bere langileak parte har dezan Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak edo beste edozein erakundek antolaturiko prestakuntza-ekintzetan, iruzurraren aurkako plan honekin zerikusia dutenak; eta, zehazki, ardatz gisa dutenak arrisku-identifikazio eta -ebaluazioa, berriazko kontrolen ezarpena, iruzurra hautemanez geroko jarduna, erreferentzia-kasu praktikoak eta abar.

Horregatik, aipatu gobernu-erabakiak ezartzen du SEM funtsen kudeaketaren barrenean departamentu bakoitzak "iruzurraren aurkako plan" bat onetsi eta bere teknikariei horri buruzko prestakuntza eman behar diela.

NAPIk lagundu egin du horretarako eskaera egin duten departamentuetan emandako iruzurraren aurkako prestakuntza-zereginean; zehazki, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari eta Eskubide Sozialetako Departamentuari lagundu die.

Bestalde, NAPI harremanetan egon da SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuarekin, zeina Nafarroako Gobernuak baita, arlo honetan beharrezkoa den prestakuntza antolatzeko edo horretan parte hartzeko. Horren fruitu gisa, 2023ko martxoaren 8an honako albiste hau argitaratu zen Nafarroako Gobernuaren intranetean:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eta SEEP eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuak jakinarazten dute Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiak martxan jarri duela SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzko online prestakuntzako Plataforma.





Online plataforma bat da, tankeratua izan dena SEEPa arrakastaz exekutatzeari begira enplegatu publiko diren langileentzako prestakuntzaren alorrean dauden erronka handiei heltzeko xedez.

Plataforma hori eskueran dauka planaren kudeaketarekin zerikusia duen edozein enplegatuk.

Honako esteka honen bitartezko sarbidea dauka: <https://aulafondoseuropeos.es/>.

Plataforma horretan, kalitate handiko bideo-sorta bat ipintzen zaizue eskueran, gaiaren arabera taldekatuta. Behin ikastaroak eginda eta kasuko ebaluazio-probak gaindituta, frogagiri bat lortuko da, non adieraziko baita online prestakuntza arrakastaz erdietsi dela.

1. ikastaroa. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana 2. ikastaroa. SEEParen kudeaketa
3. ikastaroa. Etiketatzeko berdea eta etiketatze digitala. DNSH printzipioa
4. ikastaroa. SEEParen kudeaketarako eta segimendurako metodologia
5. ikastaroa. EB finantza-interesaren babesa
6. ikastaroa. CoFFEE

Prestakuntza-plataforma tankeratua izan da SEEParen exekuzioan parte hartzen duen langileriarentzako prestakuntza-gune bezala. Horregatik, prestakuntza-plataformarako irispidea erreserbatuta egonen da kasuko baimena aurkeztu duten pertsonentzat, zeinaren bidez frogatuko baita ezen plataformarako irispidea izan nahi duen pertsonak SEEParen exekuzioan parte hartzen duela. Baimena aurkeztetik salbuetsita egonen dira CoFFEE sisteman jadanik erregistratuta dauden pertsonak. Azken kasu horretan, pertsonak automatikoki erregistratuak izanen dira online prestakuntzako plataforman.

Iruñean, 2023ko martxoaren 14an

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea: Eva María Zarranz Alli





Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Eskerrak ematen dizkiegu Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari eta NAPIko zuzendari kudeatzaileari 2023ko martxoaren 16an jasotako alegazioengatik. Horiek aztertu ondoren, txosten honi gehitzen zaizkio Ganbera honen erantzunarekin batera, eta horiei buruz honakoa jakinarazten da:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak aurkeztutako alegazioak:

- Honako alegazio hauek onartzen dira:

B.2: Azpiproiektu-bideak

B.9: Gobernantza-egiturak

B.20: SEEPeko funtsekin finantzaturik 2022an exekutatzeko asmoa zegoen dirulaguntzak DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude; ez, ordea, 2021eko ekitaldikoak

B.23: NFKAn ez da aurretiazko izapidetzerik ezarri SEEPari uztarturiko funtsekin finantzatutako dirulaguntzentzat

B.24: Kreditu-transferentziei buruzko erregelak malgutu egin dira

- Aurkeztutako gainerako alegazioei dagokienez, ondokoa diogu:

B. 1. CoFFEE-SEM

Txostenean adierazten den bezala, CoFFEE-SEM kudeaketa- eta informazio-sistemaren operatibotasunik ezak murriztu eta nabarmen eragiten du kudeaketan, segimenduan eta azpiproiektuei buruzko informazioaren horniduran.

Halatan, ezinezkoa da azpiproiektuen segimendua tresna horren bidez egitea, eta ez dago proiektu, azpiproiektu edo ekintza-ildoaren identifikazio-kode bateraturik, horrela eragotzita suertaturik autonomia erkidegoei esleituak izanik proiektu berari loturik dauden azpiproiektuen identifikazioa. Era berean, ez da posible exekutatzeko entitateek kasuko kudeaketa-txostena presta dezaten CoFFEE-SEM sisteman bildutako informaziotik abiatuz.

Alabaina, HFP/1031/2021 Aginduak, irailaren 29koak, zeinaren bidez ezartzen baita informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, segimendua egiteko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarri eta helburuen betetze-mailaz eta plan horren osagaien eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaz, ezartzen du exekutatzeko entitateak behartuta egonen direla "emandako datuen baliotasun, fidagarritasun eta trazabilitatea bermatuko duten barne-kontrolako sistemak edukitzeraz".





Aipatu Aginduko 4. artikuluan xehatzen da proiektu, azpiproiektu edo ekintza-ildoei buruzko informazioa, zeina Foru Administrazioako departamentuek Excel orrien bitartez jasotzen baitute.

Bestalde, "2022ko abenduaren erdialdean eta 2023. urtearen hasiera-aldean, Estatuko Administrazio Orokorra azpiproiektuak esleitzen hasi zitzaizen NFKAko exekutatzeko-entitatei (departamentuei), zirriborro-egoeran zeudela eta tantaz tantako moduan" baieztapenari buruz, adierazi behar da SEEPeko azpiproiektu eta funtsak konferentzia sektorialetan esleitzen zaizkiela departamentuei, eta alegazioan aipatzen den esleipena zeri eta azpiproiektuek CoFFEE-SEM sisteman duten taxuketari buruzkoa dela.

B.3 Autonomia-erkidegoei funtsak esleitzea

Autonomia-erkidegoei SEEParen finantzaketarako eginiko transferentzien exekuzioa egiten da Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 86. artikulua adierazten duena baterik, 36/2020 Errege Lege-dekretuaren 44. artikuluan jasotako berezitasunekin.

Beraz, tresna juridikoen, hitzarmenen edo ebazpenen bitartez formalizatzen dena autonomia-erkidegoei konferentzia sektorialetan esleituriko funtsen banaketako finantza-konpromisoak dira.

B.4 Azpiproiektu-esleipena

Aztertu dugun lagineko hiru azpiproiektuen funts-transferentziei euskarri ematen dieten tresna juridikoetan azpiproiektua zedarrizten da, eta azpiproiektuak honako hauetarako daude definituta: egin beharreko inbertsioak, inbertsioaren inplementaziorako neurriak, autonomia-erkidegoei dagozkien funtsak, mugari eta helburuak, adierazleak eta inplementazio-egutegia.

Lehenago adierazi bezala, identifikatu eta definitu gabe dagoena da azpiproiektuak CoFFEE-SEM informazio-sisteman daukan taxuketa.

B.5 NFKAri esleitu zaizkion SEEPeko azpiproiektuak

Gardentasun-atariaren arabera 2022ko abenduaren 31rako Foru Komunitateko Administrazioari esleituta dauden azpiproiektuen kopurua, 118koa, behin-behinekua da, harik eta kudeaketa- eta segimendurako CoFFEE-SEM informazio-sistemak esleituriko identifikazio-kode bateratua eskuragarri egon arte, zeinak zehaztuko baitu behin betiko azpiproiektu-kopurua eta horiek jarduketaka nola deskonposatuko diren.

2022ko abenduaren 31n Foru Komunitateko Administrazioari SEEPeko inbertsioetarako esleituta zeuden funtsak 479,21 milioikoak ziren, eta horien exekuzioaren arduradunak departamentuak dira. Funts horietatik, 364,39 milioi onetsi dira, eta aipatu datan 354,31 milioi zeuden kobratuta.





B.6. Aurrekontuaren betetzea

Departamentuetako exekuzio-maila lortzen da, eta beraz islatzen du horiek exekutaturiko azpiproiektuen exekuzio-maila. Horien xehakapena txosten honen 3. eranskinean agertzen da.

Kontuan izanik azpiproiektu bakoitzak bere exekuzio-egutegia daukala, egingakoa den gastu-maila adierazle baliiodun eta beharrezkoa da, ez bakarria haatik, azpiproiektuko helburuen betetzea neurtzeko.

B.7 36/2020 Errege Lege-dekretua eta gobernantza-mugartea

"Inbertsio-proiektu eta -programa desberdinak" autonomia-erkidegoek exekutatzen dituzte; besteak beste, azpiproiektuen bitartez. Foru Komunitateko Administrazioan, departamentuak dira SEEPeko azpiproiektuen exekutatze-entitate. Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera, azpiproiektuak proiektu baten zati baten deskonposaketa dira, uztartuta daramana baliabide ekonomikoen transferentzia eta arduradun den exekutatze-entitateak mugarri nahiz helburuak betetzeko konpromisoa hartzea.

Beraz, beharrezkoa da gobernantza-egitura bat egotea Foru Komunitateak exekutaturiko SEEPeko jarduketan, hots, azpiproiektuen, segimendu, ebaluazio, koordinazio eta kontrolerako.

B.8 Gobernantza-egiturak

Txostenean ez da adierazten NFKAk zutik jarri behar dituenik irailaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuaren "Kudeaketa-tresnak" III. Tituluko II. kapitulu-luko 14. artikulutik 18.era bitartekoetan Estatuko Administrazio Orokorrarentzat ezarritako gobernantza-egiturak, baizik eta halako gobernantza-eredu bat bereganatu behar duela zeinak bermatuko baitu SEEPeko funtsak eraginkortasunez exekutatzea. Horretarako, funtsezkoa da egiturak edukitzea, bere erantzukizunaren pean exekutaturiko SEEPeko jarduketan koordinazio, zuzendaritza eta segimendu egokirako.

B.10 Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzua

SEEParen Koordinaziorako Atalak, zeina SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuaren ardurapean baitago, honako eginkizun hauek ditu, besteak beste:

a) Informazioaren kudeaketa zentralizatua egitea eta erantzukizuna NFKAko organoena den SEEPeko proiektuen multzoaren azterketa globala egitea.





b) SEM eta SEEPari buruzko araei, metodologiari eta orientazioei buruz eza-gutarazpen-lana egitea eta SEEPeko proiektuak exekutatzeko dituzten entitateei aholku ematea.

c) SEEPeko proiektuak exekutatzeko dituzten entitateei aholku ematea horien plangintza egiteko eta horiek jarduketatan edo beste proiektu habiaratu batzuetan deskonposatzeko.

d) SEEPeko proiektuak exekutatzeko dituzten entitateei aholkularitza eta laguntza ematea kudeaketa- eta segimendu-datuak erregistratzeko eta informazio-sistematan segimendua egiteko.

B.11.- Eginkizun-bereizketa

Kontu-hartzailtza Zuzendaritza Nagusia da SEEPeko koordinazio-unitate diren SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbitzuaren eta SEEParen Koordinaziorako Atalaren arduraduna. Horiei esleitzen zaizkie SEEParen exekutatzeko-entitateei aholkularitza ematearen eginkizuna, besteak beste araei, metodologiari, orientazioei, plangintzari eta kudeaketa-datuak erregistratzeari dagokienez, eta halaber ardura du SEEPean ezarritako 2. mailako kontrolaren gainean; kontrol hori SEEParen kudeaketaz arduratzen diren organoen jarduketari egiten die, eta horiei aholku ematen die.

B.13 Gobernantza-organoak

Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuek, SEEPa exekutatzeko entitate diren aldetik, azpiproiektuen plangintza, zuzendaritza eta segimenduaren gaineko erantzukizuna dute.

Ezinbestekoa da gobernantza-egiturak edukitzea, funtsak exekutatzeko dituzten entitateen jarduketa guztien gaineko zuzendaritza-zereginak eta plangintza amankomun, integral eta globalekoak dituztenak; bai eta departamentuek beren erantzukizunpean exekutatzeko dituzten SEEPeko inbertsioetako azpiproiektuen zentralizazioa, analisisa eta segimendua ere.

Txostenak gomendatzen du SEEPeko funtsen plangintza eta zuzendaritzari dagozkien zereginak betetzearen komenigarritasuna, dela unitate berriak eratuz, dela zeregin horiek jadanik badauden unitate batzuei esleituz. Gomendio hori egiten da exekutatzeko-entitate guztiek zuzendaritzapeko jardun planifikatua izan dezaten, sinergiak sortu eta azpiproiektuen kudeaketarako soluzio amankomunak bideratuko dituen.

B.14 Plangintza estrategikoa

36/2020 Errege Lege-dekretuak plangintza estrategikoa eta helburukako kudeaketa ezartzen ditu kudeaketa oneko printzipio gisa, zeina administrazio pu-





blikoek errespetatu behar baitute esleituta dauzkaten jarduketak egiteko eta, bereziki, SEEParen inplementazio eraginkorrerako eta esparru horretan esleitutako helburuak lortzeko.

B.15 Nafarroa Suspertu Plana

Nafarroa Suspertu Plana aintzat hartu beharreko elementua izan behar da Nafarroan SEEPaz eginiko plangintza estrategikoa ebaluatzean, ezen, nahiz eta SE-EPa baino lehenago onetsia izan, Nafarroa Suspertu Planak Europar Batasuneko Suspertze Planean parte hartzen du, eta bertako jarduketan finantzaketa-iturri nagusia SEM funtsak dira, zeinetatik 479,31 milioi esleitu baitzaizkio Foru Komunitateari, SEEPeko inbertsioetarako.

Nafarroa Suspertu Plana Europar Batasuneko Suspertze Planaren lehentasunen ildoan dago; hots, jasangarritasuna, digitalizazioa, gizarte-kohesioa eta merkatu bateratua.

Nafarroako Next Generation funtsen web-orrialdean zuzeneko Nafarroa Suspertu Planerako zuzeneko esteka bat agertzen da, eta adierazten da hori lerrokatuta dagoela "Next Generation EU" Europarako Suspertze Planarekin eta "España Puede" Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin.

Gainera, SEEPeko azpiproiektu guzti-guztietan adierazten da ekarpen lagungarria egiten dutela Nafarroa Suspertu Planaren helburuen lorpenari begira, berrikuntza digitalaren, Navarra Green, gizarte- eta lurralde-kohesioaren eta berdintasunaren eremuetatik.

Bestalde, 2022ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jada ez da agertzen, 2021eko ekitaldiko aurrekontuetan bezala, "Suspertu Plana" izendapenarekin identifikaturiko partidarik, eta SEEPeko inbertsioei dagozkien partidak "SEM" izenarekin identifikatzen dira. Nafarroa Suspertu Planak 2020-2023 epealdia barne hartzen du.

Baldin SAP kontabilitate-sisteman kontsulta egiten bada 2022ko ekitaldian Nafarroa Suspertu Planari zegozkion partidei buruz, SEM izeneko aurrekontupartidak erakusten dira; hain zuzen ere, horiek SEEPeko inbertsioei dagozkienak dira.

Beraz, existitzen da, eta Nafarroa Suspertu Planean jasotako jarduketak uzartu behar dira departamentuek exekututzen dituzten SEEPeko inbertsioekin.

B.16 Mugarri eta helburuen argitalpena





Kasuko konferentzia sektorialean autonomia-erkidegoei esleituriko funtsak formalizatzen dituzten tresna juridikoetan, azpiproiektuetako mugarri eta helburuak identifikatu egiten dira.

Halaber, departamentuek azpiproiektu bakoitzerako prestaturiko kudeaketa-planetan mugarri eta helburuak ere jasotzen dira.

B.17 Giza baliabideen kudeaketarako beharrezkoak diren neurriak

Funts-esleipena zatika eta sektorialki, batik bat konferentzia sektorial desberdinen bitartez, egiten dela-eta zaila gertatzen denez langileria-beharrizanak estimatzea, areagotu egiten da esparru honetan plangintza egokia egin beharra, kon-tuan harturik bai ingurune honen dinamikotasuna, bai beharrezkoa dela behar adinako giza baliabideak edukitzea, SEEParen kudeaketarako prestakuntza ego-kia dutenak.

Gomendatzekoa da SEEParen kudeaketarako beharrezkoak diren giza baliabi-deen plangintza egin dadila modu koordinatuan eta globalki exekutatzeko-entitate-tan, eta ez, besterik gabe, kudeaketa-planak azpiproiektu bakoitzerako jasotako beharrizanen balorazio bat, halako moldez non horiek agregatuz ikusi ahalko baita zein den Foru Komunitateko Administrazioaren beharrizanen multzoa, ho-rrela SEEParen kudeaketarekin zerikusia duten langile-premiak asetzeko eta ho-rien prestakuntzarako beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko.

SEEParen kudeaketak, zeina departamentuei baitagokie, berekin dakar funts-multzoko kopurutsu bat epe laburrean kudeatu beharra mugarri eta helburuak bete-tzeari begira, eta beharrezkoak ditu ezagutza berariazkoak eta heterogeneoak di-tuzten langileak, zeinentzako prestakuntza ematea Estatuko Administrazio Oro-korraren zeregina baita. Halaber, "Estatuko Administrazio Orokorrak definitzen du kudeaketa-sistema".

CoFFEE-SEM tresnaren plataforma informatikoaren erabileraz eta maneiuz harago doa prestakuntza: barne hartu behar ditu, besteak beste, SEEParen kude-aketak dituen berezitasunei buruzko zertzeladak, eta SEEParen exekutatzeko-enti-tatei araudiak eskatzen dizkien baldintza kopurutsuei dagozkien alderdiak.

B.18 Interesdunek funtsen berri izatea eta horiek eskuratzea

Txostenak adierazten duen bezala, mugarri eta helburuak denbora-epe batean bete behar badira, komeni da berriematea indartzea, balizko onuradunen ager-pena sustatzeko.

Autonomia-erkidegoei esleituriko funtsak gehienbat kontratu eta dirulagun-tzen bitartez exekutatzen eta banatzen dira.





Halako funts-bolumen mardula jasotzeak –2022ko abenduaren 31rako, 479,21 milioi zeuzkan esleituta Foru Komunitateak– eta hori epe labur batean exekutatzek –Foru Administrazioaren aurrekontu-programazioaren arabera, funtsen ehuneko 72 2020-2023 epean exekutatu dela aurreikusten da– beharra sortzen du horien banaketarako tresnen publizitatea areagotzeko, era horretan balizko onuradunek modua izan dezaten laguntzak eta SEEPeko funtsak lortzeko kontratu-lizitazioen berri izateko.

B.19.- Kudeaketa-sistema SEEPeko printzipioetara egokitzean autoebaluazioa egitea eta irizpide homogeneoak aplikatzea

1030/2021 Aginduak ezartzen du zein den kudeaketa-printzipioen betetzeari buruzko gutxieneko estandarra mugarriei, helburuei eta azpiproiektuei dagokienez. Arduradun eta kudeatzaile diren organoek zilegi dute estandar hori areagotzea. Aginduaren II. Eranskinak sei autoebaluazio-test biltzen ditu.

Irizpideen interpretazio homogeneoa egiteak eta test-erantzuteari buruzko irizpide amankomunak erabiltzeko koherentzia ematen diete emaitzei.

Horrenbestez, irizpide-homogeneotasuna ez da departamentuetako sistemen kalitatea konparatzeko planteatzen, baizik eta departamentu bakoitzak autoebaluazio-testei irizpide amankomunen arabera erantzunez eta guztiek testak modu homogeneoan interpretatuz lorturiko emaitzei koherentzia emateko.

B.22. Ez da ageri Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren segimendua kasu guztietan egiten denik.

Departamentuek egiten dituzten ebaluazio-txostenak ez zaizkigu bidali eta, horregatik, ezin izan dugu egiaztatu SEEParen exekuziorako aurreikusitako dirulaguntzei erreferentziarik egiten ote zaien.

B.25. Gomendioak

Alegazio honetan jasotako gomendioei eutsi egiten zaie, fiskalizazio-lanetik iritsitako konklusioei buruzkoak izanik ez direlako aurkezturiko alegazioen ondorioz aldatuak izan.





Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzai- leak aurkeztutako alegazioak

2022ko apirilean, ganbera honek departamentu guztiei eskatu zien, kontu-har-
tzaitza zuzendari nagusiari igorritako galdetegi baten bitartez, giza baliabideen
prestakuntzari buruzko honako informazio hau:

- *Antzeman al da SEEPeko funtsen exekuzioan parte hartuko duten enplega-
tuen prestakuntza-beharrizanik? Baiezkoan, erants bedi analisisia.*
- *Txertatu al dira beharrizan horiek 2021 eta 2022an sektore autonomikoaren
esparruan onetsitako prestakuntza-planetan? Erants bedi dokumentazioa.*
- *SEEPari dagokionez enplegatu publikoei zuzenduriko prestakuntzaren alo-
rrean irakatsitako ikastaroen zerrenda (4.2.c Eranskina bete) eta antolatzaileek
jaulkitako ebaluazio-txostenak, halakorik bada.*
- *Adieraztea ea Foru Administrazioko enplegatuak SEEPari buruz beste ad-
ministrazio publiko batek emandako prestakuntza-ikastaroetara joan diren (adi-
bidez, CoFFEE-SEM), eta, kasua bada, horri buruzko informazio gehigarria.*

Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamen-
tuak beste inork ez zuen erantzun.

2022ko abuztuaren 2an galdetegi sinpletu bat bidali zen, SEEParen kudeake-
tarekin zerikusia duen langileriaren beharrizanei eta prestakuntzari buruzkoa, eta
horri erantzun zion SEEPa eta Kontabilitate Nazionala Koordinatzeko Zerbi-
tzuko zuzendariak.

Egun horretan bertan, Funtzio Publikoari eta NAPIri posta elektronikoko bat bi-
dali zitzaien, non honako hau galdetzen baitzen:

- *SEEParen kudeaketaz eta exekuzioaz arduratzen den langileriaren presta-
kuntza-beharrizanak baloratu dira eta, analisi horren ondorioz, detektatu da be-
rriazko prestakuntza-ekintzak egin beharra dagoela, SEEPeko funtsen kudea-
ketaren berezitasuna dela-eta.*
- *SEEParen kudeaketari buruz NAPIk emandako prestakuntzaren datuak
(ikastaroaren izena; antolatze-entitatea; hasiera-data; ordu-kopurua; parte-
hartzaile kopurua; irakasmodua).*
- *Detektaturiko prestakuntza-beharrizanak txertatu al dira 2021 eta 2022an
esparru autonomikoan onetsitako prestakuntza-planetan?*
- *SEEParen alorreko gaitasunak areagotze aldera esparru autonomikoan
egindako beste urrats batzuk, hala nola jardunaldiak, tailerrak, lantaldeak, in-
traneteko atala.*





SEEP funtsen kudeaketan eta exekuzioan esku hartu behar duten enplegatuek berariazko prestakuntza jaso behar dutela eta horren plangintza modu orokortuan behar dela egin deritzogu. Eginiko galderen erantzunaren esperoan.

Ez zitzaigun inolako erantzunik eman.

Nafarroako Gobernuaren 2022ko martxoaren 2ko Erabakiak, zeinaren bidez bereganatzen baita Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako goi-kargudunen gobernu onaren kodea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako enplegatu publikoen jokabide eta printzipio etikoena ere, eta onesten baita Iruzuraren Aurkako Neurrien Planaren eredu, SEEP-Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren exekuzioa dela-eta SEM-Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura finantzaturiko proiektuen kudeaketaren esparruan, honako hau xedatzen du 4. puntuan:

Laugarrena. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak etika publikoari eta iruzurraren aurkako tresnei buruzko prestakuntza-ekintzak antolatuko ditu.

Horrez gain, mugarriei eta helburuei buruz departamentuek eginiko autoebaluazio-testetan, zeinetan, besteak beste, prestakuntza baloratzen den, testa egin zuten zortzi departamentuetatik lauk gutxien-gutxieneko puntuazioa eman zioten (puntu 1, 4 puntutatik), eta horietako batek 4 puntutatik 2 eman zizkion mugarri eta helburuen kudeaketarako jasotako prestakuntzari.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digi-
talki sinatua)*

